

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*
Euskaltzaindia, 2011

2. *Leioako leku-izenak*
Euskaltzaindia, 2011

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



LEIOAKO LEKU-IZENAK



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.

Mikel Gorrotxategi
Iratxe Lasa
Goizalde Ugarte



LEIOAKO LEKU-IZENAK



Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Liburu hau Leioako udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz argitaratu da.

Este libro ha sido publicado gracias a la colaboración del Ayuntamiento de Leioa y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

© LEIOAKO UDALA

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Testuak:

Mikel Gorrotxategi

Iratxe Lasa

Goizalde Ugarte

Erdal itzulpena:

Goizalde Ugarte

Argazkiak:

Francisco Atxalandabaso

Mikel Gorrotxategi

Javier Landeta

Leioako Udal Artxiboa

Diseinua:

Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-95438-81-2

Lege-gordailua: BI-923-2012

ONOMASTIKA BATZORDEA:

BURUA:

Andres Iñigo

IDAZKARIA:

Mikel Gorrotxategi

KIDEAK:

Patxi Galé

Imanol Goikoetxea

Roberto González de Viñaspre

Iratxe Lasa

Jose Luis Lizundia

Elena Martínez de Madina

Céline Mounole

Felix Mugurutzza

Txomin Peillen

Alkatearen hitzak	8
Prólogo del alcalde	
Euskaltzaindiaren aurkezpena	10
Presentación de Euskaltzaindia	
Hitzaurrea: Toponimia hizkuntza ondarearen altxorra	17
Prólogo: Toponimia, el tesoro del legado del idioma	
<i>Toponimia zer den eta zertarako ikertu</i>	18
<i>Toponimia qué es y para qué investigar</i>	
<i>Toponimia arautzearen garrantzia</i>	20
<i>La importancia de normativizar la toponimia</i>	
<i>Toponimia Leioako hizkuntza ondarea</i>	22
<i>Toponimia: patrimonio del lenguaje de Leioa</i>	
Leioa udalerriaren izena	25
El nombre del municipio de Leioa	
Leioako auzoak eta euren izendapenak	29
Los barrios de Leioa y sus denominaciones	
Leioako etxaldeak	57
Los caseríos de Leioa	
<i>Leioako etxe-izenen (oikonimoen) ezaugarriak</i>	57
<i>Características de los nombres de las casas</i>	
<i>Leioako etxalderik garrantzitsuenak</i>	59
<i>Principales caseríos de Leioa</i>	
Leioa kalerik kale	215
Leioa calle a calle	
Beste leku-izen batzuk	277
Otros nombres de lugar	

PRÓLOGO DEL ALCALDE

Eneko Arruebarrena

Leioa, diciembre de 2011

HACIA MEDIADOS de esta década el Ayuntamiento de Leioa convocó una beca para recuperar y sistematizar la toponimia de Leioa. Muchos meses después, tras bucear en los archivos consultando viejos documentos, así como visitar los rincones de Leioa, ve la luz esta humilde publicación.

El idioma es una seña de identidad y, por supuesto, un medio de comunicación. A menudo las dos cosas al mismo tiempo. La toponimia es un claro ejemplo de esa doble caracterización, de hecho la toponimia de Leioa es vasca en casi toda su totalidad. Tal y como dice el proverbio vasco “*Izena duen guztiak izana du*” (lo que tiene un nombre, tiene un ser). Durante cientos de años los vecinos de Leioa han vivido en estrecha relación con su entorno, hasta tal punto que dieron nombre a las realidades físicas que los rodeaban y tanto amaban, realidades que eran sus referentes diarios. En nuestra tierra vasca esos referentes están al más alto nivel. Tal es el nivel, que los apellidos provienen de los nombres de las casas, que son las que nos dan cobijo.

Todos esos nombres que se recogen en esta publicación y los trabajos que en adelante se puedan realizar sirven para enriquecer nuestros conocimientos y nos permite conocer las realidades que viven y que han vivido durante generaciones los vecinos de Leioa. Un mundo que ha vivido más cambios en cincuenta años que en los mil años anteriores. Leioa ha sufrido un gran cambio, pero sigue siendo Leioa.

En un mundo cada vez más globalizado y en el que vivimos a un trepidante ritmo es muy importante reforzar nuestros referentes, y así hacer real el dicho “de lo local a lo global”.

Nos gusta llamar a las cosas por su nombre; por tanto, sepamos como hacerlo y sigamos trabajando.

HAMARKADA honen erdialdera gutxi gorabehera, Leioako Udalak beka baterako deialdia egin zuen Leioako toponimia berreskuratze eta sistematizatzeko. Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, bai artxiboetan antzinako dokumentuak kontsultatzen, bai lekuak eta beste batzuk bisitatuta, argitalpen hau egin dugu.

Hizkuntza identitate zeinua da, eta betiere komunikaziorako tresna. Batzuetan gauza biak izan daiteke aldi berean. Toponimia ezaugarri bikoitz horren adierazle da, eta Leioako toponimia, ia bere osotasunean, euskalduna da. Euskarazko esaerak esaten duen bezala, “*izena duen guztiak izana du*”. Ehunka urteetan, Leioako biztanleak harreman estuan bizi izan dira bere inguruarekin. Hain da horrela, erlazionatzen, inguratzen eta maite zituzten errealitate fisikoei izena eman zietela, euren egunerokoa erreferente ziren errealitateei. Euskaldunon lurrian, erreferentzia hori kategoriatik gorenera altxatzen da, izan ere, gure izen asko (abizenak) leku-izenetatik baitatoz, etxearen izenetik batez ere, familiari babesa eman izan diona atzo eta gaur.

Argitalpen honetan batzen diren izen horiek guztiek eta geroko lanek gure ezagutza aberasteko aterako dituzten beste batzuek ere, Leioak eta leioaztarrek, belaunaldietan, bizi izan duten mundua ulertzea ahalbidetzen digute. Azken berrogeita hamar urteetan aurreko mila urteetan baino aldaketa gehiago izan dituen mundua hain zuzen ere. Leioa eraldatu egin da, baina Leioa da oraindik ere.

Gero eta globalizatuago dagoen munduan, erritmo zorabiagarrian bizi garenean munduan, askoz ere beharrezkoagoa da gure burua ezagutzeko dauzkagun erreferenteak sendotzea, eta horrela “lokaletik globalera” dioen esakunea errealitate bihurtu.

Pertsonak eta gauzak beren izenez deitzea atsegin dugu. Jakin dezagun nola egin eta jarrai dezagun hala egiten.

PRESENTACIÓN

Andrés Iñigo

Presidente de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia

EL PRESENTE TRABAJO viene a ser un exponente del patrimonio onomástico de Leioa. Patrimonio extraído de la documentación antigua, en la medida en que ha podido ser rescatada, y del testimonio de los vecinos, que han colaborado aportando la información archivada en su memoria. Muchos de esos nombres se hallaban ocultos, porque con el paso del tiempo habían caído en el olvido o porque el cambio del paisaje geográfico los ha ido borrando. Otros habían sufrido la consiguiente alteración, bien porque en los registros administrativos no han sido correctamente escritos o bien porque han sufrido una considerable deformación en la transmisión oral, debido fundamentalmente a dos razones. Por una parte, a la progresiva pérdida generacional del uso del euskera, lengua en la que fueron creados por sus vecinos de habla euskaldun y, por otra, a que dichos nombres han sido poco a poco “acomodados” a la grafía y fonética del castellano, lengua de adopción.

La investigación realizada por los autores de este trabajo ha hecho posible, en la mayoría de los casos, identificar los nombres, saber cuál es la referencia que contienen y cuáles los elementos gramaticales que entran en la composición de los mismos. Con ello han logrado señalar el significado del nombre en cuestión o, cuando menos, facilitar un acercamiento a la posible etimología de los mismos.

El rescate o recuperación a que nos referimos no tiene como finalidad la exposición inerte de lo extraído, al modo de lo que pudiera ser, pongamos por caso, la presentación de unos hallazgos arqueológicos. Se trata de algo que sigue vivo, de nombres que están en uso, aunque en muchos casos bajo formas un tanto distorsionadas. Por ello, la recuperación debe realizarse teniendo presente un doble objetivo, como son la grafía en la forma correcta del nombre y la propuesta para su uso normalizado.

ESKU ARTEAN duzun lan hau Leioako onomastikaren erakusle-
leihoa da, bertako artxibategi historikoetatik eta herritarren
memoriatik jaso ahal izan diren lekukotasunei esker errekuperatu
diren izenen altxorra, alegia. Izan ere, hemen ageri diren izen asko
izkutatuak zeuden, horietako batzuk denboraren poderioz galdu
edo ahaztu izan direlako eta beste batzuk azkenaldi honetan izan-
dako paisaia geografikoaren aldaketak, batik bat, desagerrarazi di-
tuelako. Halaber, ez dira gutxi desitxuraketa nabariak jasan
dituztenak, edo administrazioetako agirietan nolnahi idatzi izan
direlako, edota ahozko transmisioaren eraginagatik. Zer dela eta?
Alde batetik, euskal hiztunen kopurua eta, ondorioz, euskararen
erabilera jaisten joan zen heinean, euskaraz sortutako izenen iden-
tifikazioa eta erabilera ere ezabatzen joan zelako eta, bestetik, gain-
ditzen joan zen hizkuntzak, gaztelaniak alegia, bere ezaugarrietara
aldatu izan dituelako izen horien ahoskera eta grafia.

Lan honen egileen azterketari esker lortu da, kasu gehienetan,
izen horiek identifikatzea, hots, zeri egiten dioten erreferentzia ja-
kitea, bai eta zein ezaugarri gramatikalez osatuak diren egiaztatzea.
Horrela ahalbidetu dute izenen esanahia ezagutzea edo, behinik
behin, beren etimologiari buruzko hurbilketa lortzea.

Kontuan izan behar da errekuperazioa aipatzen dugunean ez ga-
rela halako aurkezpen soil batez ari, hots, arkeologiako edota ma-
terial bizigabeekin egiten ahal den erakusketa baten antzekoaz.
Bizirik dauden izenen errekuperazioa da, nahiz eta zenbaitetan
desitxuratuak jaso ditugulako ez ditugun identifikatzen. Horrega-
tik, ikerketa honen helburua izenak berreskuratzea da eta, aldi be-
rean, forma zuzenak eskaintzea erabilera bizi eta zuzenerako.

Hori da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiko Onomastika batzorde-
aren zereginetako garrantzitsu bat, alegia, artxibategietan eta ahoz

Esta es precisamente la labor que le corresponde a la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, aplicar a las variedades obtenidas en la documentación escrita y en los testimonios orales los criterios lingüísticos adecuados para definir la forma de cada nombre, plasmarlo en la grafía correcta y, en consecuencia, ponerlo en condiciones para su uso social correcto.

Al respecto, Euskaltzaindia recientemente ha dado inicio, a través de su Comisión de Onomástica, a una nueva colección denominada *IZENAK*. Su finalidad es divulgar este tipo de trabajos para facilitar tanto el conocimiento como el uso correcto de los nombres.

Es por ello que a Euskaltzaindia le resulta altamente satisfactorio dar cabida en la presente colección a este trabajo de Leioa, financiado por su ayuntamiento, al que agradece tanto el interés en la recuperación y uso de su patrimonio onomástico como el esfuerzo realizado para ponerlo al alcance de todos a través de la presente publicación, sabedor, sin duda, de que cuanto más conocido y divulgado sea su patrimonio onomástico, tanto más valorado será y, en consecuencia, correctamente utilizado en el uso social.

bildutako aldakiei hizkuntza irizpideak aplikatuz, izen bakoitzaren forma zuzena ematea eta behar bezala agerraraztea euskararen normalizazioaren mesedetan.

Hartara, Euskaltzaindiak, Onomastika batzordearen bitartez, sortu berria du *IZENAK* deitzen den bilduma, horrelako lanak ahalik eta hedaturik handiena izan dezaten. Hori dela eta, atsegin zaio Euskaltzaindiari lan hau bilduma berri honetan argitara ematea.

Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkio Leioako udalari, bertako izenen ondarea errekupeatzeko erakutsi duen interesagatik eta, horretaz gainera, denen eskura jarri ahal izateko argitalpen hau finantziatzeagatik, jakinik zenbat eta baliabide gehiago jartzen duen bertako ondare hori ezagutarazteko, orduan eta baloratuagoa izango dela eta, ondorioz, erabilera zuzenera bideratua.





Hitzaurrea: toponimia hizkuntza ondarearen altxorra

Prólogo: toponimia, el tesoro del legado del idioma

ERDI AROAN sortu zen Leioa, eta mendez mendeko garapen demografikoa izan du, mantsoa, azken mendean, batez ere azken hamarkadetan izan duenarekin konparatuta; izan ere, sano aldatu da Leioako udalerrria eta bertan bizi diren biztanleen bizimodua azken garai hauetan. Aldaketok, garai batean herri honetako bizilagunek zituzten erreferente geografikoak aldatu ez ezik, erreferenteon garrantzia ere gutxitu egin dute. Gaur egungo GPS tresnek edo errepide eta kale seinaleztapenek inguruan ditugun leku-izen asko eta asko baliogabetu egin dituzte. Gaur egungo bizilagunoi, ondorioz, gaitza egiten zaigu iturri bati edo etxe ondoko belardiari izena ematea, izendatzea edo erreferentzia gisa erabiltzea. Gure erreferenteak kaleak, eraikin handiak, errepideak edota dendak dira; baina, garai batean, halakorik ez zegoenean, landa, ermita, guno edo etxaldeek zuten eginkizun hori. Gure arbaso zaharrek duela zenbait mende edota zenbait hamarkada sortutako izenak dira horiek, helburu praktikoa bati erantzunez sortutakoak eta, nola ez, euren hizkuntzak ematen zizkien baliabideak erabilia. Horrela jaio ziren, bada, leku-izenak ere Leioan, bertako bizilagunek sortu zituzten izenak, leku jakin baten ezau-garriak gogoan hartuta eta berori izendatzeko premiari erantzuteko asmoz.

Neurri handi batean herritarrak ziren, eta ondorioz herria, lekuak izendatzen zituztenak. Gaur egun, ordea, indibidualagoa da lan hori, eta etxeen jabeak dira, besteak beste, euren jabetzako lekuei izena ematen dietenak.

Esku artean duzun liburu honetan Leioako leku-izen esanguratsuen arituko gara, baina ezer baino lehen, hausnar dezagun leku-izenen garrantziaz eta hemen aurkeztuko ditugun emaitzen nondik norakoez.

LEIOA surgió en la Edad Media, y con el paso del tiempo ha ido desarrollándose demográficamente. El desarrollo del último siglo ha sido lento comparado con el de la última década; de hecho, el municipio de Leioa ha cambiado notablemente en la última época, al igual que el modo de vida de sus habitantes. Estos cambios, además de modificar los referentes geográficos de los vecinos de la zona, también han reducido la importancia de los referentes. Los sistemas de GPS o la señalización de las calles y carreteras han invalidado muchos de los nombres que nos rodean. Por esa razón nos cuesta tanto hoy en día nombrar o usar como referente las fuentes o campos que tenemos alrededor.

Nuestros referentes habituales son las calles, grandes edificios e incluso las tiendas, pero hubo una época en la que esa función la tenían las campas, ermitas o caseríos de la zona. Esos nombres fueron creados con un fin práctico por nuestros antepasados hace décadas o incluso siglos, y cómo no, con los recursos que les ofrecía su propia lengua. De ese modo nacieron los nombres de lugar en Leioa, al igual que en muchos otros lugares, los crearon los vecinos de la zona teniendo en cuenta las características específicas de cada lugar.

En gran medida eran los habitantes, el pueblo mismo, los que daban nombre a los lugares. Hoy en día, sin embargo, es algo más individual y son los mismos propietarios los que dan nombre a sus propiedades.

En este libro que tienes entre manos comentaremos los lugares más representativos de Leioa, pero antes reflexionaremos sobre la importancia de los nombres de lugar y las conclusiones que presentaremos más adelante.

1.1 *Toponimia zer den eta zertarako ikertu*

Toponimia: qué es y para qué investigar

TOPONIMOAK leku-izenak dira (grekoz *topos* = leku + *nimia* = izen). Gure inguruko edozein lekuk izan ohi du izena Euskal Herrian: etxaldeek, errekek, soroek, belardiek, tontorrek, trokek, auzoek, mendi-maldek eta abarrek. Hemen aurkezten dugun liburu hau azken hiru urteetan egindako ikerketa-lanaren ondorioa da. Leioako Udalak, Euskara Zerbitzuaren ekimenez, herriko toponimia ikertzeko beka-deialdia antolatu zuen 2006an. Ikerketak emaitza aberatsak eman ditu, eta liburu honetan emaitzok batu eta herritarren esku ipini nahi izan ditu erakunde honek.

Ikerketak iraun duen bitartean, Leioako leku-izenei buruzko informazio eta dokumentazio ugari bildu dugu. Gaur egun bizirik diren leku-izenez gain, desagertutako leku-izenak ere bildu dira. Horretarako, artxibo zaharrak arakatu behar izan dira, baina zoritxarrez ez da iturri aberats eta ugaria Leioaren kasuan. Guztira, gutxi gorabehera, Leioako zortziehun bat lekuren izenak jaso dira. Halere, leku asko, hainbat etxalde esate baterako, desagertu egin dira aspaldi, hirigintza-antolakuntzak edo beste arrazoi batzuek eraginda.

Halakoetan egin ohi den bezala, dokumentazio zaharra biltzeaz gain, leku-izenen ikerketa honetan leioaztar batzuek ere modu aktiboan hartu dute parte, eta euren memorian gorderik zuten informazioa gure esku jarri dute, eta zalantzarik ez izan, euren laguntza eta ekarpenik gabe lan honek ez zituela eman dituen emaitza aberatsak emango. Honenbestez, esker mila, informazioa eman eta ekarpenak egin dituzten guztiei, baita lan honetan, era zuzenean edo zeharka, parte hartu duten gainerakoei ere.



LOS TOPÓNIMOS son los nombres de lugar (del griego *topos* = lugar + *onoma* = nombre). Cualquier lugar que nos rodea tiene su nombre en Euskal Herria: caseríos, ríos, huertas, prados, cimas, hondonadas, barrios, pendientes y demás. El libro que os presentamos a continuación es el resultado de un trabajo de investigación que se ha llevado a cabo en los últimos tres años. En el 2006 el Ayuntamiento de Leioa, a iniciativa del Servicio de Euskera, convocó una beca para investigar la toponimia del pueblo. La investigación dio a conocer unos resultados muy interesantes que se recogen en este libro para ponerlos en manos de los vecinos.

Durante el periodo que duró la investigación se recogió una gran cantidad de información y documentación. Además de los nombres de lugar que todavía permanecen vivos, también se han recopilado nombres ya desaparecidos. Para ello, se ha indagado en antiguos archivos. Pero, en el caso de Leioa, no se ha obtenido un gran resultado. En total se ha conseguido reunir unos 800 nombres de lugar. Sin embargo, muchos lugares como por ejemplo los caseríos, desaparecieron hace tiempo a causa de reestructuraciones urbanísticas u otras razones.

Al igual que se ha hecho en otras ocasiones, además de reunir la documentación, algunos vecinos han participado activamente en la investigación de los topónimos. Han puesto en nuestras manos recuerdos que tenían guardados en su memoria, y no hay duda que sin su ayuda y aportación este trabajo no tendría los mismos resultados. Por lo tanto, muchas gracias a todos los que han hecho sus aportaciones a este trabajo, al igual que a todos los que han participado en él, directa o indirectamente.

1.2 *Toponimia arautzearen garrantzia*

La importancia de normativizar la toponimia

HORRELA, bada, historian izenek aldaketa ugari izan dituzte: batetik, euskararen eboluzio diakronikoaren ondorioz, ahoskera ezberdinak izan dituztelako, eta idatzizko jatorrizko forma osoa aldatu dutelako ahozko erabileran; bestetik, izen asko eta asko, hamaika arrazoi dela eta, beste izenen batez ordezkatu egin direlako sarritan. Hain zuzen ere, leku-izenen desagertze-prozesu hori geldiaraztea izan da leku-izenen ikerketari ekiteko arrazoi nagusienetakoa.

Ezagutzen ditugun leku-izen horien idazkera egokia eta jatorrizko forma zein den jakitea ere izan du helburu ikerketak. Toponimia hizkuntzaz baliatzen denez gero, hizkuntzaren atala da; eta ondorioz, euskarazko toponimoak euskarak berak bizi duen normalizazio prozesuan parte hartu behar du. Horrela, bada, hizkuntza arruntaren eta bere lexikoaren eta gramatikaren erabilera eta grafia arautzen dugun bezalaxe, toponimoen idazkera ere arautze-prozesu baten barruan dago. Eta arautze-prozesu horren arau-emaile dugun Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak oniritzia eman du Leioako edozein toponimoren idazkera erabakitzerakoan, ahozko eta idatzizkoen artean formarik egokiena hautatuz; sarritan alde handia egoten da-eta ahoz ezagutzen dugun lekuren baten ahozko formaren eta jatorrizko idatzizko forma osoaren izenaren artean. Esate baterako, *Atzabalta* izenaz ezagutzen dugun Santi Mami auzoko etxaldearen idatzizko forma egokia **Aretxabaleta** da, edo *Sutzus* izenaz ezagutzen dugun auzoa, **Zuhatzu** etxaldearen izenetik dator.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiak idatzizko forma baino ez du arautzen, horrenbestez, ahozko erabilera herriarena eta herritarrena da, euskal hiztunena, alegia. Eurek janzten baitituzte toponimoak bertako euskararen eta euskalkiaren ezaugarriez.

LOS NOMBRES de lugar han sufrido muchos cambios a lo largo de la historia: por un lado, a consecuencia de la evolución diacrónica del euskera, ha habido diferentes formas de pronunciar y se han modificado las formas escritas originales; por otro lado, muchos nombres han sido sustituidos por otro debido a diversas razones. De hecho, uno de los principales motivos para llevar a cabo la investigación ha sido detener ese proceso de desaparición de los nombres de lugar.

Otra de las razones para la investigación ha sido poder saber cuál es la forma apropiada y castiza de escribir los topónimos que conocemos. Hay que tener en cuenta que la toponimia es parte del lenguaje, y por lo tanto los topónimos también tienen que tomar parte en el proceso de normalización que vive el euskera. De ese modo, al igual que normalizamos el uso y la grafía del idioma, la gramática y el léxico del lenguaje común,

también debemos de normalizar la escritura de los topónimos. La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia es quien fija las normas a seguir en el proceso de regular los nombres y es quien ha aprobado la escritura de los topónimos de Leioa, seleccionando la forma más apropiada de escribir, ya que muchas veces suele haber una gran diferencia entre la forma oral de un lugar que conocemos y la forma completa en que se documenta. Por ejemplo, la forma correcta del caserío conocido como *Atzabalta* de Santi Mami es **Aretxabaleta**, del mismo modo el barrio conocido como *Sutzus* proviene del nombre del caserío **Zuhatzu**.

De todos modos, Euskaltzaindia sólo regula la forma escrita, ya que el uso oral es del pueblo y de sus habitantes. Son ellos los que dan a los topónimos las características especiales de la zona.



Leioa, 1956

1.3 Toponimia Leioako hizkuntza ondarea

Toponimia: patrimonio del lenguaje de Leioa

BI DIRA toponimiak dituen balio nagusiak. Batetik, balio linguistiko neurrigabea du toponimiak; eta bestetik, balio historikoa. Hortaz, herriaren ondare paregabe bihurtzen zaigu, zaindu eta gorde beharreko ondarea. 2007an Izen Geografikoen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen 9. Konferentziak ere toponimia “giza-emakume guztien ondare inmaterial” izendatu zuen.

Euskararen historia iluna da, ahozkotasunean oinarrituta, eta beraz, gutxi dira beroren berri ematen diguten testigantza idatziak. Toponimian, ordea, historia horren eta bilakaera horren aztarna ugari topatu ahal ditugu. Leioako toponimia beraz, Leioako euskararen aztarnategi ezin hobea da eta, besteak beste, udalerrri erabat euskaldunaren irudia ematen digu. Toponimia historikoaren ia %100 euskalduna da Leioan, eta horrek argi adierazten du Leioa eta leioaztarrak nagusiki euskaldunak izan direla mendeetan. Baina, euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitzak eragin zuzena izan du toponimian ere, eta jatorrizko izenak aldatu edo desitxuratu egin dira elkarreragin horren ondorioz; fenomeno normala, bestalde, ukipen egoeran dauden hizkuntzetan.

Toponimiak erabiltzen zen lexikoaren berri ematen digu, ahoskerarena eta izenak sortzeko leioaztarrek erabiltzen zituzten baliabideena, eta hori Leioako euskararentzako balio handiko informazioa da; izan ere, azken mendean bertako euskaldun kopuruak nabarmen egin du behera eta, jakina, horrek eragin zuzena izan du hizkuntzan eta toponimian.

Gaur egun Leioak duen irudia azken mendean bizi izan duen eraldaketaren ondorioa da, industrializazioaren ondorioa, alegia. Leioako leku-izenak, memoria historikoaren zein azken mendeko historia berriagoaren lekuko dira. Guztiarekin ere, Leioak toponimia aberatsa du, eta ondare hori gorde beharra dago, bere historiaren lekukorik zintzoena baita.

LOS VALORES principales de la toponimia son dos. Por un lado, la toponimia tiene una riqueza lingüística incalculable; y por otro, histórica. Por eso es un patrimonio excepcional del pueblo, patrimonio que hay que conservar. En la 9ª Conferencia de las Naciones Unidas sobre la Normalización de los Nombres Geográficos celebrada en el 2007 la toponimia fue nombrada “patrimonio inmaterial de la humanidad”.

La historia del euskera ha sido oscura y tenemos pocas noticias escritas de la misma. La toponimia, en cambio, nos ha dejado innumerables señales de su evolución. Por tanto, la toponimia de Leioa es un ejemplo inmejorable del euskera de Leioa, y deja al descu-

bierto que Leioa ha sido un municipio plenamente vascohablante. Casi el 100% de la toponimia histórica de Leioa está en euskera, y eso demuestra que durante siglos los vecinos de Leioa se han expresado mayoritariamente en euskera. Pero la relación que durante años han mantenido el euskera y el castellano ha tenido una influencia directa en los topónimos de la zona, y ha ido cambiando la forma original de los topónimos; un fenómeno completamente normal en idiomas que se encuentran en contacto.

La toponimia nos indica cuál era el léxico que se utilizaba y los recursos que había para crear nombres y pronunciarlos; eso es una valiosa información sobre el euskera de Leioa, ya que en el último siglo la cantidad de vecinos que hablan en euskera ha disminuido notablemente y eso ha tenido una influencia directa en el idioma y la toponimia.

La imagen que Leioa tiene hoy en día es consecuencia del cambio que ha ido experimentado en el último siglo; es decir, consecuencia de la industrialización. Los nombres que encontramos en Leioa son testimonio tanto de la memoria histórica como de la historia más reciente del último siglo. Todos esos testimonios nos enseñan la riqueza de la toponimia de Leioa; un patrimonio que hay que preservar, puesto que es testigo de la historia.

Leioa, 1956



Leioa udalerrriaren izena

El nombre del municipio de Leioa

LEIOA UDALERRI izenaz hitz bi esatea ezinbesteko ikusten dugu lan honetan, bereziki **Lejona** eta **Leioa** aldaeren arteko ezberdintasunak hobeto ulertu eta erabilerak zuzentze aldera.

Udalak 1979an Leioa izena udalerrriaren izen bakar eta ofizialtzat onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan beste hainbat udalerrrik egin zuten bezalaxe. Izen bera izanik, izen horren eboluzio bikoitza ofiziala izateak alferrikako bikoizketa eta nahasmena ekar zezakeela ikusirik, Udalak, nazioarteko usadioei jarraituz, *leku bat izen bat*, izen bakarra hautatu zuen, eta jatorrizko hizkuntzari, euskarari alegia, eman zion lehentasuna.

Toponimoaren jatorrizko forma osoa, **Leiona* izango zen eta handik sortu zen gaztelaniaz erabili izan den *Lejona*, hastapenetan *Lexona* idatzita, eta euskarazko Leioa, Lujua eta Loiu izenekin gertatu bezala. Jauregi toponimoa dugu esandakoaren adibide argia ere, izan ere inguru honetan *Yeuri* esaten diote Jauregi izeneko etxaldeari, “j” grafiaren bertako ahoskera zainduz.

Era berean, gogoratu beharra dugu euskararen ibilbide diakronikoan eta fonetika historikoan normala izan dela *lenis* deituriko bokal arteko *-n-* sudurkariaren galera, berezko joera naturala da eta hainbat latinezko mailegu eta hitzetan topatzen dugu: katea (*catena*), bolua (*molinum*) eta abar. Ugariagoak dira, halere, leku-izenetan gertatutako adibideak: Galdakao (Galdácano), Lemoa (Lemona), Lemoiz (Lemoniz) eta, besteak beste, Sopela (Sopelana). Baina Leioa toponimoaren antzekotasun handia duen beste leku-izen bat dugu, Arrigorriaga eta Bilboko auzoa den Buia izena hain zuzen ere, erromantzezko aldaerak *Bujana* eman baitu eta euskarazkoak *Buia*.

Jakina, euskarak izan duen bazterketa administrazioan eta idatziz erabilia ez izateak euskarazko forma horren dokumentaziorik eza edo dokumentazio eskasia ekarri du. Hala ere, Leioaren kasuan toponimia historikoaren ikerketa honek agerian utzi du bertako herritarrek euskarazko forma erabiltzen zutela normaltasunez, eta horrela erakusten digute toponimia txikian topatutako forma hauek: *Leyoa solo* (1865 Leioako Udal Agiritegia) eta *Leyoasolo* (1899 LUA).

Leioagoitia izeneko etxaldearen ahozko formak ere, ahoz *Leyunti* formaz ezaguna, eta *Leyúntegui* (1891, LUA) edo *Leyunti* (1899 LUA) formez dokumentatua, agerian uzten du euskarazko erabilera zela nagusia. Dokumentazioari so eginez gero, ordea, *Lejonagoitia* bezalako formak nagusitzen dira, baina forma horiek ez diote benetako erabilerari erantzuten, eskribauek faltsututakoak baitziren, ahoz heldu zaigun ahoskerak argi erakusten digun bezala. Gure irudiko *Leionagoitia* > *Leioagoitia* aldaketa gauzatzean desagertutako *-n*-ak eragin zion *-a* bokalari, sudurkari eginez, eta gero birsortu egin zen. Hau ez da gertaera bitxia, eta, esaterako, *Arenatza* toponimo zaharretik *Areatza* eta *Areantza* sortu dira. Beraz **Leio(an)goitia* sortu zen eta handik ahoz erabiltzen den *Leyunti*.


Etimologiari dagokionez, Iturriza bezalako historia ikertzaile zenbaitzuek *leiho* eta *ona* hitz elkarketa proposatu duten arren, dokumentazioak argi erakusten du etimologia horrek ez duela oinarririk. J. Caro Barojaren ustez, izen honetan ezagutzen ez dugun pertsona izena eta Lemoa eta Sopela izenetan dugun *-ana* atzizkia ditugu. Horrelako izenak Erromatar Garai berantiarrean eta Goi Erdi Aroan etxalde edo *fundus* izendatzean sortu ziren.

Es necesario decir unas palabras sobre el nombre Leioa, sobre todo para entender mejor las diferencias entre las variantes **Leioa** y **Lejona** y de ese modo poder corregir su uso.

En 1979 el Ayuntamiento aprobó el termino Leioa como único nombre oficial del municipio, al igual que habían hecho anteriormente otros muchos municipios de la Comunidad Autónoma Vasca. El Ayuntamiento comprobó que, al ser un único nombre con una doble evolución, tener dos nombres oficiales podía causar confusión. Por esa razón, siguiendo las propuestas de la comunidad internacional, *un nombre un lugar*, dio prioridad al idioma original que había creado el nombre, el euskera en este caso.

La forma completa y original del topónimo sería **Leiona* y de ahí nació la forma *Lejona*, escrita *Lexona* en sus comienzos, que se ha usado en castellano y *Leioa* en euskera, al igual que ha sucedido con los nombres Lujua y Loiu. Otro claro ejemplo es el del topónimo *Jauregi*, ya que en esta zona se les dice *Yeuri* a los caseríos de nombre Jauregi, teniendo en cuenta la pronunciación en la zona de la letra “j”.

Del mismo modo, tenemos que recordar que en el recorrido diacrónico del euskera y en la fonética histórica ha sido común la pérdida de la *-n* nasal intervocálica denominada *lenis*, es una tendencia natural que se da en diversos préstamos y palabras del latín: *katea* (*catena*), *bolua* (*molinum*) etcétera. Son más abundantes, sin embargo, los ejemplos ocurridos en los nombres de lugar: Galdakao (Galdácano), Lemoa (Lemona), Lemoiz (Lemoniz) y Sopela (Sopelana), entre otros. Pero existe otro topónimo que tiene una gran semejanza con el caso de Leioa, *Buia*, barrio de Bilbao y Arrigorriaga, ya que la variante del romance ha dado *Pujana* y la del euskera *Buia*.



BFA, 1926

Naturalmente, hay que tener en cuenta la poca presencia que ha tenido el euskera en los escritos administrativos, y por ello la falta de testimonios escritos de la variante eusquérica. No obstante, en el caso de Leioa la investigación de la toponimia histórica ha dejado en evidencia que los vecinos utilizaban la variante de euskera con normalidad, y así lo demuestran las formas encontradas en la toponimia menor, en los nombres de heredades: *Leyoa solo* (1865 Archivo Municipal de Leioa) y *Leyoasolo* (1899 AML).

La variante oral del caserío **Leioagoitia**, *Leyunti*, así como las documentadas *Leyúntegui* (1891, AML) o *Leyunti* (1899, AML) también prueban que el uso mayoritario era el del euskera. Y aunque en la documentación predominan formas como *Lejonagoitia*, esas variantes no corresponden al uso real, sino a formas alteradas por los escribanos tal y como nos demuestra la pronunciación oral que ha llegado hasta nosotros. En nuestra opinión, la desaparición de la *-n* en *Leionagoitia* > *Leioagoitia* afectó a la vocal *-a* nasalizándola y posteriormente volvió a aparecer. Este suceso no es nada raro, por ejemplo, del topónimo *Arenatza* han surgido las variantes *Areatza* y *Areantza*. Por lo tanto, de **Leio(an)goitia* la variante más común es *Leyunti*.

En lo referente a la etimología, historiadores como Iturriza han propuesto composiciones derivadas de las palabras *leiho* y *ona*, pero la documentación deja claro que esa etimología no tiene ninguna base. En opinión de J. Caro Baroja se compone del nombre de una persona sin identificar y el sufijo *-ana* que aparece en *Lemoa* y *Sopela*. Esa clase de nombres se usaban en la época tardo-romana y Alta Edad Media para referirse a los *fundus* o propiedades.



Leioako auzoak eta euren izendapenak

Los barrios de Leioa y sus denominaciones

LEIOAKO auzo zaharrenak eta jatorrizkoenak hauexek izan ziren: Udondo, Ondiz, Aketxe, Arara eta Leioa. Hain zuzen ere, gune horietan biltzen ziren biztanle-gune inportanteenak Erdi Arotik XVIII. mendera bitartean. A. Manzanok, Erandio udalerriri buruzko *Pasajes históricos de Erandio* izeneko liburuxkan (1985) auzoei buruz honakoa jaso zuen:

«En Erandio, en 1438, se hace mención de los barrios de **Ondiz**, **Udondo**, **Aqueche**, Alzaga, Fano, **Araba**¹, Berriz, **Lejona** y Asúa, sobresaliendo este último, ya que su configuración geográfica permite el uso de un puerto natural».

Garai hartan Leioa Erandioko elizatearen menpe zegoen, eta hori dela-eta jasotzen zituen Erandioko auzo gisa Leioako horiek, hain zuzen ere: Aketxe, Ondiz, Udondo, Leioa (gaur egun Elexalde) eta Arara (gaur egun Santi Mami) auzoak.

XVIII. mendean honako auzoek osatzen zuten Leioa:

1704: Landabaso (1745ean Arara, Arostegi eta Landabaso), Libano², Ubeda (Sarriena gaur egun), Zuhatzu, Peruri, Basaiz, Artatza, Leioa (Elexalde gaur egun), Ondiz, Aketxe eta Udondo.

1745: Ondiz, Aketxe, Udondo, Arara (barruan Elexalde), Aretxabaleta, Arostegi, Ubeda (Sarriena gaur egun) Zuhatzu (Peruri barne), Basaiz eta Artatza.

Geroago, 1880ko hauteskundeetarako egindako distritu-zatiketan, Leioa bi gune nagusitan banatu zuten: **Marinerri** eta **Baserri**. Lehenengoan Artatza, Ondiz, Udondo, Aketxe eta Lamiako sartzen ziren; eta bestean, gainerako auzo guztiak.

¹ Argi dagoenez, *Arara* izenaren transkripzio okerra da.

² Sutegien bertsio batean *Libao* ageri da auzo moduan, eta beste bertsio batean Landabasoko etxe batzuk biltzen ditu.

Banaketa hau, hala ere, ez da gaur egun ezagutzen; eta izenok galdu arren, ezin dira nolanihi baztertu, nekez asma baitzitzakeen administrazioak horrelakoak eta benetako erabileraren isla izan behar zuten. Ezagunena nonahi aurkitzen dugun Goierri bada ere, horrelako asko daude Euskal Herri osoan, ohikoa izan baita auzo edo inguru zabalak izendatzeko *herri* hitza erabiltzea; batzuetan, hiri izen batekin, Estellerri (Lizarra ingurua) edo Toloserri (egun Tolosaldea) kasuetan bezala; beste-etan hitz arruntekin, *Kokoerri*, *Sugerría* edo hurbil dugun *Txorierri*.

Baserri hitzaren esanahia, argitu beharra dago, ‘nekazal gunea’ da; ez gaur egun duen esanahia, ‘nekazal guneko etxea’. *Etxalde* hitza da, eta ez *baserri*, hain zuzen ere, nekazal gunean dagoen eraikina izendatzeko erabiltzen den hitza Leioan eta inguruko herrietan. Getxon, Leioako mugan dagoen Bolua erreka inguruarri Baserri esaten zaio eta inguruan hitz arrunt moduan erabiltzen da, gero eta gutxiago hala ere.

Marinerri da bigarren gunea, hain zuzen ere, Gobela erreka eta Bilboko itsasadarren ondoko guneari esaten zitzaien. Leioa, halere, ez da izan marinel herri nabaria, baina zalantzarik gabe itsasadarraren ondoan egoteak eragina izan zuen.

Gune bakoitza, jakina, jarduera batekin lotzen da. Izenek beraiek adierazten dutenez, Baserria nekazaritzarekin lotuago dago, eta Marinerri itsasoaren eta arrantzaren munduarekin. Leioako historian tradiziozko bi jarduera nagusiak izan dira.

XIX. mendean baina, Leioan, inguruko herrietan bezalaxe, industrializazioaren eragina agerikoa egin zen, eta hainbat eta hainbat lantegi sortu ziren itsasadarraren inguruan. Lamiako izenaz ezaguna zen padura handia, Gobela erreka eta Udondo erreka artean, eta Bilboko itsasadarraren parean, industria gune bilakatu zen. Garapen ekonomikoa ekartzeaz gainera, garapen demografikoa eta ondorioz, hirigintza garapena ere ekarri zituen industrializazioak; baina, baita aldaketa geografiko eta gizarte eraldaketa esanguratsuak ere.

Gaur egun 3 biztanle entitate ofizial ditugu Leioan: **Elexalde**, **Artatza** eta **Lamiako**. Baina hiru auzo horiek ez dira beti auzo erreferenteak izan. Historian beste auzo batzuk izan dira herrian. Batzuk handi edo nagusiagoak; beste batzuk, berriz, apalagoak. Haietako batzuk desagertu egin dira ondokoek bereganatuta eta beste batzuek izena aldatu dute.

Egun auzo ofizial hauek ditugu:

Aketxe	Basaez
Aldekoena	Elexalde
Artatza	Ibaiondo
Artatzagana	Lamiako



Elexalde

Indalecio Ojanguren GureGipuzkoa.net.

Ondiz

Sarriena

Peruri

Telleria

Pinueta

Txopoeta

Santi Mami

Txorierra

Santsoena

Udondo

Horietaz gain, izan ziren *Arara*, *Aretxabaleta*, *Arostegi* eta *Ubeda*, azken hori gaur egun *Sarriena* deitua.

LOS BARRIOS originales de Leioa han sido Udondo, Ondiz, Aketxe, Arara y Leioa. Ésas eran las zonas donde se concentraban la mayor parte de los habitantes entre la Edad Media y el siglo XVIII. A. Manzano en el libro sobre Erandio titulado *Pasajes históricos de Erandio* (1985) recoge lo siguiente sobre esos barrios:

«En Erandio, en 1438, se hace mención de los barrios de **Ondiz, Udondo, Aqueche**, Alzaga, Fano, **Araba**³, Berriz, **Lejona** y Asúa, sobresaliendo este último, ya que su configuración geográfica permite el uso de un puerto natural».

En aquella época Leioa pertenecía a la Anteiglesia de Erandio y por eso aparecen los barrios Aketxe, Ondiz, Udondo, Leioa (hoy Elexalde) y Arara (hoy Santi Mami) como barrios de Erandio y no de Leioa.

He aquí los barrios que en el siglo XVIII formaban Leioa:

1704: Landabaso (en 1745 Arara, Arostegi y Landabaso), Libao⁴, Ubeda (hoy Sarriena), Zuhatzu, Peruri, Basaiz, Artatza, Leioa (hoy Elexalde), Ondiz, Aketxe y Udondo.

1745: Ondiz, Aketxe, Udondo, Arara (dentro de este Elexalde), Aretxabaleta, Arostegi, Ubeda (hoy Sarriena), Zuhatzu (incluyendo Peruri), Basaiz y Artatza.

Posteriormente, en la división de distritos hecha en las elecciones de 1880, Leioa se dividió en dos núcleos importantes: **Marinerri** y **Baserri**. El primero lo integraban Artatza, Ondiz, Udondo, Aketxe y Lamiako; y el segundo, el resto de los barrios. Sin embargo, esta división no se conoce hoy en día y aunque sean nombres que ya no se usan, no podemos dejarlos a un lado, ya que eran nombres que difícilmente podía inventar la administración y tenían que ser el reflejo de un uso real. El nombre de este tipo más conocido es Goierri, la palabra "herri" ha sido usada comúnmente en la toponimia para referirse a barrios o zonas amplias: algunas veces acompañando nombres de ciudades como en los casos Estellerri (Tierra Estella) o Toloserri (hoy en día Tolosaldea); o como en otros casos, con palabras comunes como *Kokoerri*, *Sugerría* o el cercano *Txorierri*.

Baserri, en este caso, significa 'zona rural'; y no el significado que tiene hoy en día, 'casa de labranza' o 'caserío'. En Leioa y en los pueblos de alrededor se utiliza la palabra *etxalde* para referirse al *caserío* y no *baserri*. En Getxo se le llama *Baserri* a la zona del arroyo Bolua que está en el límite con Leioa y se utiliza como una palabra común, aunque sea cada vez menos.

³ Claramente, transcripción incorrecta del nombre Arara.

⁴ En una versión de las fogueraciones aparece Libao como barrio, y en otra versión recoge algunas casas de Landabaso.

Marinerri es la segunda zona, se llama así al espacio que se encuentra entre el río Gobela y la ría de Bilbao. Aunque Leioa no ha sido un pueblo marinero, no hay duda de que el estar al lado de la ría ha tenido influencia, como se ve en este nombre que sería algo así como 'el barrio del mar'.

Está claro que cada zona se asocia a una actividad. Como los nombres propios indican, Baserri está más unido a la labranza y Marinerri al mar y al mundo pesquero. Estas han sido las dos actividades tradicionales en la historia de Leioa.

Pero en el siglo XX, al igual que en los pueblos de alrededor, la influencia de la industrialización ha sido patente en Leioa y se construyeron diversas fábricas a lo largo de la ría. La gran marisma conocida con el nombre de lamiako, que se sitúa a un lado de la ría de Bilbao y entre los ríos Gobela y Udondo, se convirtió en una zona industrial. La industrialización, además de traer un desarrollo económico, también impulsó la demografía y en consecuencia el desarrollo urbanístico; pero así mismo originó importantes cambios geográficos y sociales.

Hoy en día en Leioa hay 3 entidades de población oficiales: **Elexalde**, **Artatza** y **Lamiako**. Pero estas no siempre han sido los barrios referentes. A lo largo de la historia ha habido otros barrios en el pueblo. Algunos mayores y más importantes; y otros más humildes. Algunos han desaparecido absorbidos por los de alrededor y otros han cambiado de nombre:

Hoy en día tenemos los siguientes barrios oficiales:

Aketxe	Ibaiondo	Santsoena
Aldekoena	Lamiako	Sarriena
Artatza	Ondiz	Telleria
Artatzagana	Peruri	Txopoeta
Basaez	Pinueta	Txorierrri
Elexalde	Santi Mami	Udondo

Además de los anteriores también existieron *Arara*, *Arexabaleta*, *Arostegi* y *Ubeda*, este último llamado hoy *Sarriena*.



Gaur egungo auzoak

Los barrios hoy

Aketxe auzoa Leioako auzorik zaharrenetakoa izateaz gain, dokumentatuenetakoa ere badugu, 1652. urtetik aurrerako dokumentazio historikoan sarri agertzen baita. Bermeoko Gaztelugatxeko ermita dagoen uhartearen ondoko haitzak ere Aketxe izena du; eta batzuek leku-izen horren amaieran *-atx* (haitz) hitza ikusten badute ere, ez du zuzena ematen; izan ere, hitz amaierako kontsonante ondoan bokal paragogikoa XVIII. mende amaieran bertan dokumentatzen da eta leku-izen hori, bai Bermeoko kasuan, bai Leioako kasuan ere, ez da inoiz ere, amaierako *-e* gabe (**Aketx*) dokumentatu. Ezin dugu, ordea, zehaztu zein etimologia duen leku-izen honek. Besterik argitu ezean, *aker* eta *etxe* izenen hitz-elkarke-ta da azalpenik argiena, baina azalpen honek argi-ilun ugari ditu.

Gainera, Iñaki Ugarte, **Aketxebekoa** auzoaz ere ari da Leioari buruzko bere liburuan (*Leioa: sus barrios y pluralidades*), Aketxe auzoaren azpiko guneaz ariko da ziurrenik; baina horri **Aketxeazpi** esan izan diote dokumentazioak erakusten due-nez, eta herri lurrak izan ziren.

Sehaska kanta batean biltzen da izen honen jentilizioa:

*«Zori onean galdu da
Ereagan ontzie
aketxatarrak jantziteko
lorazko jantzie»*

[BASAÑEZ, Jesus: *Lejona, Anteiglesia vizcaina*, 275. or.]

Kantu honek Ereaga-Areetan ondoratzen ziren itsasontzietako gauzak hondar-tzaratzen zirenean, beroriek biltzeko ohitura jasotzen du. Ohitura hau kostaldeko herri guztietan izan da eta gure kasuan Portugaleterekin hainbat istiluren iturria izan zen. Bitxikieria moduan esan daiteke auzi horiei esker dokumentatzen dela *Areeta* izena lehenengo aldiz.

EL BARRIO **Aketxe** es uno de los más antiguos de Leioa y uno de los más documentados, puesto que aparece frecuentemente en la documentación histórica a partir del año 1652. La roca que se encuentra al lado de la isla donde está la ermita de Gaztelugatxe también lleva el nombre de Aketxe, y aunque algunos vean la palabra *-atx* (*haitz*, 'roca' en euskera) al final del nombre, no parece lo más correcto. A finales del siglo XVIII empieza a documentarse la vocal paragógica (-e) al final de la palabra, pero tanto en el caso de Bermeo como en el de Leioa nunca se han documentado formas sin -e final (**Aketx*). De todos modos, no podemos especificar cuál es la etimología de ese lugar. Hasta conseguir más información, la explicación más clara es que se trataría de un topónimo formado por las palabras *aker* 'macho cabrío' y *etxe* 'casa', pero esta explicación también deja algunos puntos sin aclarar.

Iñaki Ugarte habla del barrio **Aketxebekoa** en su libro *Leioa: sus barrios y pluralidades*. Seguramente se referirá a la zona situada bajo el barrio Aketxe; pero la documentación encontrada se refiere a este lugar como Aketxeazpi, de igual significado y eran tierras comunales.

El gentilicio de este nombre se recoge en una canción de cuna:

«Zori onean galdu da Ereagan ontzie aketxatarak jantziteko lorazko jantzie».	[«Con buena suerte se ha perdido un barco en Ereaga, para vestir a los de Aketxe con vestido de flores»].
[BASAÑEZ, Jesus: <i>Lejona, Anteiglesia vizcaína</i> , 275. or.]	

Esta canción recoge la costumbre de recoger los objetos provenientes de naufragios que la mar arrojaba en la playa de Ereaga-Areeta. Esta costumbre, común en todos los pueblos de la costa, dio lugar a diversas disputas con Portugalete. Como curiosidad diremos que gracias a estos pleitos se documenta por primera vez el nombre de *Areeta*.

Hauek dira auzo horretan mendez mende ageri diren izenak*
—Estos son los nombres que aparecen siglo a siglo en ese barrio*—

1704	1745	1796	1825	1950
Hormetxe (caída)				
Etxabarria	Aketxetxebarria	—	Aketxetxebarria	Etxebarri
Urtiena	Urtiena	Aketxeurtiena	Urtiena	Urtiena
Goikoetxea	Aketxegoikoetxea	Aketxegoikoetxea	Aketxegoikoetxea	Goikoetxe
Kortesena	Kortesena	Aketxekortesena	Kortesena	Kortesena
Etxeandia	Etxeandia	Etxeandia	—	Etxeandi
Elorriaga	Elorriagena	Elorriagena	—	Elorriena
Otxoagogorra	Otxobarrena	Otxoerrena	Otxobarrena	Otxobarrena Ibarbarri Goikoetxelabea

* Izenak 1704ko sutegiaren ordenean agertzen dira zerrenda guztietan.

* Los nombres aparecen en todas las listas según la ordenación de las fogueraciones de 1704.

Aldekoena, deitura batetik, etxe izena tarteko, eratorritako izena da, Sarriena auzoaren kasuan bezala.. Gatika eta Sopelakoa den *Aldekoa* abizena eta *-ena* jabetza atzizkia. Esan behar da, ahoz inguruan ohikoa den bezala *Aldekoane* esaten zaiola. Lehenago *Bordeonea* izenez ezagutu zen auzoa, baina Ubedaren (Sarriena) azpi- auzoa izan zen.

Aldekoena, al igual que el barrio Sarriena, es un nombre derivado del apellido *Aldekoa* de Gatika y Sopela y el sufijo de posesión *-ena*. Oralmente, como es costumbre en la zona, se le dice *Aldekoane*. Anteriormente fue conocido como *Bordeonea*, pero era parte del barrio Ubeda, hoy Sarriena.

Aldekoena auzoa historian zehar
—El barrio Aldekoena a lo largo de la historia—

1704	1745	1796	1825	1950
Altamira		Altamira	Altamira	Lermuntegia
		Bordeonabarría	Bordeoena	Aldekoena
				Sarriena
		Bordeoena	Bordeoena	Bordeoena
		Bordeenatxikita		
		Goldotxu	Goldotxu	
		Altamirabarrí ⁶		

Arara, gaur egun Santi Mami auzoko zatia bada ere, izatez hau zen inguruko etxalde guztiak batzen zituen izena, Mendibiletik Larrakoetxeraino.

Otzobarrena	Otzo-barrene	Aketxe
Ibarrabari	Ybarra-barri	Aketxe
Sindikatua	Sindicato	Sabino Arana
Iturribondo	Yturri-bi-ondo	Sabino Arana
La Trinchera	La trinchera	Sabino Arana
Morterueta	Morteruetas	Ondiz
Ermita	Ermita	Ondiz
Etchezuri	Echezuri	Ondiz
Inturrine	Ynturrine	Ondiz
Iturrikoetxe	Yturricoeche	Ondiz
Abadene	Abadene	Ondiz
Alangoetxe	Alangoeche	Ondiz
Aurrekoetxe	Aurrecoeche	Ondiz
Palazio	Palacio	Ondiz

Idazkera egokia Grafía correcta	Agirian jasotako idazkeran Forma que aparece en el documento	Auzoa Barrio
Torrea	Torrea	Ondiz
Altzaga	Casa- Alzaga	Ondiz
Sagasti	Sagasti	Ondiz
Jauregi	Jaúregui	Ondiz
Zarragata	Zarragatas	Artatza
Aramaioena	Aramayone	Artatza
Landabarri	Landa-barri	Artatza
Ugarteondo	Ugarte-ondo	Artatza
Basaez	Basañese	Artatza
Laubide	Lau-bide	Artatza
Artatzabari	Artaza-barri	Artatza
Urbietza	Urbietza	Artatza
Amporrene	Amporrene	Artatza
Iñorrotzagoikoa	Ynorroza-goicoa	Artatza
Iñorrotzaga (Bi)	Yñorroza-b	Artatza
Beatute	Beatutes	Artatza
Pinosolo	Pino-solo	Artatza
Otxotene	Ochotene	Artatza
Larrauri	Larrauri	Artatza
Trabuena	Trabuena	Artatza
Pedro cojo	Pedro cojo	Artatza
Beratzza	Beraza	Artatza
Osteikoetxea	Osteicoechea	Artatza
Gaztelueta	Gasteluetas	Artatza
Bar Carmelo	Bar Carmelo	Iparragirre k.
Junkerabarria	Junquera nueva	Iparragirre k.
Larraukoetxe	Larracoetxe	Peruri
San Bartolome	San Bartolomé	Peruri
San Bartolome baseliza	San Bartolomé	Peruri
Andikoetxe	Andico-eche	Peruri
Peruri	Peruri	Peruri
Atxene	Achene	Peruri
Pikeranda	Piqueranda	Peruri
Madariarte	Madari-arte	Peruri
Etxatxubeko	Echachu-beco	Peruri
Etxatxu	Echachu	Peruri
Etxebarri	Echevarri	Peruri

Idazkera egokia Grafía correcta	Agirian jasotako idazkeran Forma que aparece en el documento	Auzoa Barrio
Telleruena	Tellerune	Peruri
Zuhatzuaurrekoa	Sutzu-aurrecoa	Peruri
Zuhatzuerdikoa	Sutzu-erdicoa	Peruri
Zuhatzuosteikoa	Sutzu-osteicoa	Peruri
Zuhatzubarri	Sutzu-barri	Peruri
Txakalindegia	Chacoli	Peruri
Basoisi	Baso-isi	Peruri
Biteri	Viteri	Telleria
Alzagatorrea	Torre-Alzaga	Telleria
Negurigane	Neguri-gane	Negurigane
Zarragata	Zarragatas	Negurigane
Txopoeta	Chopera	Lamiako
Andikera	Andiquera	Lamiako
Las Higueras	Las Higueras	Lamiako
Bar Leonor	Bar Leonor	Lamiako
Etzaniz	Echaniz	Lamiako
Beitia	Beitia	Lamiako
Aresi	Aresi	Lamiako
La Andaluza	La Andaluza	Lamiako
Casa Grande	Casa Grande	Lamiako
Txarpas	Charpas	Lamiako



4.2 Leioako etxalderik garrantzitsuenak

Principales caseríos de Leioa

Esan bezala, Leioan XVIII. mendearen amaieran *-ena-* atzizkia duten izenak hasi ziren erabiltzen eta sarritan antzinako izenak ordezkatzeko ere. Tamalez, aldaketa hau oso bizkorra izan zen eta sarritan dokumentazioan ez dago izen berri eta zaharra lotzerik. Jakin badakigu, esaterako, *Antonio Sarria* bizi zela *Ubeda* izeneko baserrian, eta horren ondorioz, *Sarriena* bihurtu zela.

Tal y como hemos dicho anteriormente, a finales del siglo XVIII en Leioa empezaron a utilizar nombres con el sufijo *-ena* y a sustituir los anteriores. Por desgracia, ese cambio fue muy rápido y muchas veces no es posible relacionar los nombres nuevos y los originales. Sabemos, por ejemplo, que *Antonio Sarria* vivía en el caserío *Ubeda* y que por eso cambió el nombre por *Sarriena* 'la casa de Sarria'.

Abadena (Ikus/Véase *Iturriena*).

Abaroena (-a) (desagertua / desaparecido)

Beste izen batzuk | Otros nombres: Abaroa

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Etxalde hau 1704 eta 1745eko sute-gietan baino ez da dokumentatzen, eta azken horretan erorita zegoela adierazten da; beraz, aspaldi desagertu zen. Dokumentazioaren arabera Udondo auzoan zegoen.

Abaroa deitura Amoroto, Loiu (Lauro), Nabarniz, Sopela eta Sukarrietakoa da. *Abaroa* zuhaizpeko babesgunea da eta ganaduak eguzkitik babesteko erabiltzen den gunea esan nahi du. Etxe-izen honetatik 1745ean Udondo auzoan dokumentatutako *Abranabekoa* eta *Abrangoikoa* sortu ziren, baina azken horiek transkripzio okerrak dira.

Este caserío tan solo se documenta en las fogueraciones de 1704 y 1745, y en esa última se dice que estaba caído; por lo tanto, desapareció. Según la documentación el caserío estaba en Udondo.

El apellido *Abaroa* es de Amoroto, Loiu (Lauro), Nabarniz, Sopela y Sukarrieta. *Abaroa* en euskera es un lugar protegido bajo un árbol, una sombra o refugio. En 1745, en el barrio Udondo, aparecen los nombres *Abranabekoa* y *Abrangoikoa* derivados de aquel, pero estos últimos son errores de transcripción.



Abarotxu, 2011

Abarotxu

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxaldea, **Junkera** eta **Mantziena** etxe-taldean ar-tean dago. 1825eko Polizia Erroldan bi etxebizitza ageri dira izen berearekin, baliteke eraikin bi izatea eta bata etxebizitza nagusia izatea.

Zuhaizpeko babesgunea adierazten duen *abaro* eta *-txu* atzizki txiki-garriaz eratorritako leku-izena da eta abereak eguzkitik gerizatzeko erabiltzen da.

Este caserío del barrio Santi Mami se encuentra en los grupos de casas **Junkera** y **Mantziena**. En el Censo Policial de 1825 aparecen dos casas con el mismo nombre, es posible que una de las dos fuera la principal.

El nombre deriva de *abaro* 'cobijo bajo un árbol que se usa para proteger los animales del sol', y del sufijo diminutivo *-txu*.

Abranabekoa (-a) eta ***Abranagoikoa (-a)*** (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

1745eko fogerazioen arabera **Abranabekoa** eta **Abranagoikoa** etxaldeak Udondo auzoan zeuden.

Izenaren hasieran dagoen *-br-* batuketa horrek ez dio euskeraren ohiko joera fonetikoari erantzuten, izan ere, halako elkarketak apurtzeko joera dauka euskarak; hori dela eta, forma hau akatsa izan daitekeela pentsarazten digu, baliteke *Abaroena* etxearekin loturik egotea. *Abranagoikoa* urte horretan erorita zegoen eta 1796an ageri den *Txuriena* etxea *Abranabekoa* izan daiteke.

Según las fogueraciones de 1745, los caseríos **Abranabekoa** y **Abranagoikoa** estaban en el barrio Udondo.

La suma de consonantes *-br-* no responde a la tendencia fonética habitual del euskera, que tiende a romperlas; por esa razón, podemos pensar que es un error y que está relacionado con el caserío *Abaroena*. Aquel año el caserío *Abranagoikoa* ya había desaparecido y el caserío *Txuriena* que aparece en 1796 podría ser *Abranabekoa*.

Agilloena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Akillone*

Beste izenak | Otros nombres: Agilloenazarra (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Etxaldea Udondo auzoan zegoen, **Udua** etxaldearen ondoan. XIX. mende amaieran dokumentatzen den **Agilloenabarri** etxaldearen analogiaz **Agilloenazarra** ere deitu izan zioten.

Leku-izen hau *Agillo* (euskaraz Agillu) Trebiñuko herria eta deitura, eta *-ena* atzizkiaz osatzen da. Atzizki hau *noren* genitibo kasutik sortu zen eta *Agillo* deituradun edo jatorriko pertsona baten etxea esan nahi du. Dokumentazioan *Agilena*, *Agiluena* zein *Agiloena* formak agertzen dira, baina pentsatzekoa da **Agilloena** jatorrizko forma izatea eta dip-tongatutako hiatoa monoptongatu *-oe->-o-* edota itxi *-o->-u-* egin dela aurreko silabaren bokalaren eraginez.

Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Akillone* esaten diote.



Agilloena

Este caserío estaba en Udondo, al lado del caserío **Udua**. Por analogía con el caserío **Agilloenabarri** documentado en el siglo XIX, también era conocido con el nombre **Agilloenazarra**.

Este nombre está compuesto por *Agillo* (Agillu en euskera), un pueblo de Treviño y apellido, y el sufijo *-ena*. Y significa casa de una persona de *Agillo* o con ese apellido. En la documentación aparecen las formas *Agilena*, *Agiluena* o *Agiloena*. Pero lo más lógico sería pensar que la forma original es **Agilloena** monoptongando el hiato diptongado *-œ->-o* o cerrando *-o->-u* como consecuencia de la sílaba anterior.

Oralmente, tal y como es común en esta zona, la *-a* final se cierra y le llaman *Akillone*.

Agilloenabbarri (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Desagertutako etxalde hau Udondo auzoan zegoen, **Udua** etxaldearen ondoan, eta XIX. mende amaieran dokumentatzen da lehenengoz *Aguiluena-barri* idatzita. Etxaldearen izenari *barri* adjektiboa gehitu zaio inguruan zegoen **Agilloena** etxaldetik bereizteko.

Ikus *Agilloena*.

Este caserío estaba en el barrio Udondo, al lado del caserío **Udua**. Se documenta por primera vez a finales del siglo XIX como *Aguiluena-barri*. Al nombre del caserío se le añadió el adjetivo *barri* 'nuevo' para diferenciarlo del caserío **Agilloena** que estaba en los alrededores.

Véase *Agilloena*.

Agoetxena (-a) (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

1796ko fogerazioetan baino ageri ez den etxalde hau Santsoena inguruan egongo zen ziurrenik.

Este caserío tan sólo se documenta en las fogueraciones de 1796 y seguramente estaría en los alrededores de Santsoena.

Aioena (-a) (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Lamiako

Lamiako kaleguneko eraikin bati esaten zitzaion. *Aio* abizena eta *-ena* genitibo edutezko atzizkiarekin eratorritako izena da. *Aio* abizenak Erandion dauka jatorria eta inguru honetan oso zabaldua dago, etxaldea jabearen abizena izango da ziurrenik.

Era un edificio del núcleo de Lamiako. El nombre está compuesto con el apellido *Aio* y el sufijo de posesión *-ena*. El apellido *Aio* proviene de Erandio y está muy extendido en la zona, seguramente sería el apellido del propietario.



Aketxetxebarri, 2011

Aketxetxebarria (-a)

Ahoz | Oral: *Etxebarri*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Aketxe auzoan dagoen etxalde hau gaur egun **Etxebarria** izenaz ezagutzen dute ingurukoek. 1745etik dokumentatzen da eta **Aketxetxebarria** forma **Etxebarria** izena duten beste etxaldeetatik bereizteko erabiltzen da.

Ikus *Etxebarria*.

Este caserío del barrio Aketxe hoy en día se conoce como **Etxebarria**. La forma **Aketxetxebarria** se documenta desde 1745 y se utiliza para diferenciarlo del resto de caseríos que comparten el nombre **Etxebarria**.

Véase *Etxebarria*.

*Alangoetxea, 1999*

Alangoetxea (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxaldea, **Indurrena** eta **Iturriena** (Altzaga Ikastola) ondoan ditu. Etxalde zaharra da eta 1704ko lehenengo fogerazioetan jadanik dokumentatzen zen *Hóndiz de alango* izenarekin.

Alango Getxoko auzo eta etxalde baten izena da. Pentsa liteke etxaldearen jabea Getxoko auzo horretakoa izango zela, ezizen gisa erabili eta etxeak izena hartu zuela. M. Gorrotxategik eta Sofia Susok *Getxoko leku-izenak* liburuan jaso bezala, izen honen inguruan teoria bat baino gehiago dago. Julio Caro Barojak *Kuartango* izena aztertzean *Quartanicus* izenetik datorrela esan eta *-ango* amaiera dituzten beste izen batzuk aipatzen ditu, euren artean *Berango* eta *Durango*; bere ustez, *Veranius* eta *Duranius* pertsona izenetatik heldu baitziren. *Alango* izenak ere antzeko jatorria izango duela dirudi, eta *Alanius* moduko izena dagokeela pentsatu.



Alangoetxea, 2011

Este caserío de Ondiz se encuentra junto a **Indurrena** y **Iturriena (Altzaga Ikastola)**. Es antiguo, ya que se documentaba en las primeras fogueraciones de 1704 con el nombre *Hóndiz de alango*.

Alango es el nombre de un barrio y caserío de Getxo. Se puede pensar que el propietario era de ese barrio de Getxo, que lo utilizó como sobrenombre y que, finalmente, esta casa tomó ese nombre. Tal y como recogen M. Gorrotxategi y Sofia Suso en el libro *Getxoko leku-izenak*, existe más de una teoría en lo que se refiere a ese nombre. Julio Caro Baroja, al estudiar el nombre *Kuartango*, dice que procede de *Quartanicus* y menciona otros nombres con la terminación *-ango* como *Berango* y *Durango*, que en su opinión derivaron de los nombres de persona *Veranius* y *Duranius*. Al parecer, el nombre *Alango* tendría una procedencia parecida y se podría pensar que viene de un nombre como *Alanus*.



Aldasgora, lehen eta orain

Aldasgora

Ahoz | Oral: *Aldasgoi*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Arara baserrien inguruan dagoen etxe hau Santi Mami auzotik Santsoena auzora doan errepidearen parean dago. Eraikin berria da eta *aldats* eta *gora* hitzen elkarketaren bidez eratutako izena da. Goranzko inklinazioa esan nahi du.

Esta casa cercana a los caseríos Arara, se encuentra en la carretera que va desde el barrio Santi Mami a Santsoena. Es un edificio nuevo y su nombre está formado de *aldats* 'pendiente' y *gora* 'arriba'. Significa 'pendiente hacia arriba'.



Aldekoena

Aldekoena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Aldekone*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aldekoena)

Auzoari izena ematen dion XIX. mende amaierako etxaldea.

Orain gutxira arte *Aldekoane* forma erabili izan da modu ofizialean, baina forma hau ez da zeharo zuzena. Izan ere, Sopelako Aldekoa abizenaren amaierako *-a* artikulua da eta eratorpenean galtzea da joera arrunta. Beraz, *Aldekoa* abizenari *-ena* genitibo edutezkoa gehitzean artikulua galdu eta **Aldekoena** forma geratzen da. Ahoz *Aldekone* ere esaten zaio inguru honetan.

Caserío del siglo XIX que da nombre al barrio.

Hasta hace poco, la forma oficial ha sido *Aldekoane*, pero esta forma no es del todo correcta. La *-a* final del apellido *Aldekoa*, de Sopelana, es el artículo y la tendencia es perderlo en la derivación. Por lo tanto, al añadir el sufijo genitivo posesivo *-ena* al apellido *Aldekoa* perdería el artículo y quedaría **Aldekoena**.

Aldekoenaetxebarri

Auzoa I Barrio: Elexalde (Aldekoena)

XIX. mende amaierako baserria. **Aldekoena** etxaldearen bikote berria izateagatik, **Aldekoenaetxebarri** izena eman zitzaion. **Etxebarri** izenarekin ere ezaguna da.

Ikus *Aldekoena* eta *Etxebarria*.

Caserío de finales del siglo XIX. Al ser pareja de **Aldekoena**, tomó el nombre **Aldekoenaetxebarri**. También es conocido con el nombre **Etxebarri**.

Véase *Aldekoena* y *Etxebarria*.

Aldekoenatxikerra (-a) (desagertua / desaparecido)

Auzoa I Barrio: Elexalde (Aldekoena)

Sarriena auzoko etxalde honek Aldekoena izeneko auzunea osatzen zuen **Aldekoena** eta **Aldekoenaetxebarri** etxeekin batera.

Aldekoena eta *txikerra* tamaina adierazten duen adjektiboaren arteko elkarketaz sortutako izena da. *Txikerra* adjektiboak 'txikia' esan nahi du, eta azpieuskalki eta inguru honetan oso erabilia da; dena dela, *txiki* forma zaharragoa da eta *txiker* izen batean agertzeak toponimoa ez dela oso zaharra adierazten digu.

Ikus *Aldekoena*.

Este caserío del barrio Sarriena formaba el grupo Aldekoena junto con los caseríos **Aldekoena** y **Aldekoenaetxebarri**.

El nombre está compuesto por *Aldekoena* y el adjetivo *txikerra*. El adjetivo *txikerra* significa *txikia* 'pequeño', es muy utilizado en la zona y en su subdialeto, pero la forma *txikia* es más antigua, por lo que podemos deducir que el topónimo no es muy antiguo.

Véase *Aldekoena*.



Arostegi edo Alkatena

Alkatena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Alkatene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatea dagoen inguruan zegoen. Etxaldea 1745eko fogeraioetan ageri da lehenengoz *Alcateena* formarekin, baina XX. mendearen erdialdean desagertu egin zen, unibertsitatea eraikitzeko obrekin batera. Hala ere, eta XVIII. mendeko dokumentazioaren azterketatik badakigu hau dela 1704an **Bidaurratzaga** izenaz ageri zen etxeetako bat, bestea **Lukitxuena** bide zen. Hori bai, ezin da jakin hau *ostekoa* ala *erdikoa* ote zen. *Alkate* eta *-ena* genitibo edutezkoaren atzizkiak eratorritako etxalde-izena, alegia, *alkatearen etxea*, edo, seguru asko ironiaz, *alkate* ezizen zuen baten etxea.

Alkate hitzak udal bateko burua, udal batzarraren lehendakaria esan nahi du. Garai batean Euskal Herriko alkateak epaile ere baziren neurri batean eta arabierazko *al-kadi* hitzak ere ‘epaile’ esan nahi du. Garai

hartako alkateek botere legegile eta betearazleaz gain, epaitza ere bere esku zuten. Alkate arrunten agintaritzaz hiri, elizate eta hiribilduetara mugatzen zen. Gortean bizi ziren alkate nagusiek, aldiz, bailara edo eskualde baten ardura administratibo eta judiciala zuten. Gaur egun, udal-barrutiko administrazio-aginte hutsa du alkateak Hego Euskal Herrian eta pareko den auzapezak Ipar Euskal Herrian.

El caserío se encuentra en la zona donde hoy está la Universidad del País Vasco. Aparece por primera vez en las fogueraciones de 1745 con el nombre de *Alcateena*, y desapareció a mediados del siglo XX, al comenzar las obras de la universidad. Analizando la documentación, sabemos que era una de las casas que en 1704 aparecía con el nombre **Bidaurratzaga**, y la otra debía de ser **Lukitxuena**. Pero no es posible saber si era la que aparecía con la forma *ostekoa* o *erdikoa*. El nombre deriva del nombre *alkate* y el sufijo genitivo posesivo *-ena*, es decir, *la casa del alcalde* o, con ironía, *la casa de alguien cuyo sobrenombre era alkate*.

El alcalde es la cabeza del municipio, el presidente de la junta municipal. En un tiempo los alcaldes de Euskal Herria también eran jueces y, en cierto modo, la palabra árabe *al-kadi* también significa ‘juez’. Los alcaldes de aquella época además de tener el poder legislativo y ejecutivo también podían dar los fallos. Los alcaldes que vivían en las cortes, en cambio, tenían la responsabilidad judicial y administrativa de un valle o una región. Hoy día el alcalde sólo tiene mando administrativo.

Altamira (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde

XIX. mende amaieran desagertutako etxalde hau Elexalde auzoan zegoen. Gaur egun izen bereko beste bat dago Sarriena auzoan. Ondean Altamirako eskola dago, hain zuzen ere Donibaneko lan-heziketa zentroa. Zaharrena 1745 eta 1799 bitartean eraiki zen, azken urte horretan berria zela zehazten baita. Toponimo zaharra bada ere, Leioa erabat euskalduna zen garaikoa, alegia, erdarazkoa da. Euskal Herrian garai batean ohikoa izan zen horrelako izenak erabiltzea, “dotoreagoak” zirelakoan.

Este caserío que desapareció a finales del siglo XIX estaba en el barrio Elexalde. Hoy en día hay otro con el mismo nombre en Sarriena. Al lado se encuentra la escuela Altamira, el centro ocupacional Donibane. El caserío más antiguo se construyó entre 1745 y 1799 y, en ese último año se detalla que era nuevo. Aunque es un topónimo antiguo, de la época en la que Leioa era completamente vascohablante, es un topónimo castellano. En aquel tiempo era bastante común que en Euskal Herria hubiera nombres de ese estilo, que se consideraban más “elegantes”.



Altamira



Altza, 2011

Altza

Ahoz | Oral: *Altza*

Auzoa | Barrio: Artatza (Basaez)

Jauregi zaharra. Lehen aipuak, antza, 1416koak dira, butroetarren ondasun zerrenda batean ageri da. Peruri auzoko etxe hau Leioako eraikuntzarik zaharrenetakoa da. XIV. mendean leinuen gudetan butroetarek bi dorretxe eraiki zituzten Artatzen, izan ere, Gaztelueta auzoa oso leku estrategikoa zen.

Gaur egun, dorretxe bakarrak Altza eta Ondiz ditugu. Nahiz eta azken hau dorretxea baino dorretxe itxuraz eraikitako etxea izan. Dirudienez, jatorrizko eraikina XV. mendekoa da, nahiz eta geroago hainbat zaharberritze izan dituen. Horietako bat XVIII. mendean egindakoa da, hain zuzen ere, egungo itxura eman ziona. Etxe honen inguruan errota eta burdinola ere eraiki ziren.

Altzaga dorretxearen inguruan ibai bat dago eta ibai ertzetan ohikoa da haltzak (*Alnus glutinosa*) aurkitzea. Beraz, hortik letorke etxaldearen izena, *altza* eta *-aga* ugaritasun atzizkitik. Pentsatzekoa da *-aga* atzizkia, ugaritasuna eta lekua adierazten duena, XVIII. mendean hartu zuela, 1704ko fograzioetan *Alza* dokumentatzen baita.

Antiguo palacio. Al parecer, las primeras menciones son de 1416. Cuando aparece en la lista de los bienes de los Butrón. Esta casa de Peruri es uno de los edificios más antiguos de Leioa. En las guerras entre los linajes del siglo XIV, los Butrón construyeron dos casas-torre en Artatza, más concretamente en el barrio Gaztelueta, puesto que era un sitio estratégico.

Hoy en día las únicas casas-torre que permanecen son la de Altzaga y la de Ondiz. Aunque esta última es más bien una casa con forma de torre. Al parecer el edificio original es del siglo XV, aunque luego haya tenido varias remodelaciones. Una de ellas, la llevada a cabo en el siglo XVIII, fue la que le dio la forma actual. Alrededor de esta casa se construyeron un molino y una ferrería.

Cerca de la casa-torre Altzaga hay un río donde es habitual encontrar alisos (*Alnus glutinosa*) *haltza* en euskera. Por lo tanto, el nombre le viene de *altza* y del sufijo de abundancia *-aga*. Se piensa que el sufijo lo tomó en el siglo XVIII, ya que en las fogueraciones de 1704 se documenta con el nombre *Alza*.

Altzagako errota (desagertua / desaparecido)

Ahoz **I** Oral: *Errotasarre*

Beste izenak **I** Otros nombres: Errotazarra (-a)

Auzoa **I** Barrio: Artatza (Peruri)

Peruri auzoan zegoen **Altzaga** dorretxearen errota, Giltzeko errekaen ertzean. Errota honi *Errotazarra* esaten zizaion eta bertan bizi zirenak Getxoko Larrañazubi ondoko baserri batera joatean izena ere eraman zuten eta *Errotasarre* izenaz ezagutzen da bertako baserri hura.

Ikus *Altzaga*.

El molino de la casa torre de **Altzaga** estaba en el barrio Peruri, a orillas del arroyo Giltza. Este molino también era conocido como *Errotazarra*. Los habitantes de él se fueron a un caserío de Getxo cercano a Larrañazubi y se llevaron el nombre, el caserío de Getxo también es llamado *Errotasarre*.

Véase *Altzaga*.

Andikera (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Lamiako

Lamiako auzoan zegoen etxalde hau XIX. mende erdialdetik XX. mende erdialdera arte baino ez da dokumentatzen.

Este caserío que estaba en el barrio de Lamiako tan sólo se documenta desde mediados del siglo XIX hasta mediados del siglo XX.

Andikoetxe

Auzoa | Barrio: Artatza (Peruri)

*Andikoetxe*

Peruri auzoko etxalde hau XVIII. mende amaieran dokumentatzen da lehenengoz. Izenaren osagaiak *handi*, *haraindi*-tik, *-ko* leku genitiboa eta *etxe* izena dira, eta 'beste aldeko etxea' adierazten du. Ahozko formak artikulua XIX. mende erdialderako galdu zuen; beraz, artikulua gabeko forma idatziz erabiltzea zilegi dela dirudi.

Este caserío del barrio Peruri se documenta por primera vez a finales del siglo XVIII. Los componentes del nombre son *handi*, de *haraindi*, el sufijo genitivo de lugar *-ko* y el sustantivo *etxe*, significa *la* 'casa del otro lado'. La forma oral perdió el artículo a mediados del siglo XIX, por tanto es lícito utilizar la forma sin artículo.

Anporrena (-a) (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Amporrene*

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatzagana auzoan dagoen parkeari izena ematen dion etxea. Gaur egun desagertua dagoen etxalde hau XIX. mende erdialdean dokumentatzen da lehenengoz. *Anpor* (moztutako enborra edo gereiza zuria) eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Amporrene* esaten diote.

Casa que da nombre al parque que está en el barrio Artatzagana. Este caserío, ya desaparecido, se documenta por primera vez a mediados del siglo XIX. El nombre deriva de *anpor* (tronco o cereza blanca) y el sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es habitual en esta zona, la *-a* final se cierra y se pronuncia *Amporrene*.

Antoniena (-a) (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Antonine*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Etxalde hau gaur egun Kultur Leioa dagoen lekuan zegoen, Errekalde eta Jose Ramon Aketxe plaza inguruan. Dirudienez, etxe hartan 1937ko maiatzean, Gerra Zibilean faxistek bertan botatako bonba batek hiru emakume hil zituen.

Baserría lehenengoz 1796ko fogeraioetan dokumentatzen da, beraz pentsatzekoa da XVIII. mende erdialdeko etxea zela.

Antoni andra izena eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Antonine* esaten diote.

Este caserío estaba en el lugar donde hoy está Kultur Leioa, cerca de la plaza Jose Ramon Aketxe y Errekalde. Por lo visto, en mayo de 1937 una bomba de los fascistas mató a tres mujeres en aquella casa.

El caserío se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1796, por lo tanto, se podría pensar que sea de mediados del siglo XVIII.

El nombre de la casa deriva del nombre de mujer *Antoni* y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es habitual en esa zona, la *-a* final se cierra y le llaman *Antonine*.

Aramaoiena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Aramayone*

Auzoa | Barrio: Artatza (Basaez)

Artatza bertako desagertutako etxaldea da, XIX. mende hasierako etxalde honen izena *Aramaio* leku-izena, jabearen abizena edo jatorria ziurrenik, eta *-ena* atzizkiaz dago osatuta. Alegia Aramaio deitutako baten etxea zela.

Gaur egun parke bat dago izen bera duena.

Este caserío desaparecido del siglo XIX se compone del nombre de lugar *Aramaio*, seguramente apellido o procedencia del propietario, y del sufijo *-ena*. Seguramente el propietario del caserío era llamado así.

Hoy en día hay un parque con el mismo nombre.

Arara

Ahoz | Oral: *Arara*

Beste izenak | Otros nombres: Ararabekoa (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Gaur egun Leioako etxalderik zaharrenetakoa izango da. **Arara** edo **Ararabekoa** izenaz dokumentatzen da; izan ere, **Araragoikoa** izeneko etxaldea ere badago, eta horri kontrajarriz **Arara** izeneko honi **Ararabekoa** ere esan izan zaio. Jatorrian, 1704ko sutegien arabera, **Arara**, **Ararabekoa** eta **Araraerdikoa** ziren **Arara** etxalde-multzoko etxeak. Horretaz gain, *Araratxu* ageri da Landabaso auzoan. Baina 1745eko sutegietan, *Arara goicoa* eta *Arara becoa* baino ez dira jaso eta bigarrena erorita zegoela gaineratzen da. **Araragoikoa** baino ez zen geratu eta **Arara** izena hartu zuen. Geroago **Goikoetxea** etxe berria eraiki bide zen.



*Araragoikoa*

Etimoa oso argia ez bada ere, ez du aldaketa askorik izan. Sarritan *Arana* forma agertu da txarto transkribaturik. Ahozko erabileran inoiz Bizkaiko mendebaldeko inguru honetako ezaugarri den -s erdal morfema pluralgileaz lagundurik agertu da.

Hoy en día debe de ser uno de los caseríos más antiguos de Leioa. Se documenta con los nombres **Arara** o **Ararabekoa**, ya que también existe el caserío **Araragoikoa**, y en contraposición se ha llamado **Ararabekoa**. Originalmente, según las fogueraciones de 1704, **Arara**, **Ararabekoa** y **Ara-raerdikoa** era el grupo de caseríos **Arara**. Además de los citados también aparece Araratxu en el barrio Landabaso. Pero en las fogueraciones de 1745 solo aparecen *Arara goicoa* y *Arara becoa*. Además se menciona que la segunda estaba derruida. Por lo tanto, sólo quedaba Araragoikoa y tomó el nombre **Arara**. Según parece, más adelante se construyó la casa **Goikoetxea**.

El étimo, a pesar de no ser muy claro, no ha sufrido muchos cambios. A menudo ha aparecido erróneamente transcrito como *Arana*. Oralmente suele aparecer acompañado del morfema plural castellano -s.



Araragoikoetxea, 2011

Araratxu (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Etxalde hau behin baino ez da ageri, 1704an Landabaso auzoan.

Este caserío tan sólo se documenta una vez en 1704, en el barrio Landabaso.

Arbiaska (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Artatza

Etxe hau Artatza auzoan zegoen, Pinosolo parkearen eta Artatza parkearen artean. Auzokoek diotenez, Gerra Zibilaren garaian inguru hartan bolborategi bat zegoen; beraz, leku estrategikoa zen eta bertan botatzen zituzten bonbetako batek jo egin zuen.

Arbia baratze landarearen eta abereek edateko erabiltzen duten *aska* izenaren konposaketaz sortutako izen elkartua da.

Este caserío estaba en el barrio Artatza, entre los parques Pinosolo y Artatza. Los vecinos de la zona cuentan que en la época de la Guerra Civil había un polvorín en aquel barrio; por lo tanto, era un sitio estratégico y fue alcanzado por una bomba.

El nombre se compone de *arbia* (nabo) y *aska* (abrevadero).

Aretxabaleta

Ahoz | Oral: *Atzabalta(s)*

Beste izenak | Otros nombres: Aretxabaletanagusia (-a), Aretxabaletazarra (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Bitxia da Santi Mami auzoko etxalde hau 1704ko fogeraioetan dokumentatu ez izana. Urte hartako fogeraioetan *Arechavaleta de atrás* (Aretxabaletaosteikoa), *de delante* (Aretxabaletaurrekoa) y *de medio* (Aretxabaletaerdikoa) baino ez dira dokumentatzen. Halere, 1745erako hiru etxe horietatik ez da bat bera ere dokumentatzen; beraz, pentsatzekoa da horietatik bi desagertu izana eta zutunik geratu zen bakarra izatea hau.

1526az geroztik, Leioa Erandiotik bereizi zenetik, Gernikako Batzar Nagusietan 36. lekua izan zuen, eta garai hartan Diego de Aretxabaleta izeneko erregidoreak bete zuen lekua. Argi dagoenez, Aretxabaleta izeneko etxaldeari zor zion abizena erregidore honek, beraz, horixe dugu etxaldearen lehenengo testigantza.

Toponimoaren osagaiak *Aretx* 'haritz', *zabal* gehi *-eta* atzizki pluralgilea dira. Ahozko formak, *Atzabalta*, berriz, euskaraz ohikoa den bilakaera izan du, Gipuzkoako Debarroko herriari ere *Atxabalta* esaten baitzaio. Bokal arteko *-r-* desagertzean silaba bakarra sortu da *Atxabaleta* eta gero azentuaziorik gabeko *-le* silaba ere desagertu da.

Es bastante extraño que este caserío del barrio Santi Mami no se documente en las fogueraciones de 1704; en aquel año tan sólo aparecen *Arechavaleta de atrás* (Aretxabaletaosteikoa), *de delante* (Aretxabaletaurrekoa) y *del medio* (Aretxabaletaerdikoa). De todos modos, en 1745 no se documenta ninguno de esos tres; lo que nos hace pensar que desaparecieron dos de los tres caseríos y este sea el tercero.



Aretxabaleta, 2011

A partir de 1526, desde que Leioa se separó de Erandio, tuvo el lugar 36 en las Juntas Generales de Gernika, en aquella época el lugar lo ocupó el fiel regidor Diego de Aretxabaleta. Está claro que ese regidor le debía el apellido al caserío y, por lo tanto, ese es el primer testimonio del nombre del caserío.

El topónimo se compone de *Aretx* (*haritz*, 'roble' en euskera), *zabal* 'ancho, amplio' y el sufijo plural *-eta*. La forma oral, *Atzabalta* es la evolución habitual en euskera, también se llama *Atxabalta* al pueblo de Gipuzkoa. Al desaparecer la *-r* intervocálica se crea una única sílaba *Atxabaleta* y más tarde desaparece la sílaba sin acento *-le*.

Arostegi (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Etxalde hau Euskal Herriko Unibertsitatea dagoen lekuan zegoen, errepide parean, Erandioko mugan. 1704tik aurrera dokumentatzen da eta XX. mende erdialdean desagertu zen.

Arostegi hitzak ‘arotzen etxea’ esan nahi du. Mendebaldean zura lantzen duena bada ere, ekialdean burdina lantzen duenari esaten zaio, *Iurengo arotza* kantuan agerikoa den bezala.

Este caserío estaba en la zona de la Universidad del País Vasco, cerca de la carretera, en el límite con Erandio. Se documenta desde 1704, y desapareció en el siglo XX.

Arostegi, de *arotz* y *-tegi*, es la ‘casa del carpintero’ o ‘del herrero’ según los dialectos. En este caso hace referencia a los trabajos de la madera.

Arriena (-a)

Ahoz | Oral: *Arrine*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aldekoena)

Elexalde auzoko etxe hau XX. mende hasierakoa da ziurrenik. *Arri* (ezizena ziurrenik) eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Arrine* esaten diote.

Este caserío del barrio Elexalde es probablemente de principios del siglo XX. El nombre deriva de *harri* (seguramente sobrenombre) y del sufijo posesivo *-ena*. Es habitual en esa zona cerrar la *-a* final y pronunciar *Arrine*.



Artatza

Artatza

Ahoz | Oral: *Artatza*

Beste izenak | Otros nombres: Txabarri, Palazioa, Txabarriren jauregia

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza baserriaren lehengo aipua XVIII. mendekoa da, baina jatorrizko jauregia betiko desagertu zen XX. mendearen hasieran Trianoko markesak, Víctor Chávarrik, bere etxebizitza eraiki zuenean. Eraikuntza paregabe honen proiektua 1914. urtekoa da, Manuel María de Smith y Ibarra arkitektoari jauregia egiteko eskatu zionekoa. Jauregia 1918an inauguratu zen modu ofizialean. Gerra Zibilean kuartel moduan erabili izan zen eta ondoren Chávarri familiaren egoitza eta udako etxe izaten jarraitu zuen 1979ra arte. 1989tik Eusko Jaurlaritzarena da. Izenaren osagaiak argiak dira *arte* (*Quercus ilex*) eta *-tza* ugaritasun atziskia.

Izena beste etxe bitan dago bizirik: **Artatzabarri**, 1865. urtearen inguruan eraikia; eta **Artatzabekoa**, 1704an *Artatzabeaskoa* deitzen zena.

La primera cita es del siglo XVIII, pero el original desapareció cuando el marqués de Triano, Víctor Chávarri, construyó su palacio. El proyecto de este edificio es de 1914, cuando le pidió al arquitecto Manuel María de Smith que lo construyera. Durante la Guerra Civil fue utilizado como cuartel y después fue residencia y casa de verano de la familia Chávarri hasta 1979. Desde 1989 es bien del Gobierno Vasco. El significado es claro, *arte* 'encina' (*Quercus ilex*) y el sufijo abundancial *-tza*.

El nombre también está en otros dos caseríos: **Artatzabarri**, construido alrededor de 1865; y **Artatzabekoa**, llamado Artatzabeaskoa en 1704.

Artatzabarri eta *Larrauri*

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza auzoan dagoen baserri hau bertakoek **Larrauri** izenarekin ezagutzen dute, eta hala dio etxaurrean duen plaka batek. Gainera, plakan bertan, 1921ean eraikia izan zela dio. Hala ere, aztertutako dokumentuek pentsarazten dute inguru horretan bazegoela **Artatzabarri** izeneko beste baserri zaharrago bat, 1865etik *Artaza-nueva* bezalako aldaerak dokumentatzen baitira.

Bestalde, inguru horretan bertan bada baserri berriago bat jabeek **Artatzabarri** deitu dutena. Etxalde hau XX. mende erdialdekoa omen da eta bertako jabeak kontatzen duenaren arabera, 1921ean **Larrauri** eraiki zenean, inguru horretan hiru baserri baino ez zeuden: gaur egun oraindik zutik dirauen **Otsotena**, Gerra Zibilean bonbardatu zen **Arbiaska** eta Pinosoloko parkean zegoen beste baserri bat. Pinosoloko parkean zegoen baserri hura (bat baino gehiago izan zitekeen) dagoeneko desagertu da, baserri handia zen eta bost edo sei familia bizi ziren bertan. Garai haietan Aznar familiak Pinosoloko baserri eta lurak erosi zituen eta bertan bizi ziren familiak banatu behar izan zuten, familia haietako batek **Larrauri** eraiki omen zuen. Aznar familiak txabarritarren jauregia berdindu nahi zuen, baina lanak bertan behera geratu ziren eta gaur egun **Pinosolo** bezala ezagutzen den baserria berreraiki omen zuten euren aisirako.

Este caserío del barrio Artatza es conocido como **Larrauri** por los vecinos, y así dice una placa que tiene en la fachada. Además, en la placa recoge que fue construido en 1921. De todos modos, los documentos analizados hacen pensar que en esa zona hubo otro caserío más antiguo con el nombre de **Artatzabarri**, ya que desde 1865 se documentan variantes como *Artaza-nueva*.

Por otro lado, en esa zona hay una casa nueva a la que los propietarios han llamado **Artatzabarri**. Es de mediados del siglo XX y, por lo que cuentan sus propietarios, cuando en 1921 se construyó **Larrauri** en esa zona no había más que tres caseríos: **Otsotena** que aún sigue en pie, **Arbiaska** que fue bombardeado en la Guerra Civil y otro caserío que estaba en el parque de Pinosolo. El que supuestamente estaba en el parque de Pinosolo (podían ser más de uno) ha desaparecido, era un edificio grande en el que vivían cinco o seis familias. En aquella época la familia Aznar compró aquellas tierras y el caserío y las familias tuvieron que separarse. Al parecer una de aquellas familias fue la que construyó **Larrauri**. Los Aznar quisieron igualar el palacio de los Chávarri, pero no terminaron el trabajo y, según parece, construyeron el caserío que hoy se conoce como **Pinosolo** para su ocio.



Artatzabekoa (-a)* eta *Artatzagoikoa (-a)Ahoz | Oral: *Artatzabeko*

Beste izenak | Otros nombres: Artatzabeaskoa (-a), Pinosolo

Auzoa | Barrio: Artatza

XVII. mendeko etxalde zahar hauek Pinosoloko parkean zeuden, bigarrena desagerturik dago. 1704ko fogeraioetan *Artaza de abajo* izenarekin dokumentatzen da lehenengoa. Gaur egun, ingurukoek **Pinosolo** bezala ezagutzen dute, bertako parkearen izena, hain zuzen ere. Pinosoloko lur horiek, Alberto Aznar y Tutor, Zuiako markesak, erosi zituen 1902an. Familiaren aisialdirako erabiltzen zuten eta tenis-zelai bat ere izan zuen. Lurrak egokitu ostean familiarentzako etxe bat egiteko asmoa izan zuen eta 1918an hasi zituen lanak; baina bere heriotzaren ondoren, 1923an, lanak bertan behera geratu ziren.

Artatzagoikoa izenekoa azkenekoz 1922an dokumentatu zen, beraz gerra garaian edo desagertuko zela pentsatzen da. Gainera, 1704ko sutebietan beste bi dokumentatu ziren: **Artatzaerdikoa** eta **Artatzaosteikoa**, baina ez dago harrezkero euren berririk.

Zutik dirauen etxaldearen izen jatorra Artatzabeaskoa da, *Artaza beazcoa* 1745ean, eta gerora **Artatzabekoa** izena hartu zuen. Etxaldearen izena *Artatza* eta *bekoa* adjektiboaren elkartetik sortu da.

Estos caseríos del siglo XVII estaban en el parque de Pinosolo. El segundo está desaparecido y el primero se documenta con el nombre de *Artaza de abajo* en las fogueraciones de 1704. Hoy en día los vecinos de la zona lo conocen como **Pinosolo**, igual que el parque. Las tierras de Pinosolo las compró el marqués de Zuia, Alberto Aznar y Tutor, en 1902 para usarlas para su ocio y allí construyeron un campo de tenis. Cuando acondicionaron las tierras pensaron hacer una casa familiar y las obras empezaron en 1918, pero tras su muerte en 1923 pararon la obra.

El caserío conocido como **Artatzagoikoa** se documenta por última vez en 1922, por lo tanto, parece que pudo desaparecer en la época de la guerra. 1704 se documentan otros dos caseríos: **Artatzaerdikoa** y **Artatzaosteikoa**, pero esa es la única información que hay de ellos.

El nombre original del único caserío que permanece en pie es **Artatzabeaskoa**, *Artaza beazcoa* en 1745 y **Artatzabekoa** más adelante. El nombre es la composición de *Artatza* y el adjetivo *bekoa* que en euskera significa 'de abajo'.



Askartza, 1974

Askartza

Ahoz | Oral: *Askartza*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Sarriena)

Gaur egun leku-izen hau inguruan dagoen ikastetxeagatik da ezagunagoa, baina jatorrian etxe-multzo baten izena izan zen. Askartza etxea ezagunena izan bazen ere, dokumentazio zaharrean hiru ageri dira 1704an eta 1745ean, *Askartzabekoa*, *Askartzaerdikoa* eta *Askartzagoikoa*; baina, horietako bik izenez aldatu zirenez, zaharrena zen *Azkartzagoikoak* izen soila berreskuratu zuen. Beste biek *Kurtzabeko* eta *Kurtzagoiko* izenak hartu zituzten.

Esanahia argia da: *azkar* zuhaitz izena (*Acer campestris*, *askar* mendebaldean) eta *-tza* ugaritasun atzizkia. Zuhaizka hau ez da oso arrunta, baina bide bazterretan ikus daiteke gaur egun ere. Askartza-Claret ikastetxean horrelako zuhaitzak landatu zituzten antzinako baserriaren oroimenez.

*Askartzaburu*

Esta zona hoy en día es más conocida por un colegio, pero el nombre proviene de un conjunto de caseríos. Aunque el caserío Askartza era el más conocido, en la documentación de 1704 y 1745 aparecen tres: **Askartzabekoa**, **Askartzaerdikoa** y **Askartzagoikoa**. Pero al cambiar dos de nombre, **Askartzagoikoa** tomó el nombre simple **Askartza**. Los otros dos tomaron los nombres de **Kurtzabeko** y **Kurtzagoiko**.

El significado está claro, *azkar* 'arce', (*Acer campestris*, *askar* en dialectos occidentales) y el sufijo de abundancia *-tza*. Este árbol no es muy común, pero todavía puede verse a la vera de los caminos. En el patio del colegio Askartza-Claret plantaron varios ejemplares de esa especie de árboles en recuerdo del antiguo caserío.



Atxena

Atxena (-a)

Ahoz | Oral: *Atzene*

Auzoa | Barrio: Artatza (Peruri)

Peruri auzoko etxalde hau XVII. mendekoa da, 1704ko sutegietan *Peruri de Acha* bezala dokumentatzen zen.

Atxa eta *-ena* genitibo edutezkoaren atzizkiaz eratorritako etxalde-izena, alegia, ‘*Atxaren etxea*’. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Atzene* esaten diote.

Este caserío del barrio Peruri es del siglo XVII y en las fogueraciones de 1704 se documenta como *Peruri de Acha*.

El nombre deriva de *Atxa* más el genitivo de posesión *-ena*, es decir, ‘la casa de *Atxa*’. Como es común en la zona, la *-a* final se cierra y le llaman *Atzene*.



Atxutegiena, 2011

Atxutegiena (-a)

Ahoz | Oral: *Atxutene*

Beste izenak | Otros nombres: Atxutegi, Atxutena, Zabala

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxea, XIX. mende amaierakoa. Ana Lopezek *Leioa: Historian zehar* liburuan **Atxutegi** jauregia edo **Zabala** jauregia deitzen dio etxalde honi. Horren arrazoia bertan Zabala familia bizi zela da. Baina jatorrizko izena **Atxutegiena** da.

Toponimo hau *Atxutegi* abizena eta *-ena* genitibo edutezkoaren atzizkiaz eratorritakoa da, alegia, Atxutegi abizeneko baten etxea zen, hain zuzen ere, Canuto Atxutegirena. Ahoz, bokal arteko *-g-* galdu egiten da, eta inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Atxutene* esaten diote.

Atxutegi izeneko etxaldeak Mendata, Mungia, Plentzia, Ziortza eta Zamudion egon dira, besteak beste.



Leioa Zuhatzutik, 2011

Esta casa del barrio Ondiz es de finales del siglo XIX. Ana Lopez, en su libro *Leioa: Historian zehar* lo llama palacio **Atxutegi** o palacio **Zabala** porque allí vivía la familia Zabala; pero el nombre original es **Atxutegi**ena.

El nombre de la casa proviene del apellido *Atxutegi* más el sufijo genitivo posesivo *-ena*, es decir, la casa de alguien apellidado *Atxutegi*, más concretamente *Canuto Atxugegi*. Oralmente la *-g-* intervocálica se pierde y, tal y como es común en la zona, se cierra la *-a* final y pronuncia *Atxutene*.

Ha habido casas llamadas *Atxutegi* en Mendata, Mungia, Plentzia, Zior-tza y Zamudio, entre otros pueblos.

Ondiz auzoko etxaldee auzokoek egindako bertsoa:

Verso hecho por los vecinos de los caseríos de Ondiz:

<i>Aranban dunbulu dunbulu</i>	<i>Aurrocoecheko</i>
<i>Yeuriko</i>	<i>Sapa</i>
<i>Bekoki andi</i>	<i>Achuterreko</i>
<i>Sagastiko</i>	<i>Berde</i>
<i>Chanca Pierna</i>	<i>Indurreneko</i>
<i>Torreko</i>	<i>Serafin</i>
<i>Albanachico</i>	<i>Machimoneko</i>
<i>Alangoecheko</i>	<i>Pimpollo</i>
<i>Moska</i>	<i>Etxesuriko</i>
<i>Abadeneko</i>	<i>Ermiteko landa lturriko chorro</i>
<i>Dunbulu</i>	<i>Barrio Ondiz</i>
<i>lturcochoko</i>	<i>Ora-pro-nobis</i>
<i>Sabala</i>	



Aurrekoetxea, 2011

Aurrekoetxea (-a)

Ahoz | Oral: *Aurrekotze*

Beste izenak | Otros nombres: Ondizaurrekoetxea (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

XVII. mendeko etxalde hau Ondiz auzoan dago. Beste **Aurrekoetxe** batzuetatik bereizteko auzo izenarekin batera dokumentatu da batzuetan; adibidez, *Hóndiz aurrecoechea* edo *Hóndiz de delante* 1704ko sutebietan.

Ahoz, *Aurrekotze* forma erabiltzen dute, *-oe-* bokal elkarketa *-o-* bokalaz laburturik. Artikulua ere ez da ahozko forman erabiltzen, baina jatorrizkoa forma artikuluduna da eta hori nagusitzen da dokumentazioan.

Este caserío del siglo XVII está en el barrio Ondiz. Para distinguirlo de otros con el mismo nombre, algunas veces se ha documentado junto con el nombre del barrio; por ejemplo, *Hóndiz de aurrecoechea* u *Hóndiz de delante* en las fogueraciones de 1704.

Oralmente se utiliza la forma *Aurrekotze*, abreviando las vocales *-oe-* en *-o-*. El artículo tampoco se utiliza en la forma oral, pero la forma con artículo es la principal y la predominante en la documentación.

Azkorrena

Ahoz I Oral: *Askorrene*

Auzoa I Barrio: Elexalde (Sarriena)

1796an dokumentatutako etxe hau zaharragoa da, baina ezin izan dugu jatorrizko izena zein den jakin; litekeena da **Basaez** etxaldeen bat izatea. Izena orduan jabea zen Joseph Ascorrari zor zaio. *Azkorra* deitura Erandiokoa da eta Getxon ere bada *Azkorrena* izeneko etxe bat.

Esta casa que aparece en 1796 es más antigua, pero no hemos podido saber cuál es el nombre original, es posible que sea uno de los caseríos del grupo **Basaez**. El nombre se lo debería a *Joseph Ascorra*. El apellido *Azkorra* es originario de Erandio y en Getxo también hay una casa llamada *Azkorrena*.

Basaez (desagertua / desaparecido)

Ahoz I Oral: *Basais*, *Basañese*

Auzoa I Barrio: Artatza (Basaez)

Deasagertua dagoen baserri horrek Artatzako Basaiz auzoari izena ematen dio. **Basaiz** etxaldeak **Basaizbarri** (gaur egun bertakoek **Barrukoetxe** esaten diote, eta horman duen plakan ere izen hori ageri da) eta **Basaizerdikoa** etxaldeen batera auzoa osatzen zuen XX. mendean, baina lehenago bazen beste bat. XVIII. mendearen hasieran honako etxe hauek zeuden auzoan: Basaiz, Basaizosteinkoa eta Basaizerdikoa, baina mende amaieran Basaiznagusia eta Basaiztxikia ageri dira.

Etxe honetatik sortu zen *Basañez* deitura eta bilakaera oso berezia izan du. Ahoz bildu den *Basaiz* izenak euskarako ohiko bilakaera du. Baina erdarazko izenak, *Basañez*, eta XX. mendearen hastapenean erabiltzen zen bien arteko *Basañese* aldaerak ere ez dira hizkuntzen historiaren aldetik batere arruntak. Dokumentazioari begiratuta, argi dago izen egokia ñ gabekoa dela, hori baita dokumentatu dugun zaharrena; adibidez, *Bassayaz* (1635) edo *Basaia* (1704).



Basaiz

Basañez eta *Basaiz* izen bi izateko arrazoa argia da, Leioa herri ize-
nean bezala hemen ere bokalen arteko *-n-* galdu da eta zaharragoa,
baina aurkitu ez dugun **Basaniiz*-etik sortu ziren izen biak, *Basañez*
deitura eta *Basaiz* toponimoa. Baina euskal izena azaltzea erraza bada
ere (**Basaniiz* > *Basaiz*), erdarazkoa ez da hain argia *Basanez* behar
zuelako izan, eta azterketa zehatzagoa behar du. Amaierako *-i* alda-
tzea eta *-e* bihurtzea ohikoa da gaztelaniaz gure toponimoetan (*San-
turtzi* > *Santurce*, *Arkauti* > *Arcaute*...) zein beste hizkuntzetatik
hartutako hitzetan (*vini* > *vine*, *Georgi* > *Jorge*), baina tarteko *n* > *ñ*
aldaketarako euskararen eragina behar duela dirudi.

Gogoratu behar dugu Leioako biztanleak euskaldun elebakarrak zi-
rela ia XIX. mende arte, baina administrazioak erdara erabiltzen
zuela. Ondorioz, hizkuntzen arteko nahasmenak sortzen ziren. Gure
kasuan *basañeztarrak* eragin handikoak izan ziren inguruan. Honek
argitzen digu nola den posible erdal izenak euskal eragina izatea eta
euskaldunek *Basañese* moduko aldaera erabiltzea.



Basaez

Dokumentazioak argi erakusten du gertaera hori aspaldikoa izateaz gain, oso errotuta dagoela, euskal forma aspaldidanik dokumentatu baita, nahiz eta administrazioak horrelako izenak sistematikoki baztertu: *Bassayaz* (1635) edo *Basaia* (1704).

Euskararen historiako oso izen garratzitsutzat jo dezakegu, zail baita bokalen arteko *-n-rik* gabeko aldaerak dokumentatzea, eta gure kasuan ikusten da deiturak gorde arren, aspaldian galdu zela. Hau gutxi balitz, denborarekin bi aldaerak, erromantzekoa eta euskarazkoa uztartu egin direla eta forma hibrido osatu.

Basaez etxe-multzoa osatzen duten etxeei, halere, beste izenez egin izan zaie aipamena dokumentazio zaharrear: *Basaezaurrekoa*, *Basaezbarri* *Basaezatzekoa* edo *Basaizbekoa* ere esan izan zaio.

Este edificio ya desaparecido da nombre al barrio Basaiz de Artatza. El caserío **Basaiz** formaba un grupo de casas en el siglo XX, junto con **Basaizbarri** (hoy en día los propietarios lo llaman **Barrukoetxe**, y así reza la placa que tiene en la fachada) y **Basaizerdikoa**. Pero a principios del siglo XVIII se documentan los caseríos Basaiz, Basaizosteinkoa y Basaizerdikoa, y a finales del siglo Basaiznagusia y Basaiztxikia.

El apellido *Basañez* proviene de esta casa y ha tenido una evolución muy curiosa. El nombre *Basaiz* que se ha recogido oralmente tiene la evolución habitual en euskera. Pero la forma castellana *Basañez*, y la variante de

las dos de principios del siglo XX, *Basañese*, no son nada habituales en la historia de la evolución de los idiomas. Analizando la documentación, está claro que la forma correcta es la que no lleva *-ñ*, ya que es la más antigua; por ejemplo, *Bassayaz* (1635) o *Basaia* (1704).

La razón para que existan las formas *Basañez* y *Basaiz* es clara, al igual que en el caso del nombre Leioa se ha perdido la *-n* intervocálica y los dos (tanto el apellido *Basañez* como el topónimo *Basaiz*) provienen de la forma **Basanz* que no hemos podido documentar. El nombre en euskera es fácil de explicar (**Basanz* > *Basaiz*), pero no sucede lo mismo con el de castellano, puesto que debería de ser *Basanez* y es necesario una investigación más profunda. Es bastante común que la *-i* final se convierta en *-e* en nuestros topónimos en castellano (*Santurtzi* > *Santurce*, *Arkauti* > *Arcaute*...) o en palabras tomadas de otros idiomas (*vini* > *vine*, *Georgi* > *Jorge*) pero, al parecer, el cambio *n* > *ñ* necesita la influencia del euskera.

Tenemos que recordar que hasta el siglo XIX los habitantes de Leioa hablaban euskera, pero la administración solo utilizaba el castellano. Por esa razón había híbridos entre los dos idiomas. En este caso, la familia *Basañez* tenía una gran influencia en la zona y esto explicaría cómo es posible que un nombre castellano se use en euskera y se utilizaran formas como *Basañese*.

La documentación deja claro que además de ser un hecho antiguo, está arraigado, ya que la forma de euskera es anterior, aunque la administración los haya apartado sistemáticamente: *Bassayaz* (1635) o *Basaia* (1704).

Este nombre es muy importante en la historia del euskera, ya que es muy difícil documentar formas sin *-n* intervocálica y en nuestro caso se perdió hace tiempo aunque haya permanecido en el apellido. Además, con el tiempo las dos formas, la eusquérica y la romance, se han fusionado hasta formar una híbrida.



Bidaurratzaga

Ahoz **I** Oral: *Bidortza(s)*

Beste izenak **I** Otros nombres: Bidaurratzagaerdikoa, Bidaurratzagagoikoa, Bidaurratzagabeaskoa

Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Santsoena)

Bidaurratzaga izeneko etxeak desagertuta badaude ere, inguruan dauden muinoak gorde du izena, *Bidaurratzagaburu* (*Bi(d)ortzaburu*) hain zuzen ere. XVIII. mendearen hasieran lau etxe ageri dira izen honekin (**Bidaurratzagabeaskoa**, **Bidaurratzagagoikoa**, **Bidaurratzagaerdikoa** eta **Bidaurratzagaosteikoa**). Baina bik baino ez zuten izen osoa gorde: *Bidaurratzagabekoa* (lehen *Beaskoa* zena) eta *Goikoa* edo *Nagusia*. Besteek izena aldatu zuten eta ez dago zein izen berri hartu zuten jakiterik, baina XVIII. mendeko dokumenazioaren azterketatik badaugu **Lukitxuena** eta **Alkatena** zirela. Hori bai, ezin da jakin *ostekoa* eta *erdikoa* haietako zein ote zen.

Inortza (**Inaurritzaga**) leku-izenaz gertatzen den bezala, Bidaurratzaga leku-izenari *Bi(d)ortza(s)* esaten zaio ahoz.

A pesar de que los caseríos llamados *Bidaurratzaga* hayan desaparecido, la colina en la que se encontraban sigue manteniendo su nombre, *Bidaurratzagaburu* (*Bi(d)ortzaburu*). A principios del siglo XVIII aparecen cuatro casas con esta denominación (**Bidaurratzagabeaskoa**, **Bidaurratzagokoia**, **Bidaurratzagaerdikoa** y **Bidaurratzagaosteikoa**). Pero tan sólo dos mantuvieron el topónimo completo: *Bidaurratzagabekoa* (antes *Beaskoa*) y *goikoa* o *nagusia*. Las demás cambiaron de nombre y no es posible saber cuál fue el que tomaron, pero analizando la documentación del siglo XVIII, podemos saber que eran **Lukitxuena** y **Alkatena**, aunque no podemos concretar cuál es cuál.

Al igual que pasa con *Inortza* (**Inaurritzaga**), a Bidaurratzaga se le dice *Bi(d)ortza(s)* oralmente.

*Bidebarrigana****Bidegana (-a)***

Ahoz | Oral: *Bidegane*

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatzagana auzoan dagoen etxea. *Bide* eta *gana* hitzekin sortutako izen-elkartu honi ahoz *Bidegane* esaten zaio, inguru honetan ohikoa den amaierako *-a* itxi egiten da eta.

Casa que está en el barrio Artatzagana. El nombre está compuesto de las palabras *bide* 'camino' y *gan* 'encima'. Oralmente se le dice *Bidegane*, cerrando la *-a* final, como es habitual en el euskera de la zona.

BidegoienAhoz | Oral: *Bidegoen*

Beste izenak | Otros nombres: Iturraldebarri

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxe berria. Etxearen benetako izena **Bidegoien** da, hain zuzen ere bidearen goiko aldean dagoelako. Baina beherago dagoen Iturralde abizeneko familiaren etxearekin duen lotura dela-eta **Iturraldebarri** formaz ere dokumentatu izan da.

Casa nueva del barrio Santi Mami. El nombre original de la misma es **Bidegoien**, ya que está en la parte superior del camino. Pero por la relación que mantiene con la casa de la familia Iturralde que se encuentra más abajo. También se ha documentado como **Iturraldebarri**.

Bidekurtzio (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Bidekurtze*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Elexalden zegoen etxalde hau XVII. mendekoa da, 1704ko fogera-zioetan *Bidacurtzio* bezala agertzen baitzen. Gaur egun ondoko plaza batek etxaldearen izena hartu du.

1704ko lehenengo dokumentazio horretatik, hainbat izan dira etxaldearen izenaren aldaerak: *Bidecurzio* (1745), *Bidecurzeta* (1796), *Videcurce* (1887) edo *Cruces* (1915). Aipatu bezala, 1769an *-eta* atzizkiarekin agertzen da, baina behin baino ez da jasotzen eta *Cruces* erdal forma ere 1915ean baino ez. Dokumentazioan *bide-* eta *bida-* arteko txandaketa gertatzen da, txandaketa hori ohikoa da zenbait izenetan eta euskarara bizi den eremuetan egun erabiltzen dena hobesten da, **Bidekurtzio** kasu honetan. Izena *bide* (*bida-* hitz-elkarketan) eta *kurtzio* 'bidegurutzea' hitzez dago osatua. Denborarekin esanahia ilundu zenean herri etimologiak *Bidekurtze* bihurtu zuen, izena argitu nahian. *Kurtzio* hitza nahiko arrunta da mendebaldeko toponimian eta Mundakan, esaterako, Kurtzio izeneko gurutzea dugu, 1611n eraikia.

*Bidekurtzio*

Esta casa situada en Elexalde era del siglo XVII, ya que en las fogueraciones de 1704 se documenta como *Bidacurzio*. Hoy en día una plaza de la zona ha tomado su nombre.

Desde la primera documentación de 1704 el nombre de la casa ha cambiado varias veces: *Bidecurzio* (1745), *Bidecurzeta* (1796), *Videcurce* (1887) o *Cruces* (1915). El sufijo *-eta* tan sólo aparece una vez en 1796, al igual que la forma *Cruces* en 1915. En la documentación varía tanto la forma *bide-* como *bida-*; esta variación es común en los nombres, y en las zonas en las que aún se habla euskera se mantiene la forma que se utiliza en la actualidad, **Bidekurtzio** en este caso. El nombre se compone de *bide-* y *-kurtzio* y significa 'cruce de carreteras'. Con el tiempo el nombre fue deformándose y la etimología popular lo convirtió en *Bidekurtze*. La palabra *kurtzio* es bastante común en la toponimia del oeste, en Mundaka, por ejemplo, hay una cruz construida en 1611 llamada Kurtzio.

Bideondo

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatzagana auzoko etxe hau XX. mende hasierakoa da. *Bide* eta *ondo* hitzek osatzen dute izena eta ziurrenik bidearen ondoan dagoelako hartu zuen etxeak izen hori. Izena berria denez, ez du euskaraz izen zaharretan ohikoa den *bide-* > *bida-* aldaketa, Bidaurre edo Bidaurratzaga kasuetan bezala.

Esta casa del barrio Artatzagana es de principios del siglo XX. El nombre se compone de las palabras *bide* 'camino' y *ondo* 'zona contigua', seguramente porque está al lado del camino. Pero al ser un nombre nuevo, no ha sufrido el cambio habitual *bide-* > *bida-* como Bidaurre o Bidaurratzaga.

Bistalegre (Ikus/Véase *Kandelazubieta*).

Kandelazubieta





Elexalde

Bordeoena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz I Oral: *Bordeone*

Auzoa I Barrio: Elexalde (Aldekoena)

Bordeoena da izen osoa eta zuzena, nahiz eta gaur egun ahoz *Bordeone* esaten zaion, normala den legez, amaierako *-ena* > *-ne* bihurtuta.

XVIII. mende amaierako sutebietan dokumentatzen da lehenengoz etxe hau, **Bordeoenabarri** izeneko beste batekin batera (1796an *Bordeoena nueva*). Inoiz *Bordoena menor* ere ageri da hauetako bat izendatzeko, baina zaila da zeini egiten dion erreferentzia jakitea. Kokapena ikusita argi dago hau eta *Ollarrena* etxeak *Leioa* deritzon multzokoak direla eta 1745-1796 bitartean aldatu zutela izena.

Izenak osagai bi ditu, ezagutzen ez dugun *Bordeo*, jabearen ezizena, eta *-ena* genitibo edutezko atzizkia. Gaur egun parke baten izenari esker dirau bizirik. Zornotzan ere *Bordoena* etxea dago.

El nombre correcto completo es **Bordeoena**, aunque oralmente se denomina *Bordeone*, convirtiendo el sufijo final *-ena* > *-ne*, como es normal en la zona.

Se documenta por primera vez en las fogueraciones de finales del siglo XVIII con este nombre junto con otro llamado *Bordeoena nueva*. En alguna ocasión se ha documentado *Bordeoena menor*, pero es difícil saber si hace referencia a la nueva. Teniendo en cuenta su ubicación está claro que este caserío y *Ollarrena* pertenecen al grupo de caseríos *Leioa* y que cambiaron de nombre entre 1745 y 1796.

El nombre se compone de dos elementos, el que podría ser el sobrenombre del propietario, *Bordeo*, y del genitivo posesivo *-ena*. Hoy en día hay un parque con ese mismo nombre. En Zornotza también hay una casa llamada *Bordeoena*.



Buenavista, 2011

Buenavista

Ahoz | Oral: *Buenabista*

Auzoa | Barrio: Artatza (Zuhatzu)

Zuhatzu inguruko etxe hau XX. mendearen hastapenetan eraiki zen Zuhatzuosteikoa baserriaren lurretan. Izenak berak dioen bezala oso ikuspegi ederra duen inguruan eraiki zen. Garai hartan ohikoa izan zen erdarazko horrelako izenak erabiltzea, “prestigioa” ematen zutelakoan.



Esta casa de la zona de Zuhatzu se edificó en los terrenos de Zuhatzuosteikoa a principios del siglo XX. Como su nombre indica, está situada en un lugar de bellas vistas. En otra época fue común el uso de estos nombres castellanos en la creencia de que daban prestigio.

*Bustamantena****Bustamantena (-a)***

Ahoz | Oral: *Bustamantene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Santsoena auzoko etxalde zahar hau 1745eko fogeraioetan dokumentatzen da lehenengoz *Bustamante* abizen soilarekin, *-ena* jabetza atzizkirik gabe. Halere, orduko sutebietan jasotako datuen arabera, orduan ez zen Bustamante abizendunik bertan. Litekeena da etxe hau 1704an *Aratxabaletaosteikoa* deitutakoa izatea.

Bustamante Kantabriako abizen esanguratsuenetako bat da, eta jatorria forma bereko toponimo batean du, Campoo de Yuso izeneko udalerrian dagoena. Bertan dago Bustamante familiaren dorretxea, hain zuzen ere, La Costana izeneko lekuan, eta bertan daukate jatorria Bustamante abizeneko senide-adar guztiak.

Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Bustamantene* esaten diote.



Bustamantena eta Ganebarri

Este caserío del barrio Santsoena se documenta por primera vez como *Bustamante*, sin el sufijo posesivo *-ena* en la fogueración de 1745. De todas formas, según los datos recogidos en las fogueraciones de la época, en aquel entonces no había nadie con ese apellido. Es posible que esta casa en 1704 fuese la llamada *Aretxabaletaosteikoa*.

Bustamante es uno de los apellidos más significativos de Cantabria y tiene su origen en un topónimo del municipio de Campoo de Yuso. Allí se encuentra la casa torre de la familia, más concretamente en La Costana, y de ese lugar procede el apellido.

Oralmente, como es habitual, se cierra la *-a* final y le llaman *Bustamantene*.

Bustiñe (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Bustiñe*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoan zegoen etxe honen izena ahoz baino ez da jaso eta *Junkerabarri* inguruan omen zegoen. Agerikoaenez, *buztina* hitz arruntaren aldaera da.

El nombre de esta casa del barrio Santi Mami tan sólo se ha recogido oralmente y, al parecer, estaba cerca de *Junkerabarri*. Es una variante de *buztina* 'arcilla'.

*Bustiñe***Bustinondo** (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Bustinondo*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Gaur egun desagertua dagoen etxe hau Avanzada inguruan zegoen, Udondorako sarreran, Mendibil inguruan. Ahoz baino ez da jaso eta baliteke berria izatea eta Avanzadako lanak egiteko bota izana. Izenaren konposizioan *buztina* eta *ondo* hitzak bereizten dira. Datu gehigarririk gabe ezin da jakin *buztiña* hitz arrunta den edo ahoz *Bustiñe* moduan ezagututako baserria dugun izen honetan.

Este caserío, que hoy en día ha desaparecido, estaba cerca de la Avanzada, en la entrada a Udondo y en los alrededores de Mendibil. Sólo se ha recogido oralmente y puede ser que fuera nueva y la derruyeran para hacer las obras de la Avanzada. El nombre se compone de *buztina* 'arcilla' y *ondo*. Sin más datos no podemos saber si *buztina* es simplemente una palabra o si hace referencia al desaparecido caserío *Bustiñe*.



Domingorrena

Domingorrena (-a)

Ahoz | Oral: *Domingorrene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Santsoena auzoan dagoen XVIII. mende amaierako etxalde zaharra.

1796tik aurrera dokumentatzen den izen hau bitxia da itxuraz *-rena* duelako bere barruan, baina ahozko eta idatzizko iturrietan *-rr-* ageri denez, *Domingo* pertsona izenez gain beste zerbait dagoela pentsatu behar dugu *gorri* edo *gorra* adjektiboetako bat, bigarrena seguruenik. Alegia, Domingo gorraren etxea esanahia izango du.

Antiguo caserío del siglo XVIII en el barrio Santsoena.

Este nombre que se documenta desde 1795 es curioso porque lleva la terminación *-rena*, pero como tanto en la forma oral como en la escrita se recoge *-rr-*, podemos deducir que además del nombre *Domingo* tiene que haber algún adjetivo como *gorri* 'rojo' o *gor* 'sordo', lo más probable el segundo.

Elexaldebolua (-a)

Ahoz | Oral: *Errotasalde, Elexaldebolue*

Beste izenak | Otros nombres: Elexaldeko errota, Leioako errota

Auzoa | Barrio: Elexalde

Elexalde errekaen bazterrean dagoen errota hainbat izenez dokumentatu da: *Molino de Lejona* (1825), *Molino-Elejalde* (1865), *Molino* (1900), *Errota-zarre* (1971) eta *Rotazar bolua* (2001). Ana Lopezek

Leioa: Historian zehar liburuan azaltzen du 1861eko lurralde estatistikari esaten zela *Elexalde-bolua* izeneko erroteren jabea Santos de Gordoniz zela, eta estatistika horretan bertan *Errotazar* ere agertzen da, eta horren jabea Rosa de Lazkano. Beraz, datu horiek eta leioaztar batzuen lekukotzek berresten dute Elexaldeko erroteri sekula ez ziotela *Errotazar* esan, ez bada *El Molino*, *Errota* edo *Errotazalde*. Azkeneko hori *Errota Elexalderen* laburpena da.

Hasieran errota eta gero baserria izan zen etxe honen izenean, *Elexalde* auzo-izena, eta *bolua* hitzak ditugu. *Bolua* latineko *molinum*etik hartutako euskal hitza da, eta inguru honetako toponimiak ematen dizkigun datuen arabera *bolua* hitzak *errota* hitzak baino erabilera zaharra izan du.

Este molino que se encuentra en la orilla del arroyo Elexalde se ha documentado con diferentes nombres: *Molino de Lejona* (1825), *Molino-Elexalde* (1865), *Molino* (1900), *Errota-zarre* (1971) y *Rotazar bolua* (2001). Ana Lopez, en el libro *Leioa: Historian zehar*, explica que en la estadística del territorio de 1861 aparece como propietario de *Elexalde-bolua* Santos de Gordoniz, en esa misma estadística se documentan el molino *Errotazar* y su dueña Rosa de Lazkano. Por lo tanto, teniendo en cuenta esos datos y los testimonios a algunos vecinos, podemos afirmar que al molino de Elexalde nunca se le ha llamado *Errotazar*, sino *El Molino*, *Errota* o *Errotazalde*. Este último la abreviación de *Errota Elexalde*.

En el nombre del caserío que antes era molino se pueden distinguir el nombre del barrio Elexalde y *bolua* 'molino'. *Bolua* es un préstamo que el euskera ha tomado del latín *molinum*, y los topónimos de la zona nos demuestran que su uso es más antiguo que el de la palabra *errota*.



Elorriena (-a) (desagertua / desaparecido)

Beste izenak | Otros nombres: Elorriagena

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Aketxe auzoan zegoen etxalde hau XX. mende amaiera arte hainbat aldaerarekin dokumentatu da: *Elorriaga* (1704), *Elorriaguena* (1745-1746) eta *Elorriena* (1825). 1905ean *Elorrena* etxaldearen aurriak gelditzen zirela ere jasotzen da. Beraz, badirudi desagertutako etxalde honen izen osoa **Elorriagena** dela eta osagaiak *Elorriaga* abizena eta *-ena* jabego atzizkia direla.

Este caserío del barrio Aketxe se documentaba con diversos nombres hasta finales del siglo XX: *Elorriaga* (1704), *Elorriaguena* (1745-1746) y *Elorriena* (1825). En 1905 también se recoge que quedaban las ruinas del caserío Elorrena. Por tanto, parece ser que el nombre completo de este caserío, ya desaparecido, era Elorriagena y sus componentes son el apellido *Elorriaga* y el sufijo posesivo *-ena*.

ElorrietaAhoz | Oral: *Elorte(s)*, *Elortesarre*, *Elortebarri*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Euskal Herriko Unibertitatearen aurrean dagoen baserria. XVIII. mendeko sutegien arabera hiru ziren: **Elorrietabekoa** (gaur Elorrieta bezala ezagutzen dana), **Elorrietaerdikoa** (ustez XIX. mendean **Elorrietatxu** gisa ezaguna) eta **Elorrietaigoikoa**. Geroago **Elorrietabarri** baserria eraiki zuten.

Esanahiari dagokionez, *elorri* fitonimoa gehi *-eta* ugaritasuna adierazten duen atzizkia biltzen dira izen honetan. Ahoz *Elorte* esaten diote, dardarkari eta leherkariaren arteko bokala desagertzen delarik: *Iñortza* edo *Bidortza* leku-izenetan gertatzen den bezala. Aurreko horietan bezala, gainera, amaieran *-s* morfema pluralgilea gehitzeko ohitura dago, ohi den legez inguru honetan baserri multzoei amaieran erdarazko pluralgilea gehitzen zaie. Nolanahi ere, erabilera hau ez da zuzena eta ez da egokia horrela deitzea, bi hizkuntzen nahasketa besterik ez da eta.

*Elorrieta*

Este caserío se encuentra en frente de la Universidad del País Vasco y según las fogueraciones del siglo XVIII hubo tres Elorrieta: **Elorrietabekoa** (hoy conocido como Elorrieta), **Elorrietaerdikoa** (que en el siglo XIX podía ser conocido como **Elorrietatxu**) y **Elorrietagoikoa**. Más tarde se construyó el caserío **Elorrietabarri**.

El nombre se compone del fitónimo *elorri* 'espino albar' y el sufijo de abundancia *-eta*. Oralmente lo llaman *Elorte*, haciendo desaparecer la vocal que se encuentra entre la consonante vibrante y la explosiva: igual que en los casos de *lñortza* o *Bidortza*. Como en otros, hay costumbre de añadir el morfema plural castellano al hacer referencia a un grupo de caseríos. De todos modos, ese uso no es correcto, ya que no es más que una mezcla de dos idiomas.



Erdikoetxebarri

Erdikoetxebarri

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Etxalde hau berria da eta Santi Mami auzoan dago, **Arara** inguruan. Izenaren konposizioan *erdiko* (nongo kasuarekin), *etxe* eta *barri* bereizten dira.

Este nuevo caserío está en el barrio Santi Mami, cerca de **Arara**. En la composición del nombre se distinguen los elementos *erdiko* 'del medio', *etxe* 'casa' y *barri* 'nuevo'.

Errekagana

Ahoz | Oral: *Errekagane*

Auzoa | Barrio: Basaez (Artatza)

Basaez auzoan dagoen etxe honen lehenengo aipamena XX. mende amaierakoa da eta gaur egun bertan jatetxe bat dago. Izenaren konposizioan *errika* eta *gana* bereizten dira; ziurrenik etxea Giltzeko errekaren ondoan dagoelako. Ahoz, inguru horretan ohikoa den bezala, *Errekagane* esaten diote.

Los primeros datos de esta casa del barrio Basaez son de finales del siglo XX y hoy en día es un restaurante. En la composición del nombre se distinguen *errika* 'río' y *gana* 'cima' o 'parte superior', seguramente porque la casa está cerca del arroyo de Giltza. Oralmente, como es común en la zona, le denominan *Errekagane*.

Errekalde

Ahoz | Oral: *Errekalde*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Elexalde auzoan dagoen XVIII. mendeko etxalde zaharra. 1950eko estatistika dokumentu batean *Errekaldebarri* izeneko beste etxe bat agertzen da, ziurrenik inguruan egongo zena. Aipagarria da 1908ko dokumentu batean *Recaldena* forma agertzea, horrek Leioako udalerrian *-ena* atzizkia zein zabaldua dagoen erakusten du. Hain dago zabaldua, non behar ez den kasuetan ere gehitu egiten baita, etxea dela adierazteko edo.

Ohikoa denez *r-* dardarkariaz hasten diren hitz edo toponimoek euskaraz hasieran *e-* protetikoa eraman ohi dute. Baina **Errekalde** toponimoaren kasua, halere, bitxia da, izan ere, beste hitz batzuk ez bezala, *Rekalde* ez da mailegua, euskal etimologiadun izena baizik: *errika aldea*. Hortaz hiperzuzenketa baten ondorioz kendu izan zaio hasierako *e-* hori izenari.



Errekalde

Este antiguo caserío del siglo XVIII está en el barrio Elexalde. En un documento de estadística de 1950 aparece otro llamado *Errecaldebarri*, que seguramente estaría cerca. Es bastante relevante que en un documento de 1908 aparezca la forma *Recaldena*, eso nos demuestra lo habitual del uso del sufijo *-ena* en Leioa. Es tan común que incluso se ha añadido donde no era necesario para resaltar que se trata de una casa.

Como es habitual, a las palabras o topónimos que empiezan con *r* en euskera se les añade una *e* protética al principio. Pero el caso de *Errekalde* es algo extraño, ya que esta palabra no es un préstamo y quiere decir *errika aldea* 'lugar del río'. La *e* del comienzo se ha eliminado a causa de una hipercorrección castellanizante.

Errementeria (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Errementeria*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxaldea. 1704ko fogerazioetan jaso da; beraz, ziurrenik XVII. mendekoa edo honen aurrekoa izango da. Etxalde honen inguruan bazegoen **Errementariazarra** izeneko beste etxe bat.

Izenak dioen bezala, *errementeria* lantegi tradizionalako etxea izateaz gain, lanbidea ere bazen, gaztelaniaz *rementero* edo *herrero*.

Este caserío del barrio Santi Mami se recoge en las fogueraciones de 1704; por lo tanto, seguramente será del siglo XVII o anterior. Cerca de él había otro llamado **Errementarizarra**.

Tal y como indica el nombre, *errementeria*, además de ser un taller tradicional también era un oficio, 'rementero' o 'herrero' en castellano.

Errotazar (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Errotasarre*(Ikus/Véase *Altzagako errota*).***Estartetxe*** (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde

Etxalde honek **Antoniena** eta **Mateoena** etxaldeekin batera auzo txiki bat osatzen zuen, gaur egun Jose Ramon Aketxe plaza dagoen leku berean.

Estarta (latineko *strata*-tik) eta *etxe* hitzez konposatutako etxe-izena. *Estarta* hitzak 'bidea' esan nahi du eta ziurrenik etxea bidearen ondoan egongo zen. Gaur egun Avanzada denari edota Elexalde etor-bideari esango zioten *estarta*.

Este caserío formaba un pequeño barrio junto con los caseríos **Antoniena** y **Mateoena** en la zona donde hoy está la plaza Jose Ramon Aketxe.

Nombre compuesto por *estarta* 'estrada' y *etxe* 'casa'. Seguramente la casa estaría cerca del camino y llamarían *estarta* a lo que hoy en día es la Avanzada o la avenida Elexalde.

Etxatxu

Ahoz **I** Oral: *Etzatzu*

Beste izenak **I** Otros nombres: Etxatxuelexalde eta Etxatxuperuri

Auzoa **I** Barrio: Elexalden bat (Santi Mami); Artatzan (Peruri) beste bat

Leioan izen bereko bi etxe izan dira: bata Elexalde auzoan zegoena, gaur egun desagertua; eta bestea Peruri auzoan dagoena.

Etxe hitzak konposaketan *etxa-* zein *etxe-* ematen du, zaharragoa, *etxa-* bada ere. 1865eko dokumentu batean *Echachu-Elexalde* formaz ageri da, auzo izenaz lagundurik, hain zuen ere Peruri auzokoaz bereizteko. Halere, gaur egun ez da *Etxatxuelexalde* forma erabiltzen eta ahos *Etzatzu* esaten zaio. Gogoan izan behar dugu Bizkaiko eremu zabal batean *etze* esaten dela, eta ez *etxe*, jatorrizko hitza *etse* bide baitzen.

En Leioa había dos caseríos con el mismo nombre: uno era el que estaba en el barrio Elexalde, hoy desaparecido; y el otro el que está en el barrio Peruri.

La palabra *etxe* 'casa' en composición suele tomar la forma *etxa-* o *etxe-*, aunque *etxa-* es más antigua. En un documento de 1865 aparece *Echachu-Elexalde*, acompañado del nombre del barrio, para distinguirlo del caserío del barrio Peruri. De todos modos, hoy en día no se utiliza la forma *Etxatxuelexalde* y oralmente le dicen *Etzatzu*. Tenemos que recordar que en gran parte de Bizkaia se dice *etze*, y no *etxe*, ya que, al parecer, la original era *etse*.



Etxandia, 1999

Etxeandia (-a)

Ahoz | Oral: *Etzandi*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Aketxe auzoko etxalde hau gutxienez XVII. mendekoa da, 1704ko sutegietan dokumentatzen baita lehenengoz.

Ahoz *Etzandi* esaten diote, *-ea-* bokal elkarketa *-a-* bokalaz laburturik, eta artikulua ere kendurik. Hala ere, jatorrizko forma, deituratan gordeta, artikuluduna da.

Etxandi izenak ‘nagusia’ esan nahi du, etxerik handiena, tamainaz, eta etxe multzo bateko etxe nagusia.

Este caserío del barrio Aketxe es al menos del siglo XVII, ya que se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1704.

Oralmente le llaman *Etzandi*, abreviando las vocales *-ea-* en *-a-*, y quitando el artículo. **Etxandi** quiere decir ‘la casa principal’ de un grupo.

Etxebarria

Euskal Herriko deiturarik hedatuena da Etxebarria / Etxeberria, gure herri guztietan izaten baita izen hau duen etxe bat edo gehiago. Leioan lau ditugu: Peruri, Santsoena, Aketxe eta Aldekoena auzoetan. Askotan etxe berri hauek elkarrengandik hurbil daude eta bereizteko beharra izaten da, holakoetan auzoaren izena jartzen da aurrean: *Perurietxebarria*, *Santsoenetxebarria*, *Aketxetxebarria* eta *Aldekoenaetxebarria*; dena dela, gehienetan huts-hutsean erabiltzen da, luzea baita, eta horrela finkatu da deiturretan.

Etxebarria / Etxeberria es el apellido vasco más extendido, puesto que en todos los pueblos se hacía una casa o más con ese nombre. En Leioa se encuentra en cuatro barrios: Peruri, Santsoena, Aketxe y Aldekoena. Muchas veces estas casas están cerca las unas de las otras y para distinguirlas se les suele añadir delante el nombre del barrio: *Perurietxebarria*, *Santsoenetxebarria*, *Aketxetxebarria* y *Aldekoenaetxebarria*; pero la mayoría de las veces no suele usarse esa forma por ser demasiado larga.

Etxebarrikoena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Etxebarrikone*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Gaur egungo Elexaldeko parkea eta Etxebarrikoena kalearen artean zegoen, ondoan *Etxebarrikoenaldapasolo* toponimoa biltzen da. Uribe Kostan *aldapa* soroa izendatzeko erabiltzen da. **Etxebarrikoena** etxaldeaz gain, beste bat omen zegoen Elexalde inguru horretan, hori jasotzen da behintzat 1950eko errolda batean. *Etxebarrikone* etxaldearen bikote berria izateagatik **Etxebarrikoenabarri** izena emango zitzaion.

Etxebarri nongo kasuan deklinatu eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Amaieran dugun *-ena* atzizkia pertsona-izen, deitura zein ezizenez osatutako izenei gehitzen zaionez, pentsatu behar dugu *Etxebarriko* izan zela inoren ezizena. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Etxebarrikone* esaten diote.

El caserío estaba en la zona situada entre la calle Etxebarrikoena y el parque Elexalde, en esa zona también se recoge el topónimo *Etxebarrikoena*.

naldapasolo. En Uribe Kosta ha utilizado *aldapa* con el sentido de *huerta*. Al parecer, en un censo de 1950, además del caserío **Etxabarrikoena** se recoge que había otro caserío en esa zona de Elexalde, seguramente llamado **Etxebarrikoenabari**.

El nombre del caserío deriva de *etxebarri* (casa nueva) declinado en el caso *nongo* de lugar y del sufijo posesivo *-ena*. Teniendo en cuenta que ese sufijo se le añade a nombres de persona, sobrenombres o apellidos, podemos deducir que *Etxebarriko* era un sobrenombre. Oralmente, como es habitual en la zona, se cierra la *-a* final y le llaman *Etxabarrikone*.

Etxetxikerra (-a)

Ahoz | Oral: *Etzetzikerre*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Sarriena)

Askartza auzoko etxe hau XVIII. mende hasierakoa da. 1745eko fogeraioetan dokumentatzen da lehenengoz, baina *La casa nueva pequeña de D^o Azcorra* izenaz. Aurrerago, 1887an, hasten da *Echechiquerra* izenaz dokumentatzen. Izan ere, gogoan izan behar dugu *txikerra* hitza, inguru eta azpieuskalki honetan oso erabilia, ez dela oso zaharra.

Toponimoa *etxe* hitzaz eta *txikerra* adjektiboaz osatua dago. Ahoz *Etzetzikerre* esaten diote, inguru honetan ohikoa den amaierako *-a* itxi egiten da eta.



Etxetxikerra, 2011

Este caserío del barrio Askartza es de principios del siglo XVIII. Se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1745 como *La casa nueva pequeña de D° Azcorra*. Más adelante, en 1887, comienza a documentarse como *Echechiquerra*. Tenemos que recordar que la forma *txikerra* tan utilizada en esta zona no es demasiado antigua.

El nombre se compone de *etxe* 'casa' y del adjetivo *txikerra* 'pequeño'. Oralmente se le llama *Etzetzikerre*, cerrando la -a final, como es habitual en la zona.

Etxetxubarri

Ahoz | Oral: *Atzabaltabarri, Etzetzubarri*

Beste izenak | Otros nombres: *Aretxabaletabarri*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxalde honen izenean *etxetxu* eta *barri* hitzak bereiz daitezke. **Aretxabaleta** baserriaren ondoan dago, hori dela eta, baliteke **Etxetxubarri** izenaz ezagutzen dugun etxe hau **Aretxabaletabarri** izenaz ere ezagun izana.

Etxaldea XIX. mendekoa da, izan ere lehenengoz 1845ean dokumentatu da *Echchubarri* bezala. Hala ere, 1892. urteko agiri batean *Arechavaleta menor* izenaz ere ezaguna da. Horrek esan nahi du *txiki*, *txiker* edo *-txu* atzizkia erabiltzen zela euskaraz, 1905. urtean *Arechavaleta-Chiqui* toponimoa dokumentatzen da. Izan ere, *Etxetxubarri* izena badago, inguruan *Etxetxu* izeneko beste etxeren bat egon beharko luke, baina horrelakorik ez dago.

En el nombre de este caserío de Santi Mami se distinguen las palabras *etxetxu* 'casita' y *barri* 'nuevo'. **Etxetxubarri** se encuentra al lado del caserío **Aretxabaleta**. Por esta razón es posible que también haya sido conocido como **Aretxabaletabarri**.

El caserío es del siglo XIX, ya que se documenta por primera vez en 1845 como *Echchubarri*. De todos modos, en un documento de 1892 también es conocido como *Arechavaleta menor*. Esto significa que en euskera se utilizaban terminaciones como *txiki*, *txiker* o *-txu*, y en 1905 se documenta el topónimo *Arechavaleta-Chiqui*. De hecho, para tener un topónimo llamado *Etxetxubarri* deberíamos encontrar otro en la misma zona llamado *Etxetxu*, y esto no sucede.



Etzetxubari

Etzezuria (-a)

Ahoz | Oral: *Etzesuri*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxe hau 1704an dokumentatzen da lehenengoz; beraz, XVII. mendekoa da gutxienez. Geroago bigarren bat eraiki eta *Etkezuriandi* eta *Etkezuritxiki* deitu ziren.

Etxearen izenean argi ikusten dira *etxe* hitza eta *zuri* adjektiboa, etxearen kolorea. Gaur egun etxalde gehienak zuriak dira, baina aspaldian ez zen horrela eta izen hau da egoera horren lekuko, eraikitzean bakarra izateak eman zion izena. XIX. mende amaieran artikulua gabeko aldaerak agertzen dira, baina jatorrizkoa artikuluduna da.

Este caserío de Ondiz se documenta por primera vez en 1704; por tanto, al menos es del siglo XVII. Posteriormente se construyó otra, y para diferenciarlas se las llamó *Etkezuriandi* y *Etkezuritxiki*.



Etsezuri (Ondiz)

En el nombre de la casa se distinguen claramente el sustantivo *etxe* 'casa' y el adjetivo *zuri* 'blanco'. Hoy en día, la mayoría de las casas son blancas, pero antiguamente no eran de ese modo y el adjetivo *zuri* nos indica que era la única de aquella época que era blanca. A finales del siglo XIX aparecen formas sin artículo, pero la original lleva el artículo, *Etsezuria*.

Ganabbarri

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Etxaldea Santsoena auzoan dago eta Gana izenaz eta *barri* adjektiboaz osatua dago.

El caserío está en el barrio Santsoena y el nombre se compone del nombre Gana, (*gan* 'alto' y el artículo *-a* 'el alto') y del adjetivo *barri* 'nuevo'.



Ganabbarri

Gerediaga (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Geredia*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami eta Santsoena auzo artean zegoen baserria, Lertutza urtegiaren ondoan. Ziurrenik etxaldea XX. mende hasieran desagertu zen, azkenekoz 1915ean dokumentatzen baita. 1825eko dokumentu batean *Gerediagaurrebaso* toponimoa dokumentatzen da, ziurrenik **Gerediaga** etxaldearen aurrean egongo zen basoaren izena. Gaur egun, inguru horretan izen bereko baso handi bat dago.

Geredi eta *-aga* ugaritasun atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. *Gerediaga* toponimoa Durangon ere badago, bertako elizaurrean biltzen baitziren Durangaldeko herriak batzarrean. Hitzaren etimologia iluna da. Mitxelena *heredium* hitzarekin lotzea zail ikusten du eta pentsa genezake latineko hitz bat egon litekeela oinarrian, baina ez dakigu zein.

Este caserío estaba entre los barrios Santi Mami y Santsoena, cerca del pantano Lertutza. Seguramente desapareció a principios del siglo XX, puesto que se documenta por última vez en 1915. En un documento de 1825 se recoge el topónimo *Gerediagaurrebaso*, seguramente el nombre del bosque que estaba delante del caserío **Gerediaga**. Hoy en día, en esa zona hay un gran bosque con el mismo nombre.

El nombre deriva de *Geredi* y el sufijo de abundancia *-aga*. El étimo de *Geredi* es bastante oscuro. Mitxelena ve difícil relacionarlo con la palabra *heredium* y podemos pensar que en la base tiene una palabra del latín, pero no sabemos cuál.

Goienetxe

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Etxe berria da eta Ondiz auzotik Txorierrri auzunerako bidean dago.

Goien eta *etxe* izenetik sortutako izen elkartua da eta baliteke kokalekuari erreferentzia egitea, Ondiz auzoko lekurik altuenean baitago.

Es una casa nueva que está en el camino que va del barrio Ondiz al barrio Txorierrri.

El nombre proviene de la composición de las palabras *goien* 'la de más arriba' y *etxe* y hace referencia a su posición puesto que está en el punto más alto del barrio Ondiz.

Goikoetxea (-a)

Ahoz | Oral: *Goikotze*

Beste izenak | Otros nombres: Leioagoitiagoikoetxea (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde

Elexalde auzoko etxalde hau XIX. mende amaierakoa izan daiteke, izan ere, ez da 1745eko fogeraioetan dokumentatzen eta lehenengoz 1796koan bildu da. Gainerako **Goikoetxe** baserriekin gertatu bezala (**Araragoikoetxea** eta **Aketxegoikoetxe**), ohikoa da dokumentazioan



Goikoetxe Elexalde

auzo izenaz lagundurik topatzea, besteengatik bereizteko eta *Lejonagoitia Goicoechea* (1845), *Goico-echea-Lejona* (1865) edota *Goicoeche-Elejalde* (1912) formak dokumentatzen dira. Ahoz *Goikotze* esaten diote -oe- bokal elkarketa -o- bokalaz laburturik.

Este caserío de Elexalde podría ser de finales del siglo XIX, ya que no se documenta en las fogueraciones de 1745 y aparece por primera vez en 1796. Al igual que sucede con el resto de caseríos **Goikoetxe** (**Araragoikoetxe** y **Aketxegoikoetxe**), es común encontrarlo acompañado del nombre del barrio y se documentan formas como *Lejonagoitia Goicoechea* (1845), *Goico-echea-Lejona* (1865) o *Goicoeche-Elejalde* (1912). Oralmente le llaman *Goikotze* abreviando la suma de las vocales -oe- en -o-.

Goikoetxe

Ahoz | Oral: *Goikotze*

Beste izenak | Otros nombres: Aketxegoikoetxe

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Etxalde hau Aketxe auzoan dago, aurrean desagertuta dagoen **Kortesena** zegoen. Zenbait dokumentutan *Aketxegoikoetxe* formaz dokumentatzen da *Goikoetxe* izeneko beste baserrietatik bereizteko, hala nola, **Araragoikoetxe** edo **Elexaldegoikoetxe**.

Amaierako artikulua XIX. mende erdialdera desagertuta zegoela dirudi, izan ere 1858. urteko dokumentu batean zegoeneko *Goicoeche* dokumentatzen baita, artikulurik gabea. Ahoz *Goikotze* esaten diote *-oe-* bokal elkarketa *-o-* bokalaz laburturik.

Este caserío está en el barrio Aketxe, y delante estaba el ya desaparecido **Kortesena**. En algunos documentos aparece con la forma *Aketxegoikoetxea* para distinguirlo de otros caseríos como **Araragoikoetxe** o **Elexaldegoikoetxe**.

Al parecer, el artículo final desapareció para finales del siglo XIX, ya que en un documento de 1858 se recoge la forma *Goicoeche*. Oralmente le llaman *Goikotze* abreviando la suma de las vocales *-oe-* en *-o-*.

Goikoetxea (-a)

Ahoz | Oral: *Goikotze*

Beste izenak | Otros nombres: Araragoikoetxea (-a), Araragoiena (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxalde hau Arara auzoko baserririk berriena da. Ikusi Arara sarreran esaten dena.

Ahoz gaur egun *Goikotze* esaten diote etxaldeari, baina urteetan zehar aldaera desberdinak izan ditu; 1745ean *Arara Goicoa* dokumentatu da, *Arara Goiena* 1858an edo *Arara Goicoechea* 1825eko Polizia Erroldan.

Este caserío es el más nuevo del barrio Arara. Véase Arara.

Hoy en día se llama *Goikotze*, pero a lo largo del tiempo ha tenido diferentes nombres: en 1745 se documenta *Arara Goicoa*, *Arara Goiena* en 1858 o *Arara Goicoechea* en el Censo Policial de 1825.

*Goikoetxebarri*

Goikoetxebarri

Ahoz | Oral: *Goikotzebarri*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Elexalde auzoan dagoen etxe hau **Goikoetxe** baserria baino gorago dagoen etxe berria da. *Goikoetxe* eta *barri* adjektiboaz konposatutako toponimoa da. Ikus *Goikoetxe*, *Goikoetxelexalde*.

Este edificio del barrio Elexalde es la casa nueva que está algo más arriba que el caserío **Goikoetxe**. El nombre se compone de *Goikoetxe* y el adjetivo *barri*. Véase *Goikoetxe*, *Goikoetxelexalde*.



Ibarrabbarri (desagertua / desaparecido)Ahoz **I** Oral: *Ibarrabarre, Iberrabarri, Ibarbarre*Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Udondo)

Desagertutako etxalde zahar hau Udondo auzoan zegoen eta XIX. mendearen bigarren erdikoa da. Gaur egun, inguru horretan izen bereko industrialde bat dago eta **Ibarrabbarriko zubia** ere ondoan dago.

Ibarra eta *barri* adjektiboaz osatutako izen elkartu honek kokagunetik hartzen du izena, Udondo errekaaren ibarretan baitzegoen etxaldea.

Este viejo caserío ya desaparecido que estaba en el barrio Udondo es de la segunda mitad del siglo XIX. Hoy día, en ese entorno hay una zona industrial con el mismo nombre, y el puente de **Ibarrabbarri** también está al lado.

Este nombre está compuesto por la palabra *Ibarra* 'valle' o 'vega' y el adjetivo *barri* 'nuevo', y toma el nombre de su localización, dado que el caserío se situaba en la orilla del río Udondo.

Indurriena (-a)Ahoz **I** Oral: *Indurrene*Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondizko etxalde hau XVIII. mende hasierakoa da, lehenengoz 1745eko fogeraioetan dokumentatu baita.

Izenaren konposizioan *indurri*, 'hiedra' gaztelaniaz, baliteke jabearen edo bizilagunaren ezizena izatea, eta *-ena* jabego atzizkia agertzen dira. Ahoz, inguru honetan ohikoa den bezala, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Indurrene* esaten zaio.

Este caserío del barrio Ondiz es del siglo XVIII, ya que se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1745.

El nombre se compone 'indurri', 'hiedra' en castellano, puede que sea el sobrenombre del propietario o habitante, y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es común en la zona, se cierra la *-a* final y es conocido como *Indurrene*.



Iñaurratzagagoikoa (-a) eta Iñaurratzagabekoa (-a)

(desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Iñortzagoiko, Iñortzabeko, Iñortza(s)*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Ahoz arrunki *Iñortzas* formaz da ezaguna. Azken mendeotan *Iñortza* izeneko etxe bi izan badira ere, **Iñaurratzagabekoa eta Iñaurratzagagoikoa**, lehenago hiru ziren. Hala ere, hiru izen hauek aldaketa batzuk izan zituzten. 1704ko sutegian *Iñaurratzagaurrekoa*, *Iñaurratzagaerdikoa* eta *Iñaurratzagabekoa* ageri dira; baina 1745ean, berriz, *Dendarienaiñaurratzaga*, *Iñaurratzagabekoa* eta *Iñaurratzagagoikoa*. Beraz, bost izen desberdin hiru etxe izendatzeko. Kokapena aztertuta badirudi behin ageri den *Iñaurratzagaurrekoa* eta *Iñaurratzagagoikoa* bat bera direla eta, ondorioz, *Dendarienaiñaurratzaga* izeneko *Iñaurratzagaerdikoa* zela. Izen honek ahoz aldaketa ugari izan ditu, eta horrela Bidaurratzaga toponimoaz gertatu bezala, *Bidortza* esaten zaiola, *Iñaurratzaga* izena ahoz *Iñortza* esaten zaio. Azkenaldian gainera, amaieran erdarazko morfema pluralgilea gehitu izan zaio eta *Iñortzas* forma erabili izan da. Gainerako fonetismoak oso normalak dira: amaierako *-aga* atzizkia *-a* ahozkatzea, *-au* bokal pilaketa edo sinplifikatzea eta abar.

Baserriok desagertuta daude, eta gaur egun inguru horretan etxe berriak daude, Iñaurratzaga izeneko kalearen ondoan.



Comúnmente, en forma oral, es conocido como *lñortzas*. Aunque en los últimos siglos hayan existido dos casas con el nombre *lñortza*, ***lñaurratzaga-bekoa*** e ***lñaurratzagagoikoa***, anteriormente fueron tres. Sin embargo, estos nombres sufrieron varios cambios. En las fogueraciones de 1704 aparecen *lñaurratzagaurrekoa*, *lñaurratzagaerdikoa* e *lñaurratzagabekoa*, pero en 1745, en cambio, *Dendarienaiñaurratzaga*, *lñaurratzagabekoa* e *lñaurratzagagoikoa*. Por lo tanto, cinco nombres distintos para denominar tres casas. Analizando la localización, parece que el topónimo *lñaurratzagaurrekoa*, que solo se menciona una vez, e *lñaurratzagagoikoa* hacen referencia al mismo caserío y, por lo tanto, *Dendarienaiñaurratzaga* era *lñaurratzagaerdikoa*. Oralmente este nombre ha sufrido varios cambios. De esta forma, al igual que ocurrió con el topónimo *Bidaurratzaga*, al que se le llama *Bidortza*, *lñaurratzaga* es conocido como *lñortza*. Además, últimamente se le ha añadido el morfema plural de castellano -s y se ha utilizado la forma *lñortzas*. El resto de fonetismos son muy normales: el sufijo -aga final se pronuncia -a, la suma de las vocales -au- pasa a ser -o-, etc.

En el lugar en donde se encontraban estos caseríos hoy en día hay casas nuevas, al lado de la calle *lñaurratzaga*.

Iturralde

Ahoz **I** Oral: *Mantxiñe, Iturralde*

Beste izenak **I** Otros nombres: *Iturraldezarra (-a), Mantxiena (-a)*

Auzoa **I** Barrio: *Elexalde (Santi Mami)*

Santi Mami auzoko etxe hau **Iturralde** edo **Iturraldezarra** izenaz ezaguna da, hala ere, familiaren izenagatik esaten zaio horrela. Izatez, **Mantxiena** etxeetako bat da.

Este caserío de Santi Mami es conocido como **Iturralde** o **Iturraldezarra**, y este nombre es debido al apellido de la familia. De hecho, es una de las casas **Mantxiena**.

*Iturralde****Iturribiondo*** (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondo auzoan zegoen etxalde hau XVIII. mendekoa da eta oso gutxi dokumentatu da. Izenaren konposizioan *iturri* izena, *bi* zenbakia eta *ondo* potposizioa agertzen dira.

Este caserío que se encontraba en el barrio Udondo es del siglo XVIII y se documenta muy poco. El nombre se compone de *iturri* 'fuente', el número *bi* 'dos' y la posposición *ondo* 'al lado de'.



Iturriena, Alzaga Ikastola, 2011

Iturriena (-a) edo Abadena (-a)

Ahoz | Oral: *Abadene, Iturrine*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoan dagoen eraikuntza hau gaur egun *Alzaga Ikastola* da. Etxaldea baino jauregia zen, hau da, baserria baino eraikin handiagoa. Lehenengoz, 1704ko fogeraioetan dokumentatu da; beraz, gutxienez XVII. mendekoa zen jatorrizko eraikuntza.

Eraikin honek mendez mendez **Iturriena** izena izan du, XIX. mende amaieran izena aldatu eta **Abadena** esaten hasi zitaion arte, ziurrenik bertan biziko baitzen abadea. Hala ere, Bizkaiko usadioan ohiko den bezala, antzina auzo izena ere agertzen zen izenaren baitan eta lehenengo aipuan **Ondiziturri** zen.

Azken hori *abade* eta *-ena* genitibo atzizkiaz eratorritako leku-izena da, Abadearen etxea. Ohikoa da kontsonantez eta artikuluz amaitutako leku-izenetan deklinabidearen bokal epentetikoaren influentzia

ikustea, eta *-a* amaierak *-e* bihurtzea: Arane edo Arene asimilazioaren ondorioz, *Iturrigane* edota *-ena* genitibodun atzizkiaz amaitutako *Antoniene* bezalako toponimoak eta abar. Horrela, *Abadene* edo *Iturrine* ere esaten zaio ahoz. Deklinabidea ahultzearen ondorioz gertatzen da hori, aski sistematikoa inguru honetako azpieuskalkian.

Este edificio situado en el barrio de Ondiz, hoy en día es la Ikastola Altzaga. Más que caserío era palacio, esto es, un edificio más grande y elegante. Se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1704, y por tanto, es, al menos, del siglo XVII.

El nombre que tuvo durante siglos fue **Iturriena**, hasta que a finales del siglo XIX se le empezó a llamar **Abadena**, dado que seguramente el cura viviría ahí. Sin embargo, siguiendo la tradición de Bizkaia, en una época en su nombre incorporó el del barrio y en su primera cita aparece como **Ondiziturri**.

Este último nombre deriva de *abade* 'cura' y del sufijo genitivo *-ena*, 'la casa del cura'. En los nombres de lugar terminados en consonante y artículo es común ver la influencia de la vocal epentética de la declinación, y que las terminaciones *-a* se conviertan en *-e*: Arane o Arene como consecuencia de la asimilación, *Iturrigane* o topónimos como *Antoniene* que terminan con el sufijo genitivo *-ena*, etc. De este modo, también es conocido oralmente como *Abadene* o *Iturrine*. Esto sucede por la debilitación de la declinación, algo bastante sistemático del subdialecto de la zona.

Iturriena





Iturrikoetxea

Iturrikoetxea (-a)

Ahoz | Oral: *Iturkotze*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoan dagoen etxe honen lehenengo dokumentuak 1704koak dira, orduan **Ondiziturrikoetxea** deitzen zen (*Hondiz Iturrichecha*).

Ahoz izena laburtu eta *Iturkotze* esaten diote, baina forma osoa **Iturrikoetxea** da. Izenaren konposizioan *iturriko* (*iturri* nongo kasuan deklinatuta) eta *etxe* bereiz daitezke; beraz, inguruan iturri bat izango zuela pentsa dezakegu.

Los primeros documentos de este caserío del barrio Ondiz son de 1704, cuando se llamaba **Ondiziturrikoetxea** (*Hondiz Iturrichecha*).

Oralmente el nombre se abrevia y es conocido como *Iturkotze*, pero la forma completa es **Iturrikoetxea**. El nombre se compone de *iturriko* 'de la fuente' y *etxe* 'casa' y podríamos pensar que habría una fuente en la zona.

Itxasbegi

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatzagana auzoko etxea, **Solokoetxe** etxearen ondoan.

XX. mendean neotoponimia edo toponimia berria zabaldu zen eta ohikoak dira inguru honetan, Getxo aldean bereziki, *itxas* hitzaz konposatutako etxe-izenak sortzea. Baliteke, garai batean etxe hartatik itsasoa ikustea. Gaur egun, ordea, oso zaila da inguru horretatik itsasoa ikustea, hainbat etxe berri egin baitituzte inguru horretan.

Esta casa del barrio Artatzagana está al lado de **Solokoetxe**.

En el siglo XX se extendió la neotoponimia o nueva toponimia y en esta zona, especialmente en Getxo, son muy comunes los nombres compuestos con la palabra *itxas* 'mar'. Puede ser que en una época se viera el mar desde aquella casa. Hoy en día, en cambio, es muy difícil ver el mar desde esa zona, ya que han construido casas nuevas.

Jauregi (Ondizjauregi)

Ahoz | Oral: *Yauri, Yeuri*

Beste izenak | Otros nombres: Ondizjauregi

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxalde zahar honen lehenengo dokumentua 1683. urtekoa da. Ahoz, inguruko euskararen ezaugarri eta joerei jarraituz, ez da kontsonante belarea ahoskatzen, erdaraz egingo litzatekeen bezala, *-y-* soinua erabiltzen da eta *Yauri* esaten diote. Gainera, ahoskeran bokal arteko *-g-* ere desagertu egiten da eta, ondorioz, amaieran geratzen den *-ei* elkarketa *-i* bihurtzen da.

El primer documento de este viejo caserío del barrio Ondiz es del año 1683. Oralmente, siguiendo las características y tendencias del euskera de la zona, no se pronuncia la consonante velar, como se haría en castellano, y es conocido como *Yauri* utilizando el sonido velar *-y-*. Además, en la pronunciación también desaparece la *-g-* de entre vocales y como consecuencia, la unión *-ei* que queda al final, se convierte en *-i*.



Jauregi

Jonzabalena (-a)

Ahoz | Oral: *Yonsabalene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoan eta Mendibil inguruan dagoen etxaldea, Junkera etxe-taldearen inguruan. Etxaldea XVIII. mendeko bigarren erdikoa omen da.

Bitxiak dira benetan izen honen osagaiak. Izan ere, Leioako etxalde-izen gehienek egitura jarraitzen badu ere, alegia, jabearen izena (antroponimoa, ezizena edo ofizioa) eta *-ena* jabego atzizkia egitura, kasu honetan *Joan Zabala* izen-deiturak ageri zaizkigu. Dena dela, eta nahiz eta 1796tik 1950era bitartean dokumentazioan nagusiki *Juanzabalena* dokumentatu, euskaldunek ahoz *Yonsabalene* esan diote, *Yuan/Juan* izenaren euskal aldaeraduna alegia (*Joan* jatorrizko euskal formatik garatutako *Jon* forma, hain zuzen ere). Era beran, hasierako kontsonantea, inguruko euskararen ahoskerari jarraituz, *-y-* ahoskatzen da eta, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da *-e* bihurtuz.

*Jonzabalena*

Caserío situado en la zona de los barrios Santi Mami y Mendibil, cerca del grupo de casas Junkera. Al parecer, data de la segunda mitad del siglo XVIII.

Los componentes de este nombre son singulares. De hecho, aunque siga la estructura de la mayoría de los nombres de caseríos de Leioa, es decir, nombre del propietario (antropónimo, sobrenombre u oficio) y sufijo posesivo *-ena*, en este caso aparecen el nombre y apellidos *Joan Zabala*. De todos modos, y aunque entre 1796 y 1950 se documenta principalmente *Juanzabalena*, en euskera oralmente se conoce como *Yonsabalena*, esto es, la variante de euskera *Yuan/Juan* (la forma *Jon* proveniente de la forma vasca original *Joan*). Del mismo modo la consonante inicial, siguiendo la pronunciación del euskera del entorno, se pronuncia *-y-*, y como es habitual en este entorno, la *-a* final se cierra convirtiéndose en *-e*.





Junkera, 2011

Junkera

Ahoz | Oral: *Yunkera*

Beste izenak | Otros nombres: Junkerazarra

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Mendibil inguruan dagoen Santi Mami auzoko etxalde zaharra, Leioako zaharrenetakoa, 1475ean dokumentatzen baita. **Junkera** baserria inguruko handiena da. 1799a baino lehentxoago eraikitako **Junkerabarri** edo **Junkeraetxebarria** etxearen oposizioz **Junkera-zarra** bezala ere ezagutzen da. Hala ere, inguruan dauden etxe txikiagoek ere **Junkera** bera hartzen dute.

Junkera hitzak erdal etimologia badu ere, ez da arraroa euskal toponimia eremuan topatzea. Erandion bertan, Astrabudua auzoan ba omen zegoen izen bereko etxalde zahar bat ere. Ahoz, inguruko euskararen ezaugarri eta joerei jarraituz, ez da kontsonante belarea ahoskatzen, erdaraz egingo litzatekeen bezala, *-y-* soinua erabiltzen da eta *Yunkera* esaten diote.

Pixka bat gorago, Santi Mami auzo inguruan, **Junkerabarri** izeneko etxaldea dago eta ondoan dagoen Junkerarekin bikote egiten du. XX. mende erdi ingurukoa da, **Junkera** baserri zaharraren izena hartu eta *barri* adjektiboa erantsi diote.

Viejo caserío del barrio de Santi Mami que se encuentra en la zona de Mendibil. Es uno de los más antiguos de Leioa, ya que se documenta en 1475. El caserío Junkera es el más grande de la zona, también conocido como **Junkerazarra** en oposición a **Junkerabarri** o **Junkeraetxebarria** que fue construido antes de 1799. Sin embargo, los edificios más pequeños que se encuentran en esta zona también se conocen como *Junkera*.

Aunque la palabra *Junkera* sea de etimología castellana, no es difícil encontrarla en la toponimia vasca. Al parecer, en Erandio, en el barrio As-trabudua había otro viejo caserío con el mismo nombre. Oralmente, siguiendo las características y tendencias de la zona, no se pronuncia la consonante velar como se haría en castellano, y utilizan el sonido -y lla-mándolo *Yunkera*.

Un poco más arriba, cerca del barrio Santi Mami, se encuentra el caserío **Junkerabarri**. Este caserío es de mediados del siglo XX y, tomando el nombre del caserío **Junkera** que tiene al lado, le han añadido el adjetivo *barri* 'nuevo'.

Kandelazubieta (desagertua / desaparecido)

Ahoz **I** Oral: *Bistalegre, Kandelasubita*

Beste izenak **I** Otros nombres: Bistalegre

Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Udondo)

Etxaldeari ez ezik, inguruko auzuneari ere horrela esaten diote eta gaur egun, Kandelazubieta izeneko kalea dago bertan. Argi dago izena bertan zegoen zubitik datorrela, baina esanahiak ihes egiten digu. Hala ere, Getxon *Kanderuerreka* daukagu eta deigarria da *kandera* hitza errekekin loturik egotea. Kasu honetan *-eta* atzizkiak ez bide du ugaritasun esanahia, lekuarena baizik, Zubieta herri izenean bezala.

Etxalde hau **Bistalagre** izenaz ere ezaguna zen. Bistalegre toponimoa, erdal etimologiaduna bada ere, euskal toponimia nagusi den inguruetan oso erabilia izan da mendeetan eta hori dela-eta euskal grafiaz idaztea zilegi dirudi.

Ikus *Bistalegre*.

Además del caserío, el barrio también lleva el mismo nombre, y hoy en día la calle Kandelazubieta se encuentra en ese lugar. Está claro que el nombre proviene del puente que ahí se encontraba, pero el significado se nos escapa. No obstante, en Getxo tenemos el toponimo *Kanderuerreka* y es significativo que la palabra *kandera* esté unida a ríos. En este caso el sufijo *-eta* no significa abundancia, sino que hace referencia al lugar, al igual que en el caso del nombre del pueblo Zubieta.

Este caserío también era conocido con el nombre **Bistalegre**. Aunque el topónimo Bistalegre sea de etimología castellana, es lícito escribirlo con grafía vasca en los lugares que la toponimia vasca es mayoritaria.

Véase *Bistalegre*.

Kandelazubieta





Kortesena

Kortesena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Kortesene, Kortasene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Aketxe auzoan zegoen etxalde zahar hau lehenengo aldiz, 1704ko fograzioetan ageri da. Udondoko bulebarra egiteko bota zen, eta gaur egun ondoko aparkalekuak hartu du bere izena.

Cortes Nafarroako herri eta erdal abizenetik eratorritako izena da, amaieran *-ena* jabetza atzizkia gehitu zaio. Hain zuzen ere, Juan Kortes Aketxe zen jabea. Inguru horretan ohikoa den bezala, amaierako *-a* itxi egiten da eta *-ene* amaiera hartzen du, *Kortesene*, baina jatorrizko idatzizko forma **Kortesena** da.

Este antiguo caserío de Aketxe aparece por primera vez en las fogueraciones de 1704. Se derruyó para hacer el bulebar de Udondo, y actualmente hay un aparcamiento en esa zona con ese nombre.

El nombre *Cortes* deriva del pueblo navarro y del apellido castellano, al final lleva el sufijo posesivo *-ena*. Como es común en esta zona, se cierra la *-a* final y toma la terminación *-ene*, *Kortesene*, pero la forma escrita original es **Kortesena**. Juan Kortes Aketxe fue el dueño de esta casa.



Kortesenabarri, 2011

Kortesenabarri

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Udalak Kortesena etxaldearen itxuraz eraiki berri duen eraikina da **Kortesenabarri**. Aketxe auzoko **Kortesena** baserri zahar eta desagertuaren izena babesteko helburuarekin eman diote izen berri eta egoki hau.

Ikus *Kortesena*.

Kortesenabarri es un edificio nuevo que el Ayuntamiento ha construido recuperando el nombre del caserío Kortesena. Le han dado este nuevo y apropiado nombre con el fin de proteger el nombre del ya desaparecido edificio **Kortesena**.

Véase *Kortesena*.

Kukularra (-a)Ahoz | Oral: *Kukularre*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxe hau 1745 eta 1799 bitartean eraiki zen, azken urte horretan berria zela zehazten baita. Izen bereko beste etxalde bat zegoen Erandion, baina handik urrun, Gallarraga mendian. Bitxia da garai berekoak baitira.

Izenaren osagaiak *kukua* (animalia, hegaztia) eta *larra* (zelaia) izenak dira. Ahoz amaierako *-a* itxi egiten dute eta *Kukularre* ere esaten diote. Algortan ere horrela deituriko leku bat izan zen, erdaraz “*La campa del cucu*” deitua.

Este caserío se construyó entre 1745 y 1799, ya que ese último año se especifica que era nuevo. Hay otra casa con el mismo nombre en Erandio, pero lejos de esta, en el monte Gallarraga. Esto es el algo singular, ya que son de la misma época.

Los componentes del nombre son *kuku* ‘cucu’ y *larra* ‘campa’. Oralmente se cierra la *-a* final y es conocido como *Kukularre*. En Algorta también hubo un lugar con el mismo nombre y en castellano lo llamaban ‘la campa del cucu’.

Kurtzebekoa (-a)Ahoz | Oral: *Kurtzebeko*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Sarriena)

Askartza auzoko etxe hau 1796an ageri da lehenego aldiz gaur egun desagertuta dagoen Kurtzeagoikorekin batera. Baina, baserriak zaharragoak dira eta hori dela-eta pentsatzekoa da beste izen bat izan zutela lehenago. Kokapena eta 1796 eta 1745eko jabeen izen deiturak aztertuta, argi dago **Askartzabekoa** (Kurtzebekoa) eta **Askartzaerdikoa** (Kurtzeagoikoa) zirela. Azken hau bota zuten orain dela urte batzuk eta bere orubearen ondoan txalet berria eraiki.



Kurtzebekoa

Este caserío de Askartza aparece por primera vez en 1796, junto con el ya desaparecido Kurtzegoikoa. Pero los edificios son más antiguos y por eso se piensa que anteriormente tenían otro nombre. Teniendo en cuenta la localización y los apellidos de los propietarios de 1796 y 1745, está claro que anteriormente eran **Askartzabekoa** (Kurtzebekoa) y **Askartzaerdikoa** (Kurtzegoikoa). Este último fue derruido hace unos años y al lado de su solar se construyó un chalet.

Landabaso

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

XVIII. mendean *Landabaso* izeneko etxe bi baziren ere, *Bekoa* eta *Goikoa*, jakin badakigu 1745erako Landabasogikoa erorita zegoela eta besteari Mantziena esaten zitzaiola.

Ikus *Mantziena*.

En el siglo XVIII había dos casas con el nombre *Landabaso*, *Bekoa* y *Goi-koa*. Pero sabemos que para 1745 *Landabasogikoa* estaba derruida y la otra era conocida como *Mantziena*.

Véase *Mantziena*.

Larragoiena (-a)

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatza auzoko etxalde hau XX. mendekoa da. *Larra*, belardia esan nahi duen hitza, eta *goiena* 'goikoa' hitzaren elkartearen ondorioa. Nolanahi ere, XX. mendekoa izanik, ez dakigu etxeak izena jabearen abizenetik hartuko ote zuen.

Esta casa del barrio Artatza es del siglo XX. El nombre está compuesto de *Larra* 'campa' y *goiena* 'de arriba'. En cualquier caso, al ser un edificio del siglo XX, no sabemos si tomó el nombre del apellido del propietario.

Larrakoetxea (-a)

Ahoz | Oral: *Larrekotze*

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Etxalde hau Sarriena auzotik Peruri auzora doan bidean dago eta 1704ko fogeraioetan dokumentatu denez, XVII. mendekoa dela esan dezakegu.

Izenaren konposizioan *larra* izena *nongo* kasuan deklinatuta agertzen da eta *etxea* izena eransten zaio. Ahozko erabileran artikulua XIX. mende amaieran galdu zuen, baina idatzizko forma egokia osoa da.

Este caserío está en el camino que va del barrio Sarriena al barrio Peruri y como se documenta en las fogueraciones de 1704, podemos decir que es de finales del siglo XVII.



Larrakoetxea

En la composición del nombre aparecen el sustantivo *larra* 'campa' declinado en el caso genitivo de lugar y el sustantivo *etxea* 'casa'. En el uso oral pierde el artículo a finales del siglo XIX, pero la forma escrita completa es **Larrakoetxea**.

Larrauri (Ikus/Véase *Artatzabbarri*).

Laubide

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatza auzoan dagoen XX. mendeko etxalde hau inguruko zaharrena da, **Laubidebarri** eta **Laubidebeko** geroago eraiki baitziren.

Laubide izenak etxe hau dagoen kokapenari egiten dio erreferentzia, bertan lau bide batzen baitira.

Este caserío del siglo XX es el más antiguo del barrio Artatza, las casas **Laubidebarri** y **Laubidebeko** fueron construidas más tarde.

El nombre *Laubide* hace referencia al lugar donde está la casa, ya que ahí se unen cuatro caminos.



Leioa (etxalde-multzoa / Grupo de caseríos)

Leioabekoa (-a), Leioaerdikoa (-a), Leioaosteikoa (-a), Leioaurrekoa (-a),
Leioaelexpuru (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde

Dirudienez, 1704ko fogeraioetan ageri den informazioaren arabera **Leioagoitia** etxalde-multzoaz gain, *Leioa* auzunea ere izan zen. Bertan zeuden Leioabekoa, Leioaerdikoa, Leioaosteikoa, Leioaurrekoa eta Leioaelexpuru.

Azkenekoaren izenak, Elexpuruk alegia, argi erakusten digu kokapena: *eliza* eta *burua* hitzez konposatutako izena baita, elizaren gainean esan nahi duena.

Al parecer y teniendo en cuenta la información de las fogueraciones de 1704, además de la barriada **Leioagoitia** también había otra llamada *Leioa*, compuesta por los caseríos **Leioabekoa**, **Leioaerdikoa**, **Leioaostekoa**, **Leioaurrekoa** y **Leioaelexpuru**.

El nombre de este último, Elexpuru, enseña claramente la localización. Está compuesto por las palabras *eliza* 'iglesia' y *burua* 'cima' e indica que el caserío estaba encima de la iglesia.

Leioagoitia (-a)

Ahoz I Oral: *Leyunti*

Auzoa I Barrio: Elexalde

Elexalde auzoko etxalderik zaharrena da eta baliteke udalerriko zaharrena ere izatea. XIX. mende amaiera arte honekin batera multzoa osatzen zuten beste etxalde batzuk zeuden: **Leioagoitiabekoa**, **Leioagoitiaerdikoa**, **Leioagoitiagoikoetxea** eta **Leioagoitiaosteikoa**.

Dokumentaziorik zaharrenean, XVIII. mendetik XIX. mende amaiera arte, *Lejona* bezala dokumentatzen da lehen elementua. Dena den, gaur egungo ahoskera eta dokumentazioak erakusten du Leioa zela ahoskera euskaldunena. Aurrerago, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran, *Leyuntegi* eta *Leyunti* formak dokumentatzen dira, baina forma horiek ez dira zuzenak. *Leioandi* forma ere dokumentatzen da, eta zenbait mapatan leku berean ageri dira; beraz, pentsatzekoa da **Leioagoitia** zela etxaldearen jatorrizko izena eta gerora *Leioandi* deitu diotela, etimologia oker bati jarraiturik. Dena dela, aldaketa ez da inon jaso.

Gure irudiko, *Leionagoitia* > *Leioagoitia* aldaketa gauzatzean desagertutako *-n*-ak eragin zion *-a*- bokalari, sudurkari eginez (Portugalen gaur egun ohikoak dira soinu horiek), eta gero birsortu egin zen. Hau ez da gertaera bitxia, eta *Arenatza* toponimo zaharretik *Areatza* eta *Areantza* sortu dira. Beraz, *Leioangotia* sortu zen eta handik ohikoena da *Leyunti*.

*Leioagoitia*

Es el caserío más antiguo de Elexalde y puede que sea el más antiguo del municipio. Hasta finales del siglo XIX había otros caseríos, que junto con este, formaban un barrio: **Leioagoitiabekoa**, **Leioagoitiaerdikoa**, **Leioagoitiagoikoetxea** y **Leioagoitiaosteikoa**.

En la documentación más antigua, desde el siglo XVIII hasta finales del siglo XIX, el primer elemento aparece como *Lejona*. Pero la pronunciación actual y documentación moderna nos demuestran que la pronunciación popular era Leioa. A finales del siglo XIX y principios del XX, en el archivo se encuentran las formas *Leyuntegi* y *Leyunti*. También se documenta la forma *Leioandi* y en algunos mapas se localiza en el mismo lugar, por lo que podemos deducir que el nombre original era **Leioagoitia** y después tomó el nombre *Leioandi*, siguiendo una etimología errónea, al entender que detrás de *Leioanti* estaba *handi* 'grande'. De todos modos, ese cambio no se recoge en ninguna parte.

En nuestra opinión, en el cambio *Leionagoitia* > *Leioagoitia* la desaparición de la *-n* influyó en la vocal *-a*, nasalizándola (esos sonidos son habituales en Portugal) y después volvió a aparecer. Este cambio no es nada extraño, del viejo topónimo *Arenatza* han derivado *Areatza* y *Arentza*. Por lo tanto, *Leioangoitia* y de ahí *Leyunti*.



Lertutza, 2011

Lertutza

Ahoz | Oral: *Lertutze*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Etxe honen izenaren historia bitxia da, 1649an ageri arren, ez delako 1704an eta 1745ean egindako etxe zerrendetan ageri, bai ordea 1796an.

XX. mende erdialdean **Lertutzabarri** izeneko etxalde bat da *Lertutza* urtegitik gertu. Gaur egun **Lertutzabarri** izeneko beste etxe bat dago **Lertutza** etxaldearen ondoan, etxe horren plakak 2007koa dela dio. Etimologia iluna da, baina badirudi *lehor* hitza egon daitekeela izen honen atzean.

La historia de este nombre es algo extraña, ya que a pesar de aparecer en la documentación de 1649, no aparece en las listas de caseríos de 1704 y 1745, pero sí en 1796.

A mediados del siglo XX hay un caserío llamado **Lertutzabarri** cerca del pantano *Lertutza*. Hoy día hay otra casa con el mismo nombre al lado del caserío **Lertutza**, y en la placa de la casa dice que es de 2007. La etimología es desconocida, pero podría tener algo que ver con la palabra *lehor* ‘seco’.

Lukitxuena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz I Oral: *Lukitzune*

Auzoa I Barrio: Elexalde (Santsoena)

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrean, Bidaurratzaga inguruan, **Lukitxuena** etxaldea zegoen; Erandioko mugan, **Libao** baserrien inguruan. Unibertsitatea eraiki zen garaian desagertu zen baserria, baina bi udalerrietako toponimian bizirik jarraitzen du izenak, **Lukitxuenabaso** toponimoa topatzen baitugu han inguruan. Etxaldea lehenengoz XVIII. mende amaierako sutegetian jaso zen. Eleizalde egindako 1932ko leku-izenen bilketa batean “Lukitxieta o Bidaurratzaga” jaso zuen, eta, horregatik eta XVIII. mendeko dokumentazioaren azterketatik, badakigu hau dela 1704an Bidaurratzaga izenaz ageri ziren etxeetako bat, bestea Alkatena zen. Hori bai, ezin da jakin hau *ostekoa* ala *erdikoa* ote zen.

Lukia ‘azeria’ da Bizkaiko eskualde honetan eta inguru honetan asko erabiltzen da. Izena latineko *lucius*-etik dator (*azeri* hitza, *asenarius* izenetik bezala), ezin baita pizti hau bere izena erabiliz aipatu, horrelakorik egitekotan agertuko baita. Gertaera hau hizkuntza ainitzetan dago eta horregatik gaztelaniaz *raposo* (buztanduna) edo *zorra* (portugesez *emalgaldua*). *Lukitxu* zalantzarik gabe etxe hartako jabe edo bizilagunaren ezizena izango zen amaierako *-ena* genitibo atzizkiak adierazten digun bezala.

Delante de la Universidad del País Vasco, en la zona de Bidaurratzaga, estaba el caserío Lukitxuena; en el límite con Erandio, cerca de los caseríos **Libao**. El caserío desapareció cuando se construyó la universidad, pero el topónimo sigue vivo en los dos municipios, en esa zona se encuentra el topónimo **Lukitxuenabaso**. El nombre del caserío se recoge por primera vez en las fogueraciones de finales del siglo XVIII. En una lista de nombres que recoge Eleizalde en 1932 aparece “Lukitxieta o Bidaurratzaga” y por eso y analizando la documentación del siglo XVIII, sabemos que esta es una de las casas que en 1704 aparece como Bidaurratzaga y la otra era Alkatena. Pero no podemos saber si esta era *ostekoa* o *erdikoa*.

Lukia significa 'zorro' en esta zona de Bizkaia y se utiliza mucho. El nombre viene del latín *Lucius* (al igual que *azeri* de *Asenarius*), ya que no se puede mencionar a este animal con su nombre porque entonces aparecerá. Esto sucede en muchos idiomas y por eso se le llama *raposo* 'que tiene cola' en castellano o *zorra* 'prostituta' en portugués. Seguramente *Lukitxu* sería el sobrenombre del propietario de la casa, tal y como nos indica el sufijo de posesión *-ena*.

Madariarte

Auzoa | Barrio: Artatza (Peruri)

Peruri auzoko etxe berri honen lehenengo aipamena 1950. urtekoa da. *Madari* eta *arte* posposizioarekin sortutako toponimoa da.

Las primeras citas de esta casa de Peruri son de 1950. El nombre se compone de *madari* 'pera' y de la posposición *arte* 'entre'.



Madariarte, 2011

Malabadena (-a) (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Malabadene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondo auzoan zegoen etxalde hau lehenengoz 1745eko sutegetan dokumentatu da; beraz, pentsatzekoa da XVIII. mende hasieran erakitakoa dela. Azkenekoz 1950ean dokumentatzen da, eta gaur egun **Malabadena** etxaldea zegoen lekuan; inguruan industria-gune handia topatzen dugu.

Izenaren bigarren osagaia *-ena* jabego atzizkia da; beraz, lehenengo elementua antroponimoa edo abizena dela pentsa dezakegu, edota agian *mal abad* 'abade txarra', Getxon esaterako, *Malzapatariena* dugu, baina elementu iluna da nolana ere.

Este caserío del barrio Udondo se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1745; por tanto, podemos pensar que fue construido a principios del siglo XVIII. Aparece por última vez en 1950 y hoy día, en la zona donde se encontraba **Malabadena**, hay una gran zona industrial.

El segundo componente del nombre es el sufijo posesivo *-ena*; por tanto, podemos pensar que el primero será un antropónimo o apellido. O quizás 'mal abad', en Getxo, por ejemplo, se recoge el topónimo *Malzapatariena*, pero de todos modos es un elemento oscuro.

Mantziena (-a)Ahoz | Oral: *Mantzine*

Beste izenak | Otros nombres: Mantzienazarra (-a), Landabasobekoa (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxalde honek izen aldaketa izan zuen XVIII. mendeko bigarren zatian eta *Landabasobekoa* izatetik *Landabasomantziena* izatera aldatu zen, eta, azkenean, *Landabaso* osagaia galdu. **Mantziena** eta **Mantzienabarri** etxaldeek lotura handia izan dute ondoan dituzten Erandioko **Landabaso** etxalde-multzoko etxeekin.



Mantziena, 2011

Mantzi euskal izena eta *-ena* jabetgo atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Mantzine* esaten diote. XIX. mende hasieran etxe berri bat eraiki zen eta **Mantzienabarri** izena hartu zuen. Hori dela eta, jatorrizkoari *-zarra* adjektiboa gehitu zitzaion eta zenbait dokumentutan Mantzienazarra izenaz ere dokumentaturik agertzen da.

Gainera, zenbait dokumentutan, XX. mende hasierakoetan, Mantzienagoikoa izena ere jasotzen da, ez dakigu, ordea, aurreko bietako bati egiten dion erreferentzia edo hirugarren bati.

Etxe izen honekin eraiki da **Mantzialde** toponimoa, inguruko lursail bat izendatzeko erabiltzen dena eta Erandioko lurretan dagoena.

Este caserío de *Santi Mami* cambió de denominación en la segunda mitad del siglo XVIII. Pasó de ser *Landabasobekoa* a ser *Landabasomantziena* y, finalmente, perdió el nombre *Landabaso*. **Mantziena** y **Mantzienabarri** han estado muy unidos al grupo de caseríos **Landabaso** de Erandio.

La denominación deriva del nombre *Mantzi* y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente se cierra la *-a* final y es conocido como *Mantzine*. A principios del siglo XIX se construyó una casa nueva con el nombre **Mantzienabbarri** y por eso a esta casa se le añadió al adjetivo *zarra* 'viejo', y así aparece en algunos documentos. Además, en otros documentos de principios del siglo XX también se recoge el nombre *Mantzienagoikoa*, pero no sabemos si hace referencia a alguno de las anteriores o a un tercer caserío.

Con este nombre se ha construido el topónimo *Mantzialde* para nombrar un terreno que está en Erandio.

Mariena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz **I** Oral: *Marine*

Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondoko etxe hau XX. mende erdialdean dokumentatzen da lehenengoz, baina Ana Lopezek *Leioa: Historian zehar* liburuan XVI. mendekotzat jotzen du.

Ahoz *Marine* esaten diote eta dokumentazioan ere horrela agertzen da. Hala ere, jatorrizko forma *Mari* eta *-ena* jabego atzizkitik eratorritakoa da.

Esta casa se documenta por primera vez a mediados del siglo XX, pero Ana Lopez en su libro *Leioa: Historian zehar* la considera del siglo XVI.

Oralmente es conocido como *Marine* y en la documentación también se recoge esa forma. De todos modos, el nombre original deriva de *Mari* y del sufijo posesivo *-ena*.

Martibarrena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz **I** Oral: *Martibarrene*

Auzoa **I** Barrio: Elexalde

XVIII. mendeko etxalde zahar hau **Elexaldebolu** errotara zihuan aldapan zegoen. XX. mende erdialdean desagertu zen, Segundo Jaurregizuriak bere liburuan adierazten duen bezala.



Martibarrena

Gaur egun izen hau bertako inguruan dagoen aparkaleku batek hartu du.

Jonzabalena etxearekin gertatzen den bezala, toponimo hau izen-abizenek osatzen dute: *Marti(n)* eta *Barrena*. Kasu honetan ez darama *-ena* jabego atzizkia, ziurrenik *-ena* birritan errepikatzeak ekar lezakeen zailtasunagatik: *Martibarrenena*. Beste aukera bat *Martibarren* ezizena izatea litzateke eta horri *-ena* atzizkia gehitu izana.

Este viejo caserío del siglo XVIII estaba en la cuesta que iba al molino **El-xaldebolu**. Desapareció en el siglo XX y Secundo Jauregizuria dice lo siguiente en su libro:

«Me contaba una tía mía, la tía Valentina, que los del caserío MARTIBARRENE eran gentes de buen gusto, pues tenían siempre alrededor del mismo grandes cantidades de flores de todo tipo y, con ellos no tenían nada de eso en las cercanías del molino, hizo más de una escapada para robarles bastantes aneros, rosas, etc. Y que cuando lo tuvo que confesar con el párroco, éste le echó una buena bronca».

Hoy en día, este nombre lo ha tomado un aparcamiento que hay en la zona.

Al igual que en el caso de **Jonzabalena**, el topónimo está compuesto de el nombre y el apellido: *Marti(n)* y *Barrena*. En este caso no lleva el sufijo posesivo *-ena*, seguramente por la dificultad que supondría repetir dos veces *-ena*: *Martibarrenena*. Otra posibilidad es que *Martibarren* fuera un sobrenombre y se le hubiera añadido el sufijo *-ena*.



Mateoena (Sarriena)

Mateoena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Matone, Mateone*

Auzoa | Barrio: Elexalde

Berriki desagertu den etxalde hau Errekalde plaza dagoen lekuan zegoen, Kultur Leioa dagoen lekuan bertan. Hala ere, dirudienez, gaur egun *Matone* izenaz ere ezaguna da Sarriengan dagoen beste etxalde bat. Era berean, esan beharra dago Getxon ere izen bereko etxaldea topatzen dugula.

Ahoz *Matone* esaten zioten izen horren atzean *Mateo* pertsona izena eta *-ena* jabego atzizkia daude.

Esta casa, recientemente desaparecida, se encontraba en la zona donde actualmente está la plaza Errekalde y Kultur Leioa. De todos modos, hoy en día hay otro caserío conocido con el mismo nombre en Sarriena. En Getxo también hay otro edificio llamado así.

Oralmente es conocido como *Matone*, aunque es un compuesto del nombre *Mateo* y del sufijo posesivo *-ena*: *La casa de Mateo*.



Mateoena (Kultur Leioa)



Matximoena, 2011

Matximoneña (-a)

Auzoa | Barrio: *Matzimone*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxea. XVIII. mende amaierakoa.

Matximoneña erabiltzen da Erdialdeko Amerikan kristautasuna eta ma-yen sinesmenak uztartzen dituen izaki bat izendatzeko. Izena San Simonetik sortu zen. Agian Ameriketako izen hori eta toponimo honetan dugun *Matximoneña*, oinarrian, izen bera dute, Simon. Hala ere, gure kasua *Batxi*-ren aldaera den *Matxi* dugula ematen du (*Bautista Simon*); Getxon ere, bada *Matxikortitiña* izeneko etxea, *Batxi*, izena, *Kortina* deitura eta *-ena* atzizkiak biltzen dituena.

XX. mendean **Matximoneñabarri** izeneko etxea eraiki zen.

Esta casa del barrio Ondiz es de finales del siglo XVIII.

El nombre *Matximón* se usa en Centroamérica para referirse a un ser que combina la creencia cristiana y la maya. El nombre proviene de *San Simón*. Puede que el nombre de América y el del caserío tengan la misma procedencia, Simón, pero parece ser que tenemos la variante *Matxi*, de *Batxi* 'Bautista' y el nombre Simón; en Getxo también tenemos la casa *Matxikortitiñe* que se compone de *Batxi*, el apellido *Kortina* y el sufijo posesivo *-ena*.

En el siglo XX se construyó la casa **Matximonenabarri**.

Mendibil

Ahoz | Oral: *Mendibille*

Beste izenak | Otros nombres: *Mendibilbekoa* (-a), *Mendibilzarra* (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (*Mendibil*)

Mendibil etxalde zaharra da. Gaur egun, besteak beste, Leioako eskaintza sozio-kulturalerako erabilera anitzeko hainbat areto eraiki dituzte eraikin horretan eta Bizkaiko Txakolinaren egoitza ere bada.

Dokumentazioa arakatuta, ugariak dira *Mendibil* izenarekin eraturako etxe-izenak eta zaila suertatzen da lotura zuzenak egitea; baina, badirudi, garai batean **Mendibilbekoa** edo **Mendibil** zena, gaur egun **Mendibil** izenaz ezagutzen dugun jauregia izatea. **Mendibilzarra** izenaz ere jaso da.

Etimologiari dagokionez, argi dago lehen elementua *mendi* dela eta bigarrena toponimian arrunta den *-bil*, hiztegi arrunteko *biribil* hitzaren aurrekoa. Adituen ustez, *biribil* hitza *bil-bil*-etik sortu zen eta hori dela eta, leku izenetan *-bil* besterik ez dugu aurkitzen. Karteletan ikusten den amaierako *-e* hori ahozko erabileraren ondorioz gehitutakoa da, deklinabide okerraren ondorioz eta oso fenomeno berria; beraz, forma zuzena **Mendibil** da eta ez *Mendibile*.



Mendibil

Mendibil es un antiguo caserío. Hoy en día tiene varias salas para el uso sociocultural de Leioa y también es la casa del chacolí de Bizkaia.

Analizando la documentación se pueden encontrar muchas casas con el nombre Mendibil y es difícil relacionarlas, pero parece ser que la que en una época era **Mendibilbekoa** o **Mendibil**. También se ha recogido como **Mendibilzarra** (Mendibil 'la vieja').

En lo referente a la etimología, está claro que el primer elemento es *mendi* 'monte' y el segundo el tan común en la toponimia *bil* (de *biribil*, 'redondo'). Según los expertos, la palabra *biribil* surgió de *bil-bil* y por esa razón en toponimia es habitual que aparezca solamente *bil*. La vocal -e final se ha añadido con el uso oral a causa de un uso erróneo de la declinación; es un fenómeno nuevo y la forma correcta es **Mendibil** y no *Mendibile*.



Mendibilaurrekoa, 1999

Mendibilaurrekoa (-a)

Beste izenak | Otros nombres: Mendibilgoikoa (-a)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Mendibil)

Elexalde eta Santi Mami auzoen artean dagoen etxaldea, **Mendibil** jauregiaren ondoan. **Mendibilaurrekoa** izenaz ezagunagoa bada ere, **Mendibilgoikoa** izena ere erabili da baserri hau izendatzeko.

Ikus *Mendibil*.

Este caserío está entre los barrios Elexalde y Santi Mami, al lado del palacio **Mendibil**. Aunque es más conocido como **Mendibilaurrekoa**, también se conoce como **Menbilgoikoa**.

Véase *Mendibil*.

Mendibilbarri (desagertua / desaparecido)

Auzoa ■ Barrio: Elexalde (Mendibil)

Garai batean Mendibil etxalde-multzoko etxea zen. Eraikin honek gaur egun inguru horretan dagoen kale bati izena ematen dio.

Ikus *Mendibil*.

En una época fue parte del grupo de casas Mendibil, hoy da nombre a una calle de esa zona.

Véase *Mendibil*.

Mendibilosteikoa (-a) (desagertua / desaparecido)

Beste izenak ■ Otros nombres: Mendibilerdikoa (-a)

Auzoa ■ Barrio: Elexalde (Mendibil)

Aspaldi desagertutako etxalde hau XVII. mendekoa zen. Gaur egun, izen bereko kalea dago, Udalak desagertutako etxalde zahar honen izena gorde eta inguruko toponimia berreskuratzeko asmoz jarri duena. Hainbat dira *Mendibil* etxeak deitzeko erabilitako izenak: Mendibil, Mendibilaurrekoa, Mendibilbarri, Mendibilerdikoa, Mendibilgoikoa, Menbilbekoa, Mendibilosteikoa eta Mendibilzarra.

1745ean baino lekukotu ez den Mendibilerdikoa izeneko etxea, babiliteke hauxe berau izatea; izan ere, 1704ko eta 1796ko dokumentazioan aurkitu bada ere, ez zen 1745ekoan jaso, eta, beraz, beste izenen batekin jasoko zela pentsatzen dugu, hain zuzen ere *Mendivil erdicoa* formarekin.

Este caserío desapareció hace tiempo y era del siglo XVII. Hoy en día, hay una calle con el mismo nombre con intención de preservar la toponimia de la zona. Son varios los nombres con los que documentamos las casas de *Mendibil*: Mendibil, Mendibilaurrekoa, Mendibilbarri, Mendibilerdikoa, Mendibilgoikoa, Menbilbekoa, Mendibilosteikoa y Mendibilzarra.

La casa Mendibilerdikoa que tan sólo se documenta en 1745, podría ser esta misma, ya que aunque aparece en 1704 y 1796 no se recoge en 1745. Por lo tanto, podemos pensar que se recogió con otro nombre como, por ejemplo, *Mendivil erdicoa*.

Motxorrena

Auzoa | Barrio: Sarriena

Sarriena izena berria da eta auzo honi lehenago Ubeda esaten zioten. Bertako etxeak hauek ziren: **Ubedaerdikoa**, **Ubedagoikoa** eta **Ubedaosteikoa**; baina, XVIII. mendearen amaierarako Ubeda izena galdurik zuten eta **Motxorrena**, **Sarriena** eta **Libanoena** izena ziztuzten, hurrenez hurren. Izen honen osagaiak *motxor* ‘enborra’ edo ‘txikia’ eta *-ena* atzikia dira.

El nombre Sarriena es nuevo y este barrio anteriormente se llamaba Ubeda. Lo componían las casas: **Ubedaerdikoa**, **Ubedagoikoa** y **Ubedaosteikoa**, pero a finales de XVIII se perdió en nombre Ubeda y las casas pasaron a llamarse Motxorrena, Sarriena y Libanoena. Los componentes de este nombre son *motxor* ‘tronco’ o ‘pequeño’ y el sufijo *-ena*.

Munagorri

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Ellexaldeko etxe berri hau Artatzagana auzorako bidean dago, eta *muna* eta *gorri* hitzez konposatutako toponimoa da.

Esta casa nueva está en el camino a Artatzagana y se compone de las palabras *muna* (de *muno*, ‘colina’) y *gorri* ‘rojo’.





Ollarrena

Ollarrena

Auzoa | Barrio: Elexalde

Etxe hau 1796an ageri da izen horrekin, baina ezin izan dugu jakin zein zen jatorrizkoa, *Leioaurrea* edo *Iñaurritzaga*. Izenaren osagaiak *oilar* abere izena, ezizen moduan erabilia, eta *-ena* atzizkia dira. Udalararen aurreko plazaren azpiko aldean zegoen.

Esta casa aparece con ese nombre en 1796, pero no podemos saber cuál es el original: *Leioaurrea* o *Iñaurritzaga*. El nombre deriva de la palabra *oilar* 'gallo', utilizado como sobrenombre, y del sufijo *-ena*. Estaba debajo de la plaza del ayuntamiento.



Ondizdorrea

Ondiztorre

Ahoz | Oral: *Torra*

Beste izenak | Otros nombres: *Torra (-a)*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko dorretxe hau (hobeki esanda, dorretxe itxurazko etxebizitza) XVI. mendean eraiki zen eta Altagarekin batera, Leioako bakarrenetarikoak eta zaharrenetarikoak ditugu. Gotorlekuekin gertatu bezala, muino baten gainean eraiki zen.

XIII eta XIV. mendeetako leinuen arteko guduetan gotorleku inportantea izan zen Artatzakoa eta Gaztelueta izenekoarekin batera, azken hori gaur egun **La Boronita** (*borona* hitza gaztelaniaz 'artoa' da) izenez ezagutzen den lekuan zegoen. Ondizko Andra Maria ermita bera ere, garai batean, gotorleku egin zuten.

Altaga dorretxearekin gertatu zen bezala, eraikin hau zaharberritu egin zen hainbatetan; hala ere, oraindik ere zenbait elementu gotiko ditu, jatorriaren berri ematen digutenak.

Ondiz da izen soila, hala ere, *OndizTorre* edo erdaratutako *Torre* (de) *Ondiz* bezalako formak ere dokumentatzen dira. Ahoz, *Torrea* izenaz ezagunagoa da. Izan ere, *Ondiz* izena auzoa izendatzeko erabili ohi da.

Ondiz izenaren etimoa edo esanahia zeharo iluna da, baina *-iz* amaierak jabetza adierazten duenez, aurreko osagaia pertsona izena dela pentsatu behar dugu *Ondi* edo *Onti* ziurrenik, agian Lusitanian Erromatar garaian dokumentatutako *Ontius*-etik datorrena.

Esta casa-torre de Ondiz (o mejor dicho, casa con forma de torre) es del siglo XVI y, junto con la de Alzaga, es de las más antiguas de Leioa. Al igual que los fuertes se construyeron en las zonas dominantes.

Durante las guerras entre los linajes de los siglos XIII y XIV fue un fuerte muy importante junto con los de Artatza y Gaztelueta. Este último estaba donde hoy se encuentra el lugar conocido como **La Boronita**. En una época, la ermita Andra Maria de Ondiz también fue un fuerte.

Al igual que sucedió con la casa torre de Alzaga, este edificio se ha renovado varias veces; de todos modos, aún conserva algunos elementos góticos que nos indican su origen.

El nombre de este edificio es *Ondiz*, pero también se documentan formas como *OndizTorre*, castellanizado como *Torre* (de) *Ondiz*. Oralmente es conocida como *Torrea*, puesto que *Ondiz* se utiliza para referirse al barrio.

El significado o el étimo de la palabra *Ondiz* es completamente oscuro, pero teniendo en cuenta que la terminación *-iz* significa propiedad, podemos pensar que el primer elemento sería el nombre de una persona como *Ondi* u *Onti*. Quizás *Ontius*, documentado en Lusitania en la época romana.

Osteinkoa (Ikus / Véase *Zuhatzuosteinkoa*).

Otsobarrena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Otzobarrene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Udondo eta Aketxe artean zegoen XVIII. mende erdialdeko etxaldea. Duela gutxi bota eta inguru horretan etxe berriak eraiki zituzten, gaur egun bertako kale batek **Otsobarrena** izena jaso du.

*Otsobarrena*

Otsoa eta *Barrena* abizenetik sortutako izen elkartua izan daiteke. Ahoz *Otsobarrene* esaten diote *-e* paragogikoa erabiliz. *Otsoa* Erdi Aroko euskal izen arrunta zen, geroago deitura ere bihurtu zena. Gaztelaniaz ez dagoenez *-ts-* soinua irudikatzeko letrarik *Ochoa* bihurtu zen, baina euskal ebakeran *Otsoa* zein *Otzoa*, mendebaldean, gorde zen.

Caserío de mediados del siglo XVIII que se encontraba entre Udondo y Aketxe. Fue derruido hace poco y se han construido casas nuevas, hoy día una calle de la zona ha tomado el nombre **Otsobarrena**.

El nombre podría derivar de la composición de *Otsoa* y del apellido *Barrena*. Oralmente es conocido como *Otsobarrene*, usando *-e* paragógica. *Otsoa* era un nombre vasco habitual de la Edad Media que se convirtió en apellido. Como en castellano no hay letras para referirse al sonido *-ts-*, se convirtió en *Ochoa*, pero en euskera se han mantenido tanto *Otsoa* como *Otzoa*.



Otsotena, 2011

Otsotena (-a)

Ahoz | Oral: *Otzotene*

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza auzoan dagoen etxe honek, herriko beste askok bezala, izena aldatu zuen XVIII. mendean. Hasieran *Artatzaosteikoa* zen eta horrela ageri da 1704an eta 1745ean, baina 1796an *Artatzaotsotena* moduan ageri da. Azkenik, Artatza galdu eta Otsotena bihurtu zen. *Otsote* ezizena eta *-ena* jabego atzizkitik eratorritako toponimoa da. *Otsote* arrunta zen Erdi Aroan eta osagaiak *Otsoa* pertsona izena eta *-te* atzizkia dira. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Otzotene* esaten diote.

Esta casa del barrio Artatza, al igual que muchas otras, cambió su nombre en el siglo XVIII. En un principio era *Artatzaosteikoa* y así se documenta en 1704 y 1745, pero en 1796 aparece como *Artatzaotsotena*. Finalmente perdió el nombre del barrio y quedó como Otsotena. El nombre deriva del sobrenombre

Otsote y del sufijo posesivo *-ena*. *Otsote* era un sobrenombre muy común en la Edad Media y se componía del nombre de persona *Otsoa* y del sufijo *-te*. Oralmente, como es habitual en la zona, es conocido como *Otzotene*.

Pepetxuena (-a)

Ahoz | Oral: *Pepetzune*

Beste izenak | Otros nombres: *Pepena (-a)*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Santi Mami auzoko etxe berri hau lehenengoz 1950ean dokumentatu da. Etxaldearen izena *Pepe* edo *Pepetxu* hipokorísticoaz eta *-ena* atzizkiak osatuta dago. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, *Pepene* edo *Pepetxune* esaten diote.

Esta casa nueva del barrio Santi Mami se documenta por primera vez en 1950. El nombre deriva del hipocorístico *Pepe* o *Pepetxu* y del sufijo *-ena*. Oralmente se cierra la *-a* final y es conocido como *Pepene* o *Pepetxune*.

Peruri

Ahoz | Oral: *Peruri*

Beste izenak | Otros nombres: *Perurinagusia (-a)*

Auzoa | Barrio: Artatza (Peruri)

Gaur egun Peruri auzo moduan ezagunagoa bada ere, etxalde bat ere bada, hain zuzen ere, auzoari izena ematen dion baserriarena. Etimoari dagokionez, bi elementu edo hitz bereizten dira: *Peru*, Pedro erromantzezko izenaren euskarazko antroponimoa, eta *uri* (*hiri* hitzaren bizkaierazko forma). Esanahia beraz, ‘Peruren etxea’ da, izan ere *uri* hitzak (batuaz *hiri*) ‘herri-gunea’ esanahiaz gain, ‘etxea’ ere esan nahi zuen.

Peruri izeneko auzotxoa ere bada eta bertan, besteak beste, desagertutako beste etxalde izen batzuk ditugu: **Perurigoikoa** (XVIII. mendean dokumentatua), **Peruribarria** eta **Peruritxu** (XVIII. mendean dokumentatua) ditugu. Azken izen hori beharbada Peruri auzoko **Etxatxu** izeneko baserriarekin lotu daiteke, baina datuak faltan daude.



Peruri, 2011

Hoy en día Peruri es más conocido como una zona, pero en origen es el caserío que da nombre al barrio. En lo que se refiere al étimo, podemos distinguir dos elementos: *Peru*, antropónimo vasco de Pedro, y *uri* (la forma vizcaína de *hiri* 'villa' o 'casa'; 'la casa de Peru').

También existe el grupo de casas Peruri, y, entre otros, se recogen los nombres de casas ya desaparecidas como **Perurigoikoa** (documentada en el siglo XVIII), **Peruribarría** y **Peruritxu**. Quizás este último se pueda relacionar con el caserío **Etxatxu** de Peruri, pero no hay datos suficientes.





Pikaranda eta *Pikarandagoikoa*

Ahoz I Oral: *Pikaranda*, *Pikeranda*

Auzoa I Barrio: Artatza (Peruri)

Peruri auzoko etxalde hau 1704ko fogerazioetan agertzen da lehenengoz, XVII. mendekoa da. Dokumentuetan hainbat forma ageri dira: *Picaranda* (1704), *Picalanda* (1745), *Piquelanda* (1796), *Piqueranda* (1858) edo *Pikarondo* (1915). Hala ere, jatorrizko forma **Pikaranda** da eta gorago dagoen **Pikarandagoikoa** etxaldearekin bikotea egiten du.

Badirudi lehenengo osagaia *piku* dugula, konposatuetan *pika* bihurtua. *Arandia* bigarren osagaia nahiko toponimo arrunta da eta *aran* (*Prunus spinosa*) zuhaitza eta *handia* adjektiboaz osatzen da (*aran* + *handia* = *arandia*).



Pikaranda, 2011

Este caserío de Peruri aparece por primera vez en las fogueraciones de 1704, es por tanto del siglo XVII. En la documentación se recoge de diferentes formas: *Picaranda* (1704), *Picalanda* (1745), *Piquelanda* (1796), *Piqueranda* (1858) o *Pikarondo* (1915). De todos modos, la forma original es **Pikaranda** y es pareja del caserío **Pikarandagoikoa** que está más arriba.

Parece ser que el primer elemento es *piku* 'higo', *pika* en composición. *Arandia* es un topónimo bastante común compuesto de *aran* (*Prunus spinosa*) 'endrino' y *handia* 'grande'.

Sagasti

Ahoz **I** Oral: *Sagasti*

Auzoa **I** Barrio: Elexalde (Ondiz)

Ondiz auzoko etxalde hau XVII. mendekoa da. 1704ko fogerazioetan *Hóndiz de Zugasti* era dokumentatzen bada ere, beste guztietan eta ahoz, *Sagasti* dugu. Antzina sagarra oso elikagai garrantzitsua zen eta bi erataratan jaten zen, sagardoa eginda, hilabete luzez gordetzeko sistema, edo siku.

Este caserío de Ondiz es del siglo XVII. En 1704 se documenta como *Hóndiz de Zugasti*, pero en el resto de la documentación y oralmente aparece como *Sagasti*. Antiguamente la manzana 'sagarra' era un alimento muy importante y se consumía de dos formas: hecha sidra o seca.



Sagasti, 2011

Saltuena (-a) (desagertua / desaparecido)Ahoz I Oral: *Saltune*

Auzoa I Barrio: Elexalde (Santi Mami)

Berriki desagertu den etxalde hau Santi Mami auzoan zegoen. XVIII. mendeko sutegietan bi etxalde ageri ziren izen berarekin, ziuurrenik bata bestearen ondoan egongo ziren. Etxaldearen izena *Saltu* (ezizena ziuurrenik) eta *-ena* jabego atzizkiaz osatua dago. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amairako *-a* itxi egiten da eta *Saltune* esaten zaio.

Este caserío recientemente desaparecido estaba en el barrio Santi Mami. En las fogueraciones del siglo XVIII aparecen dos caseríos con el mismo nombre, seguramente estarían el uno al lado del otro. El nombre del caserío se compone de *Saltu*, sobrenombre seguramente, y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es habitual en la zona, se cierra la *-a* final y es conocido como *Saltune*.

Sarriena (-a)

Auzoa I Barrio: Elexalde (Sarriena)

XVIII. mendean Ubeda Leioako auzoetako bat zen eta bertan hainbat etxe zeuden, gehienak izenaren barruan *Ubeda-* osagaia zutenak (*Ubedaerdikoa*, *Ubedagoikoa* eta *Ubedaosteikoa*), baina 1745erako etxe batzuek



Sarriena

jabearen aipua hartu zuten izentzat eta izenez aldatu. Haietako bat *Sarriena* izan zen. Denborarekin *Sarriena* izenak berak ordezkatu zuen *Ubeda* baserriarena, eta egun auzoari ere ematen dio izena. Osagaiak Getxoko *Sarria* abizena eta *-ena* jabego atzizkia dira.

En el siglo XVIII Ubeda era un barrio de Leioa en el que había diversas casas, la mayoría llevaban *Ubeda-* en el nombre (*Ubedaerdikoa*, *Ubedagoikoa* y *Ubedaosteikoa*), pero para 1745 algunas tomaron el sobrenombre del propietario y cambiaron de denominación. Una de ellas fue *Sarriena*. Con el tiempo en mismo nombre *Sarriena* ha sustituido *Ubeda* y hoy en día denomina al barrio. Los componentes de este nuevo nombre son el apellido de Getxo *Sarria* y el sufijo posesivo *-ena*.

Sertutxena (-a)

Ahoz I Oral: *Sertutxene*

Auzoa I Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondoko etxaldea, 1704ko sutebietan dokumentatu da lehenengoz *Sertuchena* formarekin. Gaur egun, inguru honetan zutik dagoen etxalde zahar bakarrenetakoa dugu. Erandioko udal agiritegiko 1894ko dokumentu baten arabera, *Sertuechemenor* eta *Sertueche* izeneko bi etxe ezberdin dokumentatzen dira, ziurrenik bata bestearen osagarri izango ziren.

Sertutxa Sopelako abizena da eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Sertutxene* esaten zaio. Algortan ere *Sertutxena* izeneko etxe bat dago.

Este caserío de Udondo se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1704 como *Sertuchena*. Hoy en día es de los pocos caseríos que permanece en la zona. En el archivo municipal de Erandio de 1894 se documentan los caseríos *Sertuechemenor* y *Sertueche*, seguramente estarían el uno al lado del otro.

El nombre del caserío deriva del apellido de Sopela *Sertutxa* y del sufijo de posesión *-ena*. Oralmente, y como es común en la zona, se cierra la *-a* final, y es conocido como *Sertutxene*. En Algorta también hay otra casa con el mismo nombre.



Sertutxena

Sesumaga

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza auzoan dagoen etxe honen izena 1667. urtetik dokumentatzen da *Çeçumaga* formarekin. Hala ere, badirudi etxearen izena baino abizena dela, *Esesumaga* etxaldea Getxoko Baserri auzoan baitago, Martiartutorretik metro batzuetara, Leioa, Getxo, Berango eta Erandio hurbiltzen diren inguruan. Etxe honetan Sesumaga familia bizi zen eta, hori dela eta, jaso du izen hori. Jatorrizko izena *Esesumaga* bada ere, *Sesumaga* aldaera aspaldikoa da.

Esta casa del barrio Artatza se documenta desde 1667 como *Çeçumaga*. Pero parece ser que es más el apellido del dueño que el nombre de la casa, ya que el caserío *Esesumaga* está en el barrio Baserri de Getxo, a unos metros de Martiartutorre en la zona donde se acercan Leioa, Getxo, Berango y Erandio. En esta casa vivía la familia Sesumaga y por eso se llama así. Aunque el nombre original es *Esesumaga*, la variante *Sesumaga* también es muy antigua.

Solokoetxe

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aldekoena)

Aldekoena auzoko etxea. Berria izanik, **Solokoetxe** etxe-izenaren jatorria ez dakigu zein den, baliteke jabearen ezizena izatea. Mendebaldean *solo* hitza erabiltzen da *ortu* aldaerarekin batera, eta gainerako Euskal Herrian, berriz, *soro*.

Casa del barrio Aldekoena. Al ser nueva, no sabemos cuál es el origen del nombre **Solokoetxe**, podría ser el sobrenombre del propietario. En la zona occidental de Euskal Herria se usa la palabra *solo* 'huerta'; junto con la forma *ortu*, mientras que en el resto se usa *soro*.

Tabernazarra (-a) (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondoko etxe desagertua. **Txikerrena, Txantzarrena eta Txakurrasena** etheen inguruan omen zegoen. Gaur egun eremu horretan industriagune bat dago.

Esta casa desaparecida de Udondo, al parecer, estaba cerca de las casas **Txikerrena, Txantzarrena y Txakurrasena**. Hoy en día, en este lugar hay una zona industrial.

Telleria

Ahoz | Oral: *Tèlleri* (*Tèjera* erdaraz)

Auzoa | Barrio: Basaez

Gobela errekatik hurbil zegoen *telleria* bertako buztinaz baliatzeko. Aspaldi ez dela, herri guztietan izaten zen teilak egiteko lantegia, ez baitzen erraza leku batetik bestera garraiatzea. Etxe moduan 1796an ageri da lehenengo aldiz eta XX. mendean auzo txiki bat sortu zen inguruan erdarazko itzulpena den *Tèjera* izenaz ezagutua. Nahiz eta azken urteotan ahaz *Tèlleri* aldaera zabaldu den, azken *-a* hori ez da artikulua, hitzaren osagaia baizik.



Telleria

El nombre proviene de la tejería, *telleria* en euskera, que estaba cerca del río Gobela para utilizar la arcilla de la zona. Hace no mucho tiempo había tejerías en casi todos los pueblos, puesto que no era nada fácil llevar las tejas de un lado a otro. Aparece como casa por primera vez en 1796 y en el siglo XX se creó un pequeño barrio a su alrededor conocido por su traducción *Tejera*. Aunque en los últimos años oralmente haya predominado la forma *Telleri*, la *-a* final no es un artículo, sino parte de la palabra.

Telleruena (-a)

Ahoz | Oral: *Tellerune*

Auzoa | Barrio: Artatza (Zuhatzu)

XIX. mende amaierako etxalde hau gaur egun domenikarren komentua dagoen lekutik oso gertu dago. 1915eko dokumentu batean *La Tejera de Zuazo Aurrekoa* jaso da, eta baliteke hau berau izatea. Izenaren konposizioan *telleru* (lanbidea) eta *-ena* jabego atzizkia agertzen dira. Ahoz, inguru honetan ohikoa den bezala, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Tellerune* esaten zaio.

Este caserío de finales del siglo XIX está muy cerca del convento de las Dominicas. En un documento de 1915 se recoge *La Tejera de Zuazo Aurrekoa*, y puede ser que sea el mismo. El nombre deriva de *telleru* 'tejero' y el sufijo posesivo *-ena* y significa 'La casa del tejero' Oralmente es conocido como *Tellerune*, ya que se cierra la *-a* final, tal y como es común en la zona.

Trabuduena (-a)Ahoz | Oral: *Trabune*

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza auzoan dagoen etxalde honek hiru izen izan ditu. Hasieran *Artatzaerdikoa* zen, 1745ean *Artatzatrabuduena* moduan ageri da eta 1796tik aurrera *Trabuduena* hutsean. Etxaldearen izena *Trabudua* abizen edo baserri izena eta *-ena* jabego atzizkitik eratorritakoa da. Honek adierazi nahi du *Trabudua* deitura zuen bat edo Erandioko Trabudukoa izateagatik *Trabudu* deitzen zuten bat bizi izan zela bertan. Ahoz *Trabune* ezaten diote, bokal arteko *-d-* galdu egiten da eta inguru horretan ohikoa den *-a* itxi egiten da.

Esta casa del barrio Artatza ha tenido tres nombres. Al principio era conocida como *Artatzaerdikoa*, en 1745 aparece como *Artatzatrabuduena* y a partir de 1795 simplemente *Trabuduena*. El nombre se compone del apellido o nombre de caserío *Trabudua* y del sufijo posesivo *-ena*: 'la casa de Trabudua', aunque no sabemos si es apellido o mote por ser de ese caserío de Erandio. Oralmente es conocido como *Trabune*, pierde la *-d-* intervocálica y se cierra la *-a* final como es habitual en la zona.

Trabuduenabarri (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Artatza

Artatza auzoan zegoen etxalde honen dokumentazio eskasa eta berria da, XX. mendekoa. Ziurrenik inguruan dagoen **Trabuduena** etxaldearekin lotura izango du.

Ikus *Trabuduena*.

La documentación de este caserío del barrio Artatza es escasa y nueva, del siglo XX. Seguramente tendrá relación con el caserío **Trabuduena** de la zona.

Véase *Trabuduena*.

Txakurrasena (-a) (desagertua / desaparecido)Ahoz | Oral: *Tzakurrasene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondo auzoko eraikuntza, **Txikerrena**, **Txantzarrena** eta **Tabernazarra** etheen inguruan omen zegoen. XIX. mende amaierakoa da eta lehenengoz 1887an dokumentatzen da.

Etxaldearen izena *Txakurrazena* edo *Txakurras* (ezizena ziurrenik) eta *-ena* jabego atzizkiak osatua dago. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amairako *-a* itxi egiten da eta *Tzakurrasene* esaten zaio.

Casa del barrio Udondo que estaba cerca de **Txikerrena**, **Txantzarrena** y **Tabernazarra**. Es un edificio de finales del siglo XIX y se documenta por primera vez en 1887.

El nombre está compuesto de *Txakurrazena* 'el que era perro' o *Txakurras* (probablemente sobrenombre) y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente es conocido como *Tzakurrasene*, con cierre en la *-a* final.

Txakurzulo (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Udondo eta Erandio (Udala)

Lehenengo 1825ean dokumentatutako etxe hau Erandioko lurretan bazegoen ere, mugakoa zen eta Udondo auzoarekin lotura handikoa. Inguru horretan Udondo errekek eragindako ibar edo landei *Txakurzuloko begak* edo ibarrak deitzen zaie. Eta Udondo erreka gainetik Erandio eta Leioa batzen dituen bideari ere Txakurzulo deitzen zaio.

Txakurzuloa orma edo ate batean dagoen edozein zulo txiki izan daiteke. Oro har, etxe biren arteko tarteari ere esaten zaio. Horretaz gain, olagizonek euren oletako hormetan egindako zuloak ziren, bertatik burdina ijeztua zabaltzen zuten.

Txakurzulo etxearen parean, Udondo errekan, portutxo bat zegoen garai batean; Txakurzuloko portua hain zuzen. Bertan itsasontziek babesleku ona topatzen zuten, itsasadarrean ez baitzegoen kairik garai hartan. Han inguruan marinelen etxea ere bazegoen **Erriko-etxe** izenaz ezaguna.

Esta casa se documenta por primera vez en 1825 y, aunque era de Erandio estaba en el límite con Leioa y tenía gran relación con el barrio Udondo. En esa zona a las vegas del río Udondo se les llama *Txakurzuloko begak* ‘las vegas de Txakurzulo’. Y al camino que une Leioa y Erandio por encima del río Udondo también se le llama Txakurzulo.

El *txakurzulo* ‘agujero del perro’ es cualquier agujero pequeño en una pared o puerta, así como el espacio entre dos casas. También se denomina así al hueco que hacían los ferrones en la pared de sus herrerías para verter por allí el hierro fundido.

A la par de la casa Txakurzulo, en el río Udondo, había un pequeño puerto; el puerto de Txakurzulo. En ese lugar se protegían los barcos, ya que en aquella época no había ningún muelle en la ría. En esa zona también estaba la casa de los marineros conocida como **Errikoetxe** ‘la casa del pueblo’.

Txantxarreña (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Txantxarreña*

Beste izenak | Otros nombres: Zubiaurolea

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Udondoko desagertutako etxea. **Txikerrena**, **Tabernazarra** eta **Txakurrasena** etxeen inguruan omen zegoen. Gaur egun eremu horretan industriagune bat dago.

Txantxar hitza XVI. mendeko erretrauetan ageri da ‘trapu zahar’ adierarekin: *Txamaratilla andia ta atorra txantxarduna*. ‘Cabezón grande y camisa con arrapiezos’.

Dirudienez, **Txantxarreña** etxea **Zubiaurolea** izenaz ere ezaguna zen, Iñaki Ugartek *Leioa: sus barrios y pluralidades* liburuan jasotako aipamen bati jarraituz. Nolanahi ere, *Txantxarreña* da izen jatorrizkoena. Zubiar-Olea izendapena bizilagunen deituretatik dator. *Zubiar* deiturak Araban, Amurrion, antzinako Lezama udalean, eta Bizkaian, ondokotan du jatorria: Arantzazu, Arratzu, Bermeo, Berriatua, Derio, Elorrio, Igorre, Ziortza, Meñaka, Orozko, Sondika (Sangroiz), Zeberio eta Zornotza (Boroa). *Oleak*, berriz, ondokoetan Bizkaian: Ajangiz, Arrieta, Dima, Ziortza, Morga eta Ubidea eta Gipuzkoan: Ataun, Beasain, Bergara, Idiazabal, Ormaiztegi eta Soraluze.

Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amairako *-a* itxi egiten da eta *Txantxarreña* esaten diote.



Txantzarrena

Esta casa estaba en Udondo junto con **Txikerrena**, **Tabernazarra** y **Txakurrasena**. Hoy en día, hay una zona industrial en ese lugar.

La palabra *txantzar* aparece en los *Refranes y Sentencias* del siglo XVI con el significado de 'arrapiezo', 'harapo': *Txamaratilla andia ta atorra txantzarduna* 'Cabezón grande y camisa con arrapiezos'.

Al parecer **Txantzarrena** también era conocida como **Zubiaurolea**, por lo que cita Iñaki Ugarte Uriarte en el libro *Leioa: sus barrios y pluralidades*. De todos modos el nombre original es Txantzarrena, puesto que Zubiar-Olea viene de los apellidos de los dueños. El apellido *Zubiar* proviene de Amurrio en Álava, el antiguo ayuntamiento de Lezama y de Arantzazu, Arratzu, Bermeo, Berriatua, Derio, Elorrio, Igorre, Ziortza, Meñaka, Orozko, Sondika (Sangroiz), Zeberio y Zornotza (Boroa) en Bizkaia. **Olea**, en cambio, de Ajangiz, Arrieta, Dima, Ziortza, Morga y Ubidea en Bizkaia; y Ataun, Beasain, Bergara, Idiazabal, Ormaiztegi y Soraluze en Gipuzkoa.

Oralmente se cierra la -a final y es conocido como *Txantzarrene*.

Txantxarrenaetxebarri (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Gaur egun desagertua dagoen etxe hau Avanzada inguruan zegoen, Udondo auzoko sarreran. Udondo auzoan **Txantxarrena** izeneko etxaldea zegoen, baliteke jabe berberarena izatea edo loturaren bat izatea.

Ikus *Txantxarrena*.

Esta casa, hoy desaparecida, estaba cerca de la Avanzada, en la entrada a Udondo. En el barrio de Udondo estaba el caserío llamado **Txantxarrena** y puede ser que este tuviera alguna relación con él o fueran del mismo dueño.

Véase *Txantxarrena*.

Txikerrena (-a) (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

XIX. mendeko etxe hau 1865. urtean dokumentatu da lehenengoz eta 1950ean azkenekoz. Udondo auzoan omen zegoen **Txantxarrena**, **Tabernazarra** eta **Txakurrasena** etxeen inguruan.

Lehenengo elementua *txikerra* da, *txiki* adjektiboaren forma inguru honetako euskaraz, eta bigarrena *-ena* jabego atzizkia. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Txikerrene* esaten diote, 1950ean ere *Chiquerrene* dokumentatzen da.

Esta casa del siglo XIX se documenta por primera vez en 1865 y en 1950 por última vez. Estaba en el barrio Udondo junto con **Txantxarrena**, **Tabernazarra** y **Txakurrasena**.

El primer elemento es *txikerra*, variante de *txiki* 'pequeño' en esta zona y el segundo el sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es común en esta zona, se cierra la *-a* final, y es comocido como *Txikerrene*, en 1950 también se documenta la forma *Chiquerrene*.



Txopitoena (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Txopitene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

1950eko zerrendan ageri da Santsoena eta Alkatena arteko etxe hau, *Chopiteane* moduan idatzita. EHUa egiteak ekarri zuen botatzea. Izenaren osagaiak *Txopitea*, Amoroetoko deitura eta etxea adierazten duen *-ena* atzizkia.

Casa que aparece documentada en 1950 como *Chopiteane* entre Alkatena y Santsoena. Las obras de construcción de la universidad la hicieron desaparecer. Es un nombre compuesto del apellido *Txopitea*, de Amoroeto, y el sufijo *-ena* con el significado de 'casa': 'la casa de *Txopitea*'.

Txuriena (-a) (desagertua / desaparecido)

Ahoz | Oral: *Tzurine*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Etxaldea XVIII. mende amaierakoa da, 1796an dokumentatzen da lehenengoz, eta Udondo auzoan zegoen, Sertutxenaren aurrez-aurre.

Etxaldearen izena *Txuria* (ezizena ziurrenik) eta *-ena* jabego atzizkiaz osatua dago. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amaierako *-a* itxi egiten da eta *Tzurine* esaten zaio.



Este caserío de finales del siglo XVIII se documenta por primera vez 1796 y estaba en el barrio Udondo, en frente de Sertutxena.

El nombre del caserío se compone de *Txuria* 'el blanco', (seguramente un sobrenombre) y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es común es esta zona, se cierra la *-a* final, y es conocido como *Txurine*.

Ubeda (Mateoena)

Ahoz | Oral: Matone

Auzoa | Barrio: Elexalde (Sarriena)

Sarriena inguruko etxaldea, 1704ko fogeraioetan jada dokumentatzen da. Izen bitxi honen jatorria Andaluzian aurkitu behar dugula dirudi, izen bera duen hirian. Garai batean horrelako izenak, seguru asko mairuen borroken ondorioz, ohikoak ziren. Nafarroan Cordovilla dugu eta Araban Gordoa, Kordobako kalifatoaren oiartzuna duten izenak.

Gaur egun, *Matone* esaten zaio, nahiz eta jatorrizko *Matoena* Kultur Leioa dagoen tokian zegoen. Izen honekin hiru etxe desberdin ageri dira dokumentazioan: **Ubedabekoa**, **Ubedaerdikoa**, **Ubedagoikoa** eta **Ubedaosteikoa**; baina XVIII. mendearen amaierarako Ubeda izena galdurik zuten eta *Motxorrena*, *Sarriena* eta *Libanoena* izena ziztuzten.

Este caserío del barrio Sarriena ya se documentaba en las fogueraciones de 1704. Parece ser que el origen del nombre está en Andalucía, en la ciudad del mismo nombre. En una época eran habituales esa clase de denominaciones, seguramente como consecuencia de las guerras con los moros. En Navarra tenemos Cordovilla y Gordoia en Araba, pueblos con eco del califato de Córdoba.

Hoy en día es conocido como *Matone*, pero el caserío *Matoena* original estaba en el lugar donde ahora está *Kultur Leioa*. En la documentación hay tres casas con este nombre: **Ubedabekoa**, **Ubedaerdikoa** y **Ubedaosteikoa**; pero para finales del siglo XVIII ya habían perdido el nombre Ubeda y se llamaban *Motxorrena*, *Sarriena* y *Libanoena*.

Ubedena (-a)

Ahoz | Oral: *Ubedene*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Sarriena)

Sarriena auzoko etxe hau XVIII. mende hasierakoa da eta lehenengoz 1745ean dokumentatu da. Etxaldearen izena *Ubeda* izenak eta *-ena* jabeago atzizkiak osatzen dute. Ahoz, inguru honetan ohikoa den bezala, *-ena* atzizkiaren amaierako *-a* itxi egiten da eta *Ubedene* esaten diote.

Eraikin berria dago gaur egun.

Esta casa del barrio Sarriena es del siglo XVIII y se documenta por primera vez en 1745. El nombre de la casa se compone del nombre *Ubeda* y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente, como es habitual en esta zona, se cierra la *-a* final y es conocido como *Ubedene*.

Hoy hay un edificio nuevo.



Ubedena



Udua, 2011

Udua

Auzoa | Barrio: Elexalde (Udondo)

Palazio ere deitzen zen etxe honek izena eman bide zion auzoari. Ez dakigu toponimoak zer esan nahi duen eta ez dirudi amaierako *-a* artikulua denik, ez baita konposatueta desagertzen. Guztiarekin ere bilakaera bitxia da.

Etxe izen honetatik sortu ziren beste hainbat izen: **Uduabarri**, **Uduabekoa**, **Uduagoikoa** eta **Uduabarberuena**, barberua bizi zen etxea, alegia. Gogoan izan behar dugu antzina barberua ez zela hilea mozten zuena, gaur egungo erizainen aurrekoa baizik. Izen honetatik **Uduatxosna** ere sortu zen. Txosna esaten zaio etxalde baten ondoan eraikitzen den bigarren etxeari, dokumentazio zaharrean sarritan *acesoria* moduan itzultzen zutena.

Udondo izenaren jatorria ere bera da. 1704an *Uduondo* moduan ageri da, baina berehala aldatu zen *Udondora*. Izenak berak dioen be-

zala, *Udua* etxearen ondokoa izendatzen du. Etxe hau benta izan zen eta beste batzuk sortu ziren inguruan: **Udondobekoa**, **Udondoetxebarri**, **Udondogoikoa** eta **Udondoko errota**. Azken hau XVIII. mende amaieran dokumentatzen da, baina Iñaki Ugarte Uriarteren ustez, XVI. mendekoa da. Txakurzulo etxebizitzaren parean zegoen, lehen portua zegoen lekuan, mareen gorabeherak mugitzen omen zuten errota.

Esta casa también llamada *Palazio* fue la que dio nombre al barrio. No sabemos cuál es el significado y no parece que la *-a* final sea un artículo, puesto que no desaparece.

Del nombre de esta casa han derivado otros tantos como **Uduabarri**, **Uduabekoa**, **Uduagoikoa** y **Uduabarberuena**. Tenemos que recordar que *barberua* no era el que cortaba el pelo sino el antecesor de los enfermeros de hoy en día. *Uduatxosna* es otro topónimo que ha derivado del mismo nombre. Una *txosna* era una segunda edificación contigua al caserío que normalmente se documenta como *accessoria*.

El origen del nombre **Udondo** es el mismo. En 1704 aparece como *Uduondo*, pero al poco tiempo pasó a llamarse *Udondo*. Tal y como indica el mismo nombre, hace referencia a lo que está al lado de *Udua*. Esta casa fue una venta y hubo otras alrededor: **Udondobekoa**, **Udondoetxebarri**, **Udondogoikoa** y **Udondoko errota**. Esta última, que era molino, se documenta a finales del siglo XVIII, pero en opinión de Iñaki Ugarte Uriarte es del siglo XVI. Estaba junto a la vivienda Txakurzulo, donde estuvo el puerto, y las mareas movían el molino.

Ugarteondo (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Artatza

Desagertutako etxe hau XIX. mende amaierakoa edo XX. mende hasierakoa zen. Etxaldeaz gain herri-lurra ere bazegoen, lurren izena **Ugarteondoeta** da. Gaur egun bertan dagoen parkeak izena jaso du.

Este caserío, ya desaparecido, era de finales del siglo XIX o principios del XX. Además, del caserío, también había una tierra comunal llamada **Ugarteondoeta**. Hoy en día en esa zona hay un parque con el mismo nombre.



Urbiet, 2011

Urbiet

Ahoz | Oral: *Urbiet*

Auzoa | Barrio: Artatza (Artatzagana)

Artatzagana auzoan dagoen etxea. Lehenengoz 1900. urtean dokumentatu da; beraz, pentsatzekoa da XIX. mende amaierakoa dela.

Ur, bi gehi *-eta* atzizkitik eratorritako izena; ez dirudi baina, lekuari aipamena egiten dionik, ziurrenik bertako jabeen abizena izango da jatorria. Inguru honetan ohikoa da etxalde inguru edo auzuneei amaieran *-s* erdal morfema pluralgilea gehitzea eta hori dela-eta *Urbiet*(*s*) forma okerra ere erabilia da erdaraz.

Urbiet deitura Etxebarrikoa da, Bizkaian; Astigarragakoa, Azpeitikoakoa, Mutiloakoa, Oiartzungoakoa eta Zestoakoa Gipuzkoan; eta Leitza-koakoa Nafarroan.

Esta casa del barrio Artatzagana se documentan por primera vez en 1900, por tanto, podemos suponer que es de finales del siglo XIX.

Es un nombre derivado de *ur* 'agua', *bi* 'dos' y del sufijo de abundancia *-eta*. Pero no parece que haga referencia al lugar, seguramente tendrá relación con el apellido de los propietarios. En esta zona es habitual añadir el morfema plural castellano *-s* al final para hacer referencia a los barrios y por eso es conocido en castellano como *Urbietta(s)*.

El apellido *Urbietta* es de Etxebarri en Bizkaia; de Astigarraga, Azpeitia, Mutiloa, Oiartzun y Zestoa en Gipuzkoa; y de Leitza en Nafarroa.

Urtiena (-a)

Ahoz | Oral: *Urtine*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Aketxe)

Aketxe auzoko etxalde zahar hau 1704tik dokumentatu da. 1858. urteko Udal Agiritegiko dokumentu batean *Urteona* forma okerraz agertzen bada ere, *urti* ezizen eta *-ena* jabego atzizkiaz eratorritako etxe-izena da. Ahoz, inguru honetan ohikoa denez, amairako *-a* itxi egiten da eta *Urtine* esaten zaio.



Urtiena

Este caserío del barrio Aketxe se documenta desde 1704. En un documento municipal de 1858 aparece erróneamente como *Urteona*, pero el nombre deriva del sobrenombre *urti-* y del sufijo posesivo *-ena*. Oralmente es conocido como *Urtine*, ya que en esta zona es común cerrar la *-a* final.

Zabala (-a)

Ahoz | Oral: *Sabále*

Auzoa | Barrio: Elexalde (Santsoena)

Zutunik dirauten Elexalde auzoko baserririk zaharrenetakoa da, XVII. mendekoa edo lehenagokoa. Gaur egun bi etxebizitzakoa da. **Zabala** izena oso arrunta da euskal oikonimian (etxe-izenetan) eta esan liteke ia Euskal Herriko herri gehienetan topatzen dugula izen horretako etxalderen bat.

Ahoz Bizkaiko mendebaldean *zabale* esaten diote, edo ahoskera zehatzagonean *Sabale*. Batetik, inguru honetan dagoen txistukarien neutralizazioa dela-eta *-z-* ez da ahoskatzen eta *-s-* ahoskatzen dute. Bestetik, amaierako *-a*, beste hainbat toponimotan bezala, *-e* bihurtzen dute kontsonante osteko artikulua denean, adibidez: *Bordeone*, *Mendibile* eta abar. Azken batean, deklinabide sistema txarto interpretatzearen ondorioa da eta idatzizko forma egokia *-a* artikuluduna da, nahiz eta ahoz *-e* formaduna erabil daitekeen.

Uno de los caseríos más antiguos que se mantienen en el barrio Elexalde, del siglo XVII o anterior. Hoy en día es de dos viviendas. El nombre es **Zabala** es muy común en la oiconimia (nombres de casas) vasca y se podría decir que en casi todos los pueblos de Euskal Herria hay alguna con ese nombre.

En la parte oeste de Bizkaia se pronuncia *Zabale*, más concretamente *Sabale*. Por un lado, porque debido a la neutralización de las sibilantes no se pronuncia el sonido *-z-* y se pronuncia *-s-*. Por otro lado, la letra *-a* final, al igual que en otros muchos topónimos, se convierte en *-e* cuando es un artículo precedido de una consonante, por ejemplo: *Bordeone* o *Mendibile*. Eso es el resultado de una mala interpretación de la declinación y la forma escrita correcta es la terminada en *-a*, aunque oralmente se pueda utilizar la terminada en *-e*.



Zabala

Zarraga (desagertua / desaparecido)

Auzoa | Barrio: Artatza (Basaez)

Gaur egun auzoa izendatzeko **Zarrageta** erabiltzen bada ere, jatorrizko izena bertako *Zarraga* baserria izan zen. Baserri hau, eta beherago zegoen *Zarragabarrena*, XIX. mendean eraiki eta XX. mendearen erdialdean desagertu ziren.

Izenaren osagaiak argiak dira *Zarraga* etxe-izena gehi hainbat lekutan aurkitu dugun *-eta* atzizkia, kasu honetan plural adierarekin. Hala ere, Bizkaiko euskaran *-z-* eta *-s-* nahasten direnez, *Sarrageta* esaten zaio eta horregatik jendeak sagar zuhaitzarekin lotu du.

Zarraga deitura Erandiokoa da, Faoeta auzokoa, eta bertan dago jatorrizko oinetxea.

Aunque hoy en día se usa **Zarrageta** para denominar este barrio, el nombre original era el del caserío Zarraga. Además del citado edificio, existió otro llamado Zarragabarrena (Zarraga de abajo). Ambos, edificados en el siglo XIX, desaparecieron en el XX.

Los componentes del nombre son claros, el nombre *Zarraga* y el sufijo, en este caso pluralizante *-eta*. Sin embargo, como en Bizkaia se confunden la *-s* y la *-z* mucha gente piensa que tiene que ver con *sagar* 'manzana'. Es común que a los grupos de caseríos se les añada *-eta* al final para designar el barrio.

El apellido Zarraga es de Erandio, del barrio Faoeta, y ahí está la casa solar original.

Zuhatzu

Ahoz | Oral: *Sutzu*, *Sutzuerdiko*

Beste izenak | Otros nombres: Çuaço (1632), Zuazourrecoa (1745), Zuazoerdicoa (1825)

Auzoa | Barrio: Artatza (Zuhatzu)

Zuhatzu auzoko etxalderik zaharrena da. 1632. urtean *Çuaço* izenaz baino ez da dokumentatzen, bakarra baitzen. Geroago, bigarrena eraiki zenean jatorrizko hau **Zuhatzuurrekoa** bihurtu zen eta berria **Zuhatzuatzeko** edo **Zuhatzuosteinkoa**. Horrela ageri dira dokumentazioan 1825ean Zuhatzuerdikoaz azaldu zen arte. Badirudi urte horren inguruan Zuhatzuurrekoaren aurrean berri bat eraiki zela eta izenak aldatu ziren. Zaharrenari Zuhatzuerdikoaz edo Zuhatzu huts-hutsean hasi zitzaion deitzen. Hau gutxi balitz, beste izenak ere eduki dituzte, Zuhatzubekoa eta Zuhatzugoikoa, aurrean eta atzean egoteaz gain, bata (Aurrekoa) bestea (Bekoa) baino gorago baitago. 1915eko Udal Agiritegiko dokumentu batean *La tejera de zuazo aurrecoa* jaso da, baliteke bidean aurrerago dagoen **Telleruena** etxearen aipamena izatea edo bi etxe horiek nolabait erlazonaturik egotea. Azkenik, XIX. mendearen amaieran **Zuhatzubarri** eraiki zen, beherago.

Etxe honi ahoz *Sutzu* esaten zaio eta batzuetan *Sutzus*, euskara eta erdarahasiz. Bizkaian ez da aspaldian *-z-* ahoskatzen eta *Suatzu* esan



Zuhatzuerdikoa, Zuhatzuaurrekoa

zaio. Honen ahozko laburpena dugu *Sutzu*, geroago erdararen eraginez *-s* gehitu zitzaion, azken hizkuntza honetan *Sutxus* esaten baitzaio. **Zuhatzu** idazkera bitxiak azalpen berezia behar du. Izen hau, era askotan idatzita, oso ugaria da Euskal Herrian eta horregatik Euskaltzaindiak, gure hizkuntzaren Akademiak, gomendatzen du izen hau gure herri guztietan berdin idaztea, **Zuhatzu**. Gainera, leku batzuetan *h*-rik ahoskatzen ez bada ere, badago horren oihartzuna eta *Subetzu* edo *Sugatzu* esaten da. Etxe hauek 1796an *Zugazua* moduan ageri dira, hemen ere horrela erabiltzen zenaren seinale.

Este edificio es el más antiguo del grupo de caseríos del barrio Zuhatzu. En 1632 se documenta como *Çuaço a secas*, pues era el único. Posteriormente se edificó una segunda casa y la original se convirtió en **Zuhatzuaurrekoa** (*Zuatzua* la de adelante) y la nueva **Zuhatzuatzeko** o **Zuhatzuosteinkoa**. Así se documentan hasta que en 1825 aparece *Zuhatzuerdikoa*. Según parece, por esas fechas se edificó una nueva casa delante de *Zuhatzuaurrekoa* y se cambiaron los nombres. A la más antigua se la empezó a llamar *Zuhatzuerdikoa* o simplemente *Zuhatzu*. Por si esto fuera poco, también se llaman *Zuhatzugoikoa* y *Zuhatzubekoa*, puesto



Zuhatzuerdikoa, 1999

que además de estar una delante de la otra están a distinto nivel. En un documento de 1915 se cita *La tejera de zuazo aurrecoa*, puede que sea la casa que está algo más adelante en el camino, conocida como **Telleruena** o que esas dos casas estén unidas en algún modo. Finalmente, a finales del siglo XIX se edificó **Zuhatzubari** más abajo.

Hoy en día es conocida oralmente como *Sutzu* o *Sutzus*, haciendo una mezcla entre el euskera y el castellano. En Bizkaia hace tiempo que no se pronuncia la *-z-* por lo que se llama *Suatzu*. La abreviación de esto es *Sutzu* y posteriormente se ha añadido la *-s* final, por influencia del castellano, idioma en el que se llama *Sutxus* a esta casa. La extraña grafía *Zuhatzu* necesita una explicación pormenorizada. Este nombre, escrito de diferentes formas, es muy común en toda Euskal Herria y por eso la Academia de la lengua Vasca, Euskaltzaindia, recomienda utilizarlo igual en todo el país, **Zuhatzu**. Hay que recordar que en muchos lugares aunque ya no se pronuncia la *-h-* han quedado restos de ese sonido y se dice *Subetzu* o *Sugatzu*. En nuestro caso, en 1796 se documenta como *Zugazua*, testimonio de esta pronunciación. Significa 'arboleda', de *zuhaitz* 'árbol' y el sufijo *-zu*.



Zuhatzuaurrekoa, 1999

Zuhatzuaurrekoa (-a)

Ahoz | Oral: *Sutzuaurreko*

Beste izenak | Otros nombres: Zuhatzuaurre (1858), Zuhatzuarrekoetxea (1912)

Auzoa | Barrio: Artatza (Zuhatzu)

Zuhatzu baserriaz mintzatzean esan bezala, gaur egungo Zuhatzuaurrekoa berria da, 1800 inguruan eraikia eta dokumentazioan lehenago ageri den Aurrekoa gaur egun erdian dagoena da.

Ikus *Zuhatzu*.

Como se ha indicado en la explicación de Zuhatzu, el actual Zuhatzuaurrekoa se reedificó en torno a 1800 y las citas anteriores de la casa Aurrekoa hacen referencia al actual Zuhatzuerdikoa.

Véase *Zuhatzu*.

Zuhatzubarri

Ahoz **I** Oral: *Sutzubarri*

Auzoa **I** Barrio: Artatza (Zuhatzu)

Artatza auzoan dagoen baserri honen lehenengo dokumentuak XIX. mende amaierakoak dira, eta Zuhatzu auzunea osatzen du **Zuhatzuauurrekoa**, **Zuhatzuerdikoa** eta **Zuhatzuosteinkoa** etxaldeekin batera. Jatorrizko *Zuhatzubarri* gaur egun izen hori duen txaleta baino behe-rago zegoen, baina saltoki handiaren lanak egitean bota zuten.

Ikus *Zuhatzu*.

Los primeros documentos de este caserío de Artatza son del siglo XIX. Forma el grupo Zuhatzu junto con **Zuhatzuauurrekoa**, **Zuhatzuerdikoa** y **Zuhatzuosteinkoa**. El edificio *Zuhatzubarri* original estaba situado más abajo que el actual chalet, pero fue derribado al hacer las obras del centro comercial.

Véase *Zuhatzu*.

Zuhatzuerdikoa (Ikus / Véase *Zuhatzu*).

Zuhatzuosteinkoa (-a)

Ahoz **I** Oral: *Sutzuatzeko*, *Osteinkoa*

Beste izenak **I** Otros nombres: Zuhatzugoikoa (-a), Osteinkoa (-a)

Auzoa **I** Barrio: Artatza (Zuhatzu)

Artatza auzoan dagoen baserri honen lehenengo dokumentuak XVIII. mende erdialdekoak dira eta Zuhatzuko auzunea osatzen du **Zuhatzuauurrekoa**, **Zuhatzuerdikoa** eta **Zuhatzubarri** etxaldeekin batera.

Dokumentazioan *osteikoa*, *osteinkoa* eta *ostaikoa* formak txandakatzen dira, baina jatorrizko forma *osteinkoa* izanik, etxaldearen izena **Zuhatzuosteinkoa** da. Deigarria da dokumentatu dugun lehenengo aipuan Atzekoa agertzea, ez baita berriro azaltzen. Hauxe bera gertatzen da Getxon non Atzekoa 1704an baino ez den dokumentatzen. Ahoz *Osteinkoa* eta *Osteinkoabari* izenez ezagutzen dira, hurrenez hurren, elkarren ongoan dauden etxe bi hauek.

Ikus *Zuhatzu*.

*Zuhatzuosteinkoa*

Los primeros documentos de este caserío de Artatza son del siglo XVIII. Forma el grupo Zuhatzu junto con *Zuhatzuauurrekoa*, *Zuhatzuerdikoa* y *Zuhatzubarri*.

En la documentación se alternan las formas *osteikoa*, *osteinkoa* y *ostaikoa*, pero teniendo en cuenta que la original es *osteinkoa* el nombre correcto del caserío es *Zuhatzuosteinkoa*. Curiosamente, en su primera mención documentada aparece como *Atzekoa*. Esto mismo ocurre en Getxo donde la forma *Atzekoa* sólo aparece en 1704. Oralmente es conocida como *Osteinkoa* y su contigua como *Osteinkoabari*.

Véase *Zuhatzu*.

*Zuhatzuosteinkoa, 2011*

Leioa kalerik kale

Leioa calle a calle

Ba al dakizu Leioako kale, etorbide, bide, parke eta plazei zergatik eman zaizkien dituzten izenak? Ondorengo atalean Leioako leku horien guztien izenak hobeto ulertzen lagundu nahi dizugu; izan ere, izen hauek dira, behin eta berriz, Leioako bizilagunek egunero erabiltzen dituzten erreferente berriak. Batzuk Leioako beti-betiko toponimo zaharrak dira kale-izenetan gordeak; eta beste batzuk, ordea, pertsona izenak edo izen berriak.

¿Sabes por qué se les ha dado a las calles, avenidas, caminos, parques y plazas de Leioa los nombres que tienen? En el siguiente apartado te queremos ayudar a entender mejor los nombres de todos esos lugares de Leioa, ya que estos nombres son los nuevos referentes que una y otra vez utilizan los habitantes de Leioa. Algunos son topónimos de toda la vida escondidos en nombres de calles y otros, en cambio, nombres de personas o nombres nuevos.

Agirre Lehendakaria

Izen osoa | Nombre completo: *Agirre Lehendakariaren plaza*



Jose Antonio Agirre Lekube lehendakaria Bilbon jaio zen 1904an eta Parisen erbesteraturik hil zen 1960an. Politikari ezaguna eta EAJ/PNVko kidea. 1935ean *Entre la libertad y la revolución* liburua kaleratu zuen, Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakaria izan zen eta 1936ko urriaren 7an Gernikako Arbolaren aurrean ondoko esamoldea erabiliz egin zuen lehendakari kargu-zina:

«Jaungoikoaren aurrean apalik, euzko lur ganian zutunik, asabearen gomutaz, Gernikako zuaizpian, nere agindua ondo betetzia zin dagit.

Humillado ante Dios, sobre la tierra vasca en pie y bajo el árbol de Gernika, invocando la memoria de los antepasados, juro cumplir mi mandato con entera fidelidad».

Frankismoaren garaian kale honek Falangearen sortzailea izan zen *Primo de Rivera* izena zuen.

El lehendakari Jose Antonio Agirre Lekube nació en Bilbao en 1904 y murió exiliado en París en 1960. Político conocido y miembro del EAJ/PNV. En 1935 publicó el libro *Entre la libertad y la revolución*. Fue el primer Lehendakari del Gobierno Vasco y el 7 de octubre de 1936 hizo el juramento de lehendakari frente al árbol de Gernika utilizando las palabras citadas anteriormente.

En época del franquismo, esta calle tenía el nombre de *Primo de Rivera*, fundador de la Falange.

Ajuriagerra (Ikus / Véase: *Juan Ajuriagerra*).

Aldapa

Izen osoa | Nombre completo: *Aldapa kalea* eta *Aldapa parkea* / *Calle Aldapa, Parque Aldape*

Udondo auzoko bigarren biribilgunean sortzen da, hain zuzen ere Otsobarrena kale berria hasten den biribilgunean, eta Aldapa izen bereko parkearen albo batetik doa Independentzia kaleraino.

Aldapa izena inguru eta azpieuskalki honetan, Barakaldoko, Erandioko eta Getxoko toponimia ikerketek ere argi erakutsi duten bezala, oso erabilia da lursailak izendatzeko. Dirudienez, gainera, ez dauka zuzenean zerikusirik lursailaren inklinazioarekin; horrela, *Aldapa* izena topatzen dugu maiz lau-lauak diren lursailak ere izendatzeko. Leioan *aldapasolo* edo *aldapa* hitz hutsak topatzen ditugu toponimia historikoan etxaldean soroak izendatzeko izen arrunt gisa erabilia.

Udalak bertako toponimoa jaso zuen kale-izen izateko, Nazio Batuen erakundearen gomendioek esaten duten bezala; izan ere, aipatutako erakundeak toponimoak erabiltzeaz gain, gizadiaren ondare materiagabea izendatu ditu eta katedralak edo beste artelanak zaindu behar diren modu berean toponimia jagon eta gordetzeko konpromisoa dago.

Ese vial comienza en la segunda glorieta del barrio de Udondo, precisamente en la rotonda donde surge la nueva calle Otsobarrena, y va hasta la calle Independentzia por un lateral del parque del mismo nombre Aldapa.

El nombre *aldapa* en este entorno y subdialecto del euskera es muy utilizado para nombrar parcelas de terreno, tal y como dejan claro las investigaciones de toponimia de Barakaldo, Erandio y Getxo. Al parecer, además, no tiene relación directa con la inclinación de la parcela; de este modo, el nombre *aldapa* se encuentra a menudo referido también a parcelas que son llanas. En Leioa encontramos *aldapasolo* o *aldapa* utilizados como nombre común para nombrar las huertas de fincas o propiedades en la toponimia histórica.

El ayuntamiento tomó la toponimia local para denominar la calle, tal y como dicen las recomendaciones de la organización de Naciones Unidas; de hecho, la mencionada organización, además de recomendar utilizar los topónimos, los ha nombrado patrimonio no material de la humanidad y del mismo modo que hay que proteger catedrales y otras obras de arte tenemos el compromiso de cuidar y guardar la toponimia.

Aldapabarrena

Izen osoa | **Nombre completo:** *Aldapabarrena kalea / Calle Aldapabarrena*

Udondo auzoko bigarren biribilgunean hasi, hain zuzen ere, Otsobarrena kale berria hasten den berean, eta Aldapa izen bereko parkearen goiko aldetik doa Independentzia kaleraino.

Aldapa hitza eta *barrena* postposizioaz eratutako kale-izena, *atzeko aldapa* esan nahi duena. Gogoratu beharra dugu *aldapa* hitza inguru honetan 'lursaila' dela, aurrekoan esan dugun legez.

Esta calle parte de la segunda glorieta del barrio de Udondo, precisamente en la misma donde comienza la nueva calle Otsobarrena, y va hasta la calle Independentzia por la parte de arriba del parque Aldapa del mismo nombre.

El nombre de calle generado con la palabra *aldapa* y la posposición *barrena* significa 'Aldapa de abajo'. Hay que recordar que la palabra *aldapa* en este entorno significa 'parcela de terreno', tal y como hemos comentado en el anterior punto.

Altzagaondo parkea

Izen osoa | Nombre completo: *Altzagaondo parkea / Parque Altzagaondo*

Telleria auzoaren gainean, antzinako Altzaga jauregiaren ondoan dagoena.

Parque situado junto al antiguo palacio, hoy en día caserío, Altzaga, encima del barrio Telleria.

Amaia

Izen osoa | Nombre completo: *Amaia etorbidea*

Artatzako biribilgune nagusian hasi eta Santa Ana etorbidean amaitzen da.

Etorbide honek Leioa eta Areeta banatzen ditu, muga-mugan dago. Hain zuzen ere, alde bateko etxebizitzak Getxo udalerrikoak dira eta bestekoak Leioakoak.

Amaia emakume izena da eta ez dirudi etorbide honek pertsonaia ezagunen baten izena daramanik. Gogoan izan behar dugu garai batean Amaia bezalako euskal izenak galarazita eta baztertuta izan zirela.

Amaia izena Navarro Villoslada idazle nafarrak asmatu zuen *Amaia o los vascos en el siglo VIII* eleberriko protagonista izateko. Izena ez dago edonola asmatuta, liburuan etengabe esaten baita “amaia hasiera da”. Gure protagonista sinesmen zaharren amaiera da eta Hasier, berriz, berrien hasiera. Nobelak berebiziko arrakasta izan zuen eta izen hau modan jarri zen XX. mendearen hastapenetan Franco-ren garaipenak debekatu zuen arte. 1939an, euskal izenak debekatzean, *Amaia* izena zuten askori izena kendu zieten eta *Maria* jarri; beste batzuei, berriz, itzuli egin zieten *Maria Fin* moduan. Diktadura amaitu arte egon ziren jartzeko eragozpenak, adibide gisa, Iruñeko epaile batek debekatu zuen iraingarri izateaz gain, sexu nahasketa sor zezakeelakoan.

Nafarroako Bertizaranan bada *Amaia* izeneko inguru zabala.

Comienza en la rotonda principal de Artatza y finaliza en la avenida Santa Ana.

Esta avenida separa Leioa y Areeta, es el límite entre las dos. De hecho, las viviendas de un lado forman parte del municipio de Getxo y las del otro lado del municipio de Leioa.

Amaia es nombre de mujer y no parece que esta avenida lleve el nombre de ningún personaje conocido. Hay que tener presente que en una época los nombres vascos como Amaia estaban prohibidos y marginados.

El nombre Amaia lo inventó el escritor navarro Navarro Villoslada para ser el protagonista de su novela *Amaia o los vascos en el siglo VIII*. El nombre no está inventado al azar, puesto que en el libro se repite sin cesar "amaia hasiera da" (el final es el comienzo). Nuestra protagonista, *Amaia*, es el final de las antiguas creencias y *Hasier(a)*, en cambio, el comienzo de las nuevas. La novela tuvo un éxito extraordinario y en los inicios del siglo XX este nombre se puso de moda hasta que lo prohibió la victoria de Franco. En 1939, al prohibir los nombres vascos, a muchas personas llamarlas *Amaia* se les quitó el nombre y se les puso *María*, y a otras se les tradujo como *María Fin*. Hasta el fin de la dictadura hubo inconvenientes para poner este nombre y a modo de ejemplo, un juez de Pamplona lo prohibió con la excusa de que podría generar confusión de sexo, además de considerarlo injurioso.

Curiosamente en Bertizarana, Navarra, existe una zona llamada *Amaia*.

Anporrena

Izen osoa | Nombre completo: *Anporrena parkea* / *Parque Anporrena*

Artatzagana auzoko parkea.

Izen bereko XIX. mende hasierako etxaldeari zor dio izena parke honek. Baserria dagoeneko desagertua badago ere, zuzen jokatzuz, berori zegoen inguruan gaur egun eraiki duten parkeari eman dio izena Udalak, jatorrizko izena errespetatu eta gordetzeko asmoz.

Ikus *Anporrena* etxaldea.

Este parque le debe el nombre al caserío del siglo XIX llamado así. Aunque el edificio actualmente esté ya desaparecido, tratando de rescatarlo, el ayuntamiento le ha dado este nombre al parque que se ha construido hoy en día en ese lugar, con la intención de respetar y guardar el topónimo original.

Véase caserío *Anporrena*.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa

Izen osoa | Nombre completo: *Araba kalea, Bizkaia kalea, Gipuzkoa kalea, Lapurdi kalea, Nafarroa kalea eta Zuberoa kalea. Calle Araba, calle Bizkaia, calle Gipuzkoa, calle Lapurdi, calle Nafarroa y calle Zuberoa.*

Pinueta etxe-multzoko 6 kale txiki dira. Zuberoa eta Nafarroa Amaia etorbidearekiko paralelo daude eta gainerako laurak elkarzut.

Sei kale hauen izenek Euskal Herriko 6 probintziei egiten diete erreferentzia, Nafarroa Beherea berez Nafarroako merindadeetako bat baitzen. Diktadura garaian Lapurdi kaleak *Manuel Gonzalez* izena zuen eta Zuberoak *Marcelino Oreja*.

Euskal Herria hitzaren lehenengo aipuak XVI. mendekoak dira, baina bere aipurik esanguratsuen Pedro Agerre “Axular” idazle nafarrari zor diogu, 1643an Saran, Lapurdin, *Gero* liburuaren hitzaurrean izenez gain osatzen duten probintziak ere aipatu zituelako. Hauek dira idazle horren hitzak:

Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euskal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan.

Son 6 calles pequeñas del grupo de casas Pinueta. Zuberoa y Nafarroa son paralelas a la avenida Amaia y el resto perpendiculares.

Los nombres de estas 6 calles hacen referencia a las 6 regiones de Euskal Herria, dado que Nafarroa Beherea era una de las merindades de Nafarroa. En la época de la dictadura la calle Lapurdi se llamaba *Manuel Gonzalez* y la calle Zuberoa *Marcelino Oreja*.

Las primeras menciones de la palabra Euskal Herria son del siglo XVI, pero la mención más notable se la debemos al escritor navarro Pedro Agerre “Axular”, que en 1643, en Sara (Lapurdi) citó en el prólogo del libro *Gero*, además del nombre Euskal Herria, las regiones que la formaban. Estas son las palabras de este escritor:

Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euskal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan.

(Puesto que en Euskal Herria se habla de diferentes formas y maneras, en la Alta Navarra, Baja Navarra, Zuberoa, Lapurdi, Bizkaia, Gipuzkoa tierra de Álava y otros muchos sitios).

(Puesto que en Euskal Herria de habla de diferentes formas y maneras, en la Alta Navarra, Baja Navarra, Zuberoa, Lapurdi, Bizkaia, Gipuzkoa tierra de Álava y otros muchos sitios).

Aramaioena

Izen osoa | **Nombre completo:** *Aramaioena parkea / Parque Aramaioena*

Artatzen, Negurigana eta Joaquin Achucarro kaleen artean, dagoen parkea.

Aramaioena Artatza bertako desagertutako etxalde baten izena da, XIX. mende hasierakoa. Izena *Aramaio* leku-izena, jabearen abizena edo jatorria ziurrenik, eta *-ena* atzizkiaz osatzen da. Etxaldeak *Aramaio* abizena edo jatorria zuen norbait adierazi nahi du.

Ikus *Aramaioena* etxe izena.

Parque situado en Artatza, entre las calles Negurigana y Joaquín Achúcarro.

El topónimo corresponde a un caserío situado en Artatza. El nombre de este caserío del siglo XIX proviene de *Aramaio* (apellido u origen del dueño) y del sufijo *-ena*, es decir, el caserío era de una persona conocida como *Aramaio*.

Véase el nombre de casa *Aramaioena*.

Artatza

Izen osoa | **Nombre completo:** *Artatza kalea / Calle Artatza*

Laubide kalean hasi eta Telleria auzoko biribilgunean amaitzen da.

Artatza izen bereko auzoari zor dio izena kale honek, nahiz Basaezen egon

Ikus *Artatza* izena.

Empieza en la calle Laubide y termina en la glorieta de la calle Telleria.

Esta calle le debe el nombre al barrio Artatza del mismo nombre, aunque está en Basaez.

Véase el nombre *Artatza*.

Autonomia

Izen osoa | Nombre completo: *Autonomia etorbidea / Avenida Autonomia*

Bilboko itsasadar ertzetik doan errepidearen izena da, Erandioko mugan hasi eta errepideak Getxoko mugaraino hartzen du izen hori. Diktadura garaian kale honek diktadorearen beraren izena zuen, *General Franco*.

Nombre de la carretera que va a lo largo de la orilla de la ría de Bilbao. Empieza en el límite con Erandio y la carretera toma ese nombre hasta el límite con Getxo. En la época de la dictadura esta calle era denominada con el nombre del propio dictador, *General Franco*.

Basañese

Izen osoa | Nombre completo: *Basañese kalea / Calle Basañese*

Artatzen *Basaez* izeneko auzoa inguratzen du. Artatza kalean hasi eta San Bartolome kalean amaitzen da.

*Basai*z (edo *Basañez*) izeneko etxalde multzoa zegoen gunean erakitako etxe multzoa inguratzen duen kaleari izen hori jarri zioten, hain zuzen ere, inguru hori izendatzeko erabiltzen da gaur egun, nahiz eta jatorrian etxalde-izena izan. *Basaez* etxalde multzoa *Basaez* (*nagusia* edo *aurrekoa*), *Basaezbarri* eta *Basaezerdikoa* etxaldeek osatzen zuten, gaur egun, jakina, desagertuta daude.

Etxalde-izen honek abizen ezaguna eman du, Basañez abizena hain zuzen ere, eta dirudienez, forma hori forma erromantzea da. Baina dokumentazioak eta gaur egungo euskarazko ahoskerak argi erakusten digute euskal diakronian bokal arteko *-n-* bustia desagerrarazi egin dela, ez-ohikoa bada ere, eta *Basaez* forma eman duela.

Basañeses bezalako erdal formak *-duela* gutxi arte forma horrekin ezaguna izan da kale-izena- baztertu behar dira; izan ere, Basañez jatorrizko forma osoaren desitxuratze okerrak dira. Amaierako *-z* euskararen eta inguru honetako euskalkiak egiten dituen txistukarien nahasketak eragindako ortografia du. Gainera, inguru honetan maiz topatzen dugun beste fenomeno bat dugu, amaieran sortzen den *-e* paragogikoa hain

zuzen ere, deklinazioaren eraginez sorturiko bokal desagokia da berau. Dokumentatutako zenbait formetan amaieran *-s* erdal morfema pluralgilea topatzen dugu, inguru honetan oso zabaldua dagoen joera okerra da morfema horren erabilera, bereziki auzo izenetan eta etxalde multzoak izendatzeko izenei erantsi ohi zaiena. Azaldutako guztia gorabehera izen ofiziala Basañese mantendu da, oso zabaldua baitago.

Está situada en Artatza y es la calle que rodea el barrio Basaez. Une las calles Artatza y San Bartolomé.

Este nombre se le asignó a la calle que rodeaba el grupo de casas construidas en la zona donde se ubicaban el grupo de caseríos llamados *Basaiz* (o *Basañez*). De hecho, a pesar de que este término en origen sólo hace referencia al nombre de caserío, actualmente se utiliza para nombrar todo el entorno. El grupo de caseríos *Basaez* lo formaban los caseríos *Basaez* (*nagusia* o *aurrekoa*), *Basaezbarri* y *Basaezerdikoa*, hoy en día ya no existen.

Este nombre de caserío ha derivado en un apellido bastante común, el apellido *Basañez*, y al parecer esa forma es romance. Pero la documentación y la pronunciación actual del euskera dejan claro que, aunque no sea lo común en la diacronía vasca, la *-n-* palatal entre vocales ha desaparecido, lo que dio lugar a la forma *Basaez*.

Hay que dejar de lado las formas castellanizante como *Basañeses* –hasta hace poco la casa era conocida con este nombre– ya que son desfiguraciones incorrectas de la forma completa original *Basañez*. La *-s* final es el resultado de la mezcla de sibilantes que se hace en el dialecto occidental. Además, tenemos otro fenómeno que encontramos a menudo en esta zona: la *-e* paragógica que se crea al final, que en realidad es una vocal inadecuada creada por influencia de la declinación. En alguna formas documentadas encontramos en el final del nombre el fonema castellano plural *-s*. La utilización de este morfema es una tendencia incorrecta que está muy extendida en este entorno, en especial en nombres de barrios y de grupos de caseríos. Pero después de todo, se ha mantenido como nombre oficial *Basañese*, puesto que está muy extendido.





Basarte

Izen osoa | Nombre completo: *Basarte etorbidea / Avenida Basarte*

Avanzada errepidearen gaineko kale nagusia da, Iparragirre etorbidea amaitzen den gunetik Artatzako biribilgune nagusiraino.

2011ko martxora arte *Txikia etorbidea* izena zuen, baina epailearen aginduz aldatu behar izan zuen udalak, eta *Basarte* izena eman zion baso edo parke biren artean dagoelako.

Diktadura garaian *Maestro Icaza* izena zuen kale honek eta demokrazia heltzean *Txikia* izena eman zion udalak. Eustakio Mendizabal “Txikia” 1973ko apirilaren hemeretziaren, diktadura garaian, hil zuen poliziak Algortan ETako kidea zelakoan. Gertaera honek eragin handia izan zuen orduko euskal gizartean eta Telesforo Monzonek geroago kantu ezaguna izango zen olerkia eskaini zion.

*Txikia zuen guda-izena
bera gizon osoa izan arren
Mendizabal, Sasetaren urrena
biak txiki, bizkor eta lerdan
Saseta hil zen gudarien aurrean*

*Mendizabal hil zaigu bakarrik
bainan biek daukate Herri osoa
atzo ta gaur heien atzetik
Euskadirentzat hil dire-ta
gorputzak arantzaz beterik*

Calle principal que está sobre la Avanzada. Va desde el final de la avenida Iparragirre hasta la rotonda de Artatza.

Hasta marzo de 2011, esta calle se llamaba Avenida *Txikia*, pero se le tuvo que cambiar el nombre por decisión judicial y el ayuntamiento le puso *Basarte* por estar situada entre dos bosques o parques.

Durante la dictadura, era la calle *Maestro Icaza* y al llegar la democracia el ayuntamiento la denominó *Txikia*. El 19 de abril de 1973, durante la dictadura, la policía mató en Algorta al presunto miembro de ETA Eustakio Mendizabal “Txikia”. Este suceso influyó en la sociedad vasca de la época y más adelante Telesforo Monzón le dedicó un conocido poema que fue musicado.

Begoñako Ama

Izen osoa | Nombre completo: *Begoñako Ama auzunea / Barrio Begoñako Ama*
Lamiakon Txorierri auzoaren ondoko etxe multzoa.

Frankoren diktaduraren garaian ohikoa izan zen eraikitzen ziren etxalde berriei santu izenak ematea. Gure kasu honetan, Bizkaiko zaindaria hautatu zen eta ez “Movimiento Nacionaleko” gustukoak ziren Santa Teresa edo San Jose modukoak. Andra Maria hau Bizkaiko zaindaria da 1738tik, Batzar Nagusien erabakiz. Hala ere, Elizak ez zion zaintza hau 1903 arte onartu. Begoña herriaren lehenengo aipua 1300. urtekoa da, Bilbo fundatu zutenekoa, hiri-bildua Begoñako lurretan sortu baitzuten, baina santutegia zaharra-goa da. Bizkaitarrek dioten fedearen adierazgarri dugu Klaudio Gallastegik idatzitako kantu ezaguna:

*Begoñako Andra Mari Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak zugana kantari.*

En Lamiako, grupo de casas al lado del barrio Txorierri.

En la época de la dictadura de Franco era común poner nombres de santos a los nuevos barrios que se construían. En este caso se eligió el nombre de la patrona de Bizkaia y no alguno de los favoritos del “Movimiento Nacional” como Santa Teresa o San José. Begoñako Andra Mari (Nuestra Señora de Begoña) es patrona de Bizkaia desde 1738, por decisión de las Juntas Generales. Sin embargo, la Iglesia no aceptó esta patrona hasta 1903. La primera mención del pueblo de Begoña es del año 1300, cuando se fundó Bilbao, ya que la villa se creó en las tierras de esta anteiglesia, pero el santuario es aún más viejo. Prueba de la fe que le profesan los vizcaínos es la conocida canción escrita por Klaudio Gallastegi:

*Begoñako Andra Mari Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak zugana kantari.*

*(Nuestra Señora de Begoña, patrona de Bizkaia
tus amados hijos vamos a ti cantando)*





Bidekurtzio

Izen osoa | Nombre completo: *Bidekurtzio plaza / Plaza Bidekurtzio*

Iparragirre etorbidearen paralelo dagoen plaza berria.

Bidekurtzio izena Elexaldeko desagertutako etxalde baten izena da, hain zuzen ere, izen bera daukan plaza honen inguruan zegoena. Izenaren forma zaharra *Bidakurtzio* da, *bide* (*bida*- hitz-elkarketan) eta *kurtzio* 'bidegurutzea' hitzez osatua. Beraz 'bidegurutzea' denborarekin esanahia ilundu zenean herri etimologiak *Bidekurtze* bihurtu zuen izena argitu nahian. *Kurtzio* hitza nahiko arrunta da Mendebaldeko toponimian eta Mundakan, esaterako, *Kurtzio* izeneko gurutzea dugu, 1611n eraikia.

Plaza nueva que está en paralelo a la avenida Iparragirre.

Bidekurtzio es el nombre de un caserío ya desaparecido del barrio Elexalde, que estaba en esta zona. El nombre antiguo es *Bidakurtzio*, formado de las palabras *bide* 'camino' en euskera (*bida* en las palabras compuestas) y *kurtzio* 'cruce' y significa 'cruce de caminos'. Con el tiempo, cuando se oscureció el significado, la etimología popular lo convirtió en *Bidekurtze*, queriendo aclarar el nombre. El nombre *Kurtzio* es bastante habitual en la toponimia occidental de Bizkaia y en Mundaka, por ejemplo, existe el cruce llamado *Kurtzio* construido en 1611.

Bilbo

Izen osoa | Nombre completo: *Bilbo kalea / Calle Bilbo*

Pinueta auzoko kale txikia, Nafarroa kalearen atzeko aldean, haren paralelo.

Bizkaiko hiriburuari zor dio izena kale honek. Ezaguna denez erdaraz ofiziala den *Bilbao* euskarazko izen arkaikoa da eta Euskaltzaindiak aspaldian esan zuen euskaraz *Bilbo* erabili behar dela, hori delako euskal idazleek historian zehar erabilitako izena. W. Shakespearek berak ere *Bilbo* esan zion Bizkaian egiten zen ezpata mota bat izendatzeko.

Calle pequeña del barrio Pinueta, situada detrás de la calle Nafarroa, paralela a esta.

Esta calle le debe el nombre a la capital de Bizkaia. Como es sabido, la forma *Bilbao* que se emplea en castellano es la variante arcaica del nombre en euskera. Euskaltzaindia hace tiempo dictaminó que el nombre que hay que utilizar en euskara es *Bilbo*, puesto que ésa es la denominación utilizada por los escritores vascos a lo largo de la historia. El mismo W. Shakespeare usó *Bilbo* para denominar un tipo de espada que se hacía en Bizkaia.

Bordeoena

Izen osoa | Nombre completo: *Bordeoena parkea / Parque Bordeoena*

Aldekoena auzoko parke berria.

Parke berri honek inguruan zegoen eta desagertua dagoen etxalde baten izena hartu du, *Bordeoena* etxaldea, hain zuzen ere (ezagutzen ez dugun *Bordeo* hitzez, eta *-ena* atzizkiak eratorritako etxe-izena). Ahoz toponimo honi *Bordeone* esaten zaio, amaierako *-ena* atzizkiaren ohiko ahoskera da *-ne*.

Ikus *Bordeoena* etxaldea

Parque nuevo del barrio Aldekoena.

Este nuevo parque ha tomado el nombre del desaparecido caserío llamado *Bordeoena*, que se situaba en esta zona. *Bordeoena* es un nombre de caserío derivado de *Bordeo*, palabra desconocida para nosotros, y del sufijo *-ena*. Oralmente a este lugar se le conoce como *Bordeone*, siendo *-ne* la pronunciación habitual del sufijo final *-ena*.

Véase caserío *Bordeoena*.

Cervantes

Izen osoa | Nombre completo: *Cervantes plaza* / *Plaza Cervantes*

Pinueta etxe-multzoko plaza.

Miguel de Cervantes Saavedra (Alcalá de Henares, 1547 - Madril, 1616) idazle espainiarraren omenezko plaza. Joan Austriakoaren armadarekin Lepantoko guduan ziharduela, ezkerreko besoa elbarri geratu zitzaion; hortik “Lepantoko besamotza” goitizena. Espainiara itzuli eta *La Galatea* (1585) artzain-nobela idatzi zuen, baina arrakasta handirik gabe. Armadarentzat horniketa-komisario gisa Andaluzia eta Mantxa eskualdeetan barrena ibili zen 10 urtez herriz herri eta esperientzia hark sortu zion bere lan nagusia idazteko ideia. *On Kixote Mantxako* nobelaren lehen zatia 1605ean argitaratu zuen, eta hamar urtera bigarrena. Espainiako Berpizkundeko eta, oro har, gaztelaniazko literaturaren obra nagusia da, nobelagintza modernoaren aitzindaria eta horren barruan nagusietakoa. Lan gehiago ere argitaratu zituen (*Nobela ereduak*, 1613; *Parnasorako bidaia*, 1614; *Zortzi komedia eta zortzi entremes*, 1615; *Persiles eta Sejismundaren lanak*, 1617).

Leioako izendegian dugun kanpoko idazle bakarra da Cervantes eta baten batek galde lezake zer dela eta ageri den izendegian. Franco-ren agintaldian ohikoa izan zen horrelako izenen erabilera bultzatzea espainolasuna indartu nahian.

Plaza del grupo de casas Pinueta.

Denominada así en honor al escritor Miguel de Cervantes Saavedra (Alcalá de Henares, 1547 – Madrid, 1616). Luchando en la armada de Juan de Austria en la batalla de Lepanto, perdió la movilidad del brazo izquierdo cuando un trozo de plomo le seccionó el nervio, y de este hecho proviene su apodo “el manco de Lepanto”. Volvió a España y escribió la novela pastoril “*La Galatea*” (1585), pero sin gran éxito. Durante 10 años trabajó para la armada como comisario de provisiones a lo largo de las regiones de Andalucía y La Mancha, y aquella experiencia le dio la idea para escribir su obra maestra. La primera parte de la novela *Don Quijote de la Mancha* se publicó en 1605 y la segunda parte 10 años después. Este libro es la obra maestra del Renacimiento español y de la literatura castellana en general, precursora de la novela moderna y dentro de ella una de las principales. Cervantes publicó también otros trabajos (*Novelas ejemplares*, 1613; *Viaje del Parnaso*, 1614; *Ocho comedias y ocho entremeses*, 1615; *Los trabajos de Persiles y Sigismunda*, 1617).

Cervantes es el único escritor no vasco que tenemos entre los nombres de leioa y la razón de que aparezca es debido a que durante el mandato de Franco era habitual impulsar la utilización de este tipo de nombres, para reforzar así la españolidad.

Dendariena

Izen osoa | **Nombre completo:** *Dendariena kalea / Calle Dendariena*

Iparragirre kalean hasi eta Inaurratzaga kalean amaitzen da.


Inaurratzaga auzoko etxalde baten izena da *Dendariena*. Izenak berak adierazten duen bezala, *dendari* (adiera bi izan ditzakeen hitza da: ‘denda duena’ eta ‘jostuna’) eta *-ena* edutezko atzizkia (etxalde-izenetan sarri erabilia) dira toponimo honen elementuak, alegia, ‘dendaria-aren etxea’ esan nahi du. Udalak inguruan zegoen etxalde gogoratzeko eman zion kale honi izen hau. Etxe honek 1704an *Inaurratzagaerdikoa* izena zuen eta 1745ko suteagian, berriz, *Dendarienainaurratzaga*.

Este vial empieza en la calle Iparragirre y termina en la calle Inaurritzaga.

Dendariena es el nombre de uno de los caseríos del grupo de casas de Inaurritzaga. Tal y como indica el nombre, *Dendariena* quiere decir la 'casa del sastre', ya que los elementos de este topónimo son *dendari* (se puede entender como 'tendero' o 'sastre') y el sufijo posesivo *-ena* que es utilizado a menudo en nombres de caseríos. El ayuntamiento le dio este nombre a esta calle para recordar el caserío Dendariena, que estaba en los alrededores. Esta casa en 1704 tenía el nombre de *Inaurritzagaerdi-koa* y en las fogueraciones de 1745 *Dendarienainaurratzaga*.

Dolores Ibaruri

Izen osoa | Nombre completo: *Dolores Ibaruri plaza / Plaza Dolores Ibaruri*



Dolores Ibaruri Gómez (Gallarta, 1895 - Madril, 1989), *Pasionaria* ezizenaz ezagunagoa, Espainiako Alderdi Komunistaren sortzailea izateaz gain, buru ezagun eta historikoa ere izan zen. Bigarren Errepublika garaian eta Gerra Zibilean egindako lanagatik ezaguna izan da bereziki. Berari esker egin ziren mundu osoan ezagunak Emiliano Zapatak eta Petain jeneralak esandakoak: *Más vale morir de pie que vivir de rodillas* eta *No Pasarán*. Emakume ezkertiarren kongresuko idazkari zela, bere herriko kantu bat abesteko eskatu eta *Gernikako Arbola* hautatu zuen. Euskal Herriarekiko bere maitasunaren adierazgarri dira alaben izen bi, Amagoia eta Amaia. Politikoki egin zuen borrokaz gain, Pasionariak borroka sutsua egin zuen emakumeen eskubideen alde, euren askatasunen alde batez ere.

Dolores Ibaruri Gómez (Gallarta, 1895 - Madrid, 1989), más conocida con el apodo de *Pasionaria*, además de ser fundadora del Partido Comunista de España, también fue una líder muy conocida e histórica de ese partido. Especialmente es conocida por el trabajo realizado durante la época de la Segunda República y en la Guerra Civil. Gracias a ella se hicieron famosas en todo el mundo las siguientes frases de Emiliano Zapata y el general Petain: *Más vale morir de pie que vivir de rodillas* y *No Pasarán*. Siendo secretaria del congreso internacional de mujeres de izquierda, le pidieron que cantara una canción de su tierra y ella eligió

la canción *Gernikako Arbola*. El nombre que les puso a dos de sus hijas, Amagoia y Amaia, es representativo del cariño que sentía hacia Euskal Herria. Además de la lucha que llevó a cabo políticamente, la Pasionaria realizó una lucha entusiasta a favor de los derechos de las mujeres, sobre todo a favor de sus libertades.

Donibane

Izen osoa | Nombre completo: *Donibane/ San Juan*

Eliza hau 1526ko urriaren 31n izendatu zen parrokia, Leioa Erandiotik bereiztean, lehenago baseliza bat baitzen, San Bartolome edo Ondizko Andra Mariakoak bezala. Hasiera batean ezin zen barruan lurperatu eta hildakoak Erandiora eraman behar izaten ziren, baina debeku hori berehala desagertu zen eta XIX. mendean 76 hilobi zituen barruan eta hilerri bat kanpoan herrikoak ez zirentzat.

XVII. mendeko dokumentazioan bikarioak egindako bisitak ageri dira eta bertan gauza bitxiak ikus daitezke. 1664an, esaterako, debekatu zuen elizaren barruan erretzea, baina debeku guztiak ez ziren berdin hartzen eta emakumeek mantilaz jantzita joan behar zutelako agintzean aurre egin zion Jaurerriak, bertako ohituren alde, eta irabazi. 1664ko ikustaldi horretan zehazten da jadanik elkarrekin bizi zirenak ezin zirela ezkondu tribunaletik pasa arte. Hau guztia euskaraz aldarrikatu zuela gaineratu zuen orduko abadeak: “*publiqué los mandamientos en lengua bascongada*” (aginduak euskaraz eman nituen).

1671n eskoteen kontrako agindua zabaldu zen. Donibane egunean, Bizkaian ohikoa zen bezala, herriko mutilak etxez etxe joaten ziren eta lizar eta elorritz egindako sortak uzten zituzten neskatilen leihoetan.

Ikus *Donibane* izena.

Esta iglesia fue nombrada parroquia el 31 de octubre de 1526 al separarse Leioa de Erandio. Anteriormente era ermita, al igual que la de San Bartolomé y Ondiz. En un principio no se podía enterrar a nadie y había que llevarlos a Erandio, pero esa prohibición desapareció rápidamente y en el siglo XIX había 76 tumbas dentro y un cementerio fuera para los que no eran del pueblo.

En la documentación del siglo XVII aparecen las visitas del vicario y hay algunas curiosidades. Por ejemplo: en 1664 prohibió fumar dentro de la iglesia; cuando ordenó que las mujeres fueran con mantilla el Señorío le hizo frente y ganó. En esa visita de 1664 también especificó que los que vivían juntos no podían casarse sin pasar antes por el tribunal eclesiástico. El sacerdote de aquel entonces añade que todo eso fue promulgado en euskera: “publiqué los mandamientos en lengua bascongada”. En 1671 extendió una prohibición contra los escotes.

El día de Donibane, como era habitual en Bizkaia, los chicos del pueblo iban de casa en casa y dejaban ramos de fresno y endrino en las ventanas de las casas de las chicas.

Véase *Donibane*.

Donibane plaza

Izen osoa | Nombre completo: *Donibane plaza / Plaza Donibane*

Done Joanes Bataiatzailearen aurrean dagoen plazak du izen hau. Euskaraz santua izendatzeko bi era erabili izan dira: Done Joan eta Done Joanes. Inoiz bat erabili izan da bataiatzailarentzat eta bestea ebanjelariarentzat, baina bereizketa hori ez da oso zabaldua izan. Leku-izen moduan era desberdinetan ageri da Bizkaian, batez ere Doniene moduan eta honen erakusgarri da Gaztelugatxeko ermita. Baina XX. mendean Donibane era nagusitu zen Euskal Herri osoan, Lapurdi eta Nafarroa Behereko herri ezagunengatik.

Plaza situada enfrente de la iglesia de San Juan Bautista.

Para designar este santo (San Juan) en euskara se han utilizado dos formas: Done Joane y Done Joanes. Alguna vez se ha utilizado uno para San Juan Bautista y el otro para San Juan Evangelista, pero esta distinción no ha tenido mucha extensión. Como nombre de lugar, aparece de distintas maneras: en Bizkaia sobre todo como Doniene. Como ejemplo nos encontramos la ermita de Gaztelugatxe. Pero en el siglo XX también adquirió importancia Donibane en toda Euskal Herria, debido a los pueblos de Lapurdi y de Nafarroa Beherea (Donibane Lohizune y Donibane Garazi).

Elelalde

Izen osoa | Nombre completo: *Elelalde etorbidea eta Elelalde parkea / Avenida Elelalde y Parque Elelalde*

Etorbidea: Iparragirre kalean hasi eta gora Aldekoena auzora heltzen den errepidea.

Parkea: Elelalde etorbidean udaletxera heldu aurretik dagoen parkea.

Elelalde auzo-izenak adierazten duen bezala, eliza dagoen aldea da. Hortaz, Elelalde etorbidea, jakina, Iparragirre etorbidetik gora Aldekoena auzora doan errepidea da.

Iñaki Ugarte Uriartek *Leioa: sus barrios y pluralidades* liburuan dio: “Al otro lado de la *estrada de Ollar-ondo*, en lo alto de la loma está el caserío “Legunti” [...]”, aipamen horrek pentsarazten digu garai batean Elelalde etorbidea *Ollarrondo* izenaz ezaguna izango zela, hori dirudi. Era berean, jakin behar dugu izen hori Elelalden zegoen *Ollarrena* izeneko etxalde-izenetik eratorria dela, *Ollar* eta *ondo* hitzez eratua. Etxaldea, ordea, *ollar* (seguru asko bertan bizi zenaren goitizena) eta *-ena* atzizkiak, hain zuzen ere, etxe izenetan maiz erabiltzen dena.

Ikus *Elelalde* toponimoa.

Avenida: Carretera que empieza en la calle Iparragirre y que va hacia arriba, hasta llegar al barrio Aldekoena.

Parque: Parque situado en la avenida Elelalde, justo antes de llegar al ayuntamiento.

Tal y como indica el nombre, Elelalde en euskara significa ‘zona cercana a la iglesia’. Por tanto, la avenida Elelalde es la carretera que va desde la avenida Iparragirre hacia arriba, hasta el barrio Aldekoena.

Iñaki Ugarte Uriarte en su libro *Leioa: sus barrios y pluralidades* comenta lo siguiente: “Al otro lado de la *estrada de Ollar-ondo*, en lo alto de la loma está el caserío “Legunti” [...]”. Esta mención hace pensar que quizás en alguna otra época la avenida Elelalde era conocida como *Ollarrondo*. Así mismo, sabemos que este nombre es derivado del nombre del caserío situado en Elelalde llamado *Ollarrena* (*Ollar* + sufijo *-ena*), formado por las palabras *Ollar* ‘gallo’, seguramente el sobrenombre de alguien que vivió allí y *ondo* ‘junto a’.

Véase el topónimo *Elelalde*.

Errekalde

Izen osoa | Nombre completo: *Errekalde plaza / Plaza Errekalde*

Kultur Leioa eraikinaren aurrean dagoen plazatxoa.

Errekalde izena Elexalde auzoan, goian, Elexalderrotaren atzean dagoen etxaldearen izena da.

Errekalde toponimoa *erreka* eta *alde* hitzez konposatutako izena da, maiz lekuaeren erreferentzia gisa erabilia, baina ohikoak dira ere abizenetik eratorritako etxalde-izenak. Erdaraz ohikoa izan da *Erre*-hasiera duten toponimoetan hasierako silaba galtzea eta *Re*-bihurtzea. Ez dakigu, zehatz mehatz, gertaera honen atzean zer dagoen, erdal maileguetan euskaldunek erantsi ohi duten bokal protetikoak delakoan (*errege*, *errebuelta*..) kentzea edo gaztelanizko *de* preposizioak eragitea (*de Errekalde*..), baina ondorioa izan da *Recalde* bezalako forma nagusitzea dokumentazioan, euskaldunek bestelakoa esaten bazuten ere.

Plaza pequeña situada en frente del edificio Kultur Leioa.

El topónimo Errekalde pertenece al caserío que se encuentra detrás de Elexalderrota en el barrio Elexalde.

El topónimo Errekalde es un nombre compuesto por las palabras *erreka* y *alde*, a menudo utilizado como referencia del lugar, pero también son habituales nombres de caseríos derivados de apellidos. En castellano ha sido habitual la supresión de la sílaba inicial en los topónimos vascos que empiezan por *Erre* y su conversión en *Re*. No sabemos con total exactitud cuál es la razón de este cambio, si supresión, pensando que es la vocal protética que en euskera se antepone en préstamos (*errege*, *errebuelta*), o consecuencia de la preposición castellana *de* (*de Errekalde*), pero la consecuencia es que la forma *Recalde* es la más común en la documentación, pese a que los vascohablantes usasen *Errekalde*.

Errotabide

Izen osoa | **Nombre completo:** *Errotabide kalea / Calle Errotabide*

Iparragirre etorbidean hasi eta Elexalderrotaraino igotzen den kalea.

Izenak berak kalearen norabidea adierazten du, alegia, *errot*a eta *bide* hitzek hori adierazten dute: errotara doan bidea, hain zuzen ere, Elexalderrotara doana.

Calle que empieza en la avenida Iparragirre y que sube hasta Elexalderrota.

El mismo nombre indica la dirección de la calle, es decir, las palabras *errot*a 'molino' y *bide*a 'camino' indican eso: 'camino que va al molino'. En este caso a Elexalderrota.

Estartetxe

Izen osoa | **Nombre completo:** *Estartetxe kalea / Calle Estartetxe*

Elexalde etorbidean hasi eta Etxebarrikoena eta Dendariena kaleak zeharkatu eta gero, Iparragirre etorbidearen paralelo doan kalea.

Gaur egun Jose Ramon Aketxe plaza dagoen inguruan egongo zen etxalde hau, Mateoena eta Antoniena etxaldeekin batera. *Estarta* (latinezko *strata* hitzaren euskal mailegatua) eta *etxe* hitzez konposatutako izena da. Ziurrenik *estrata* (inguru honetan *estarta* aldaera da erabiliagoa) ondoan zegoelako izango zuen izen hori, eta estarta gaur egun Iparragirre etorbidea edo Elexalde etorbidea direnetako bat izango zen.

Calle que empieza en la avenida Elexalde y que, tras cruzar las calles Etxebarrikoena y Dendariena, va paralela a la avenida Iparragirre.

Este caserío, junto con los caseríos Mateoena y Antonieta, se situaba en el lugar donde hoy en día se sitúa la plaza José Ramón Aketxe. Estartetxe es un nombre formado por las palabras *estarta* (préstamo en euskera de la palabra latina *strata*) y *etxe* 'casa'. Probablemente la razón del nombre del caserío fuera su situación al lado de la estrada, la cual hoy en día la ocuparía la avenida Iparragirre o bien la avenida Elexalde.

Etxebarrikoena

Izen osoa | Nombre completo: *Etxebarrikoena kalea / Calle Etxebarrikoena*

Ahoz *Etxebarriñe* izenez ezagutzen zen Etxebarrikoena deitutako etxea zegoen bertan. Izenak berak dioen bezala, Etxebarritarrek eraiki zuten, eta XX.mendekoa zen.

En ese lugar se encontraba la casa Etxebarrikoena del siglo XX, que oralmente era conocida como *Etxebarriñe* y que fue construida por la familia Etxebarri, tal y como indica el nombre 'la casa de Etxebarria'.

Euskal Etxeen plaza

Izen osoa | Nombre completo: *Euskal Etxeen plaza / Plaza de Euskal Etxeak*

Luis Libano eta Sabino Arana kaleen artean kokatuta.

Plaza honetan munduan barna banaturik dauden Euskal Etxeak omendu nahi dira. Bereziki ugariak dira Hego Amerikan, askotan diktaduratik ihesi joan zirenek sortuak, baina Ipar Amerikan ere bada, munduko beste leku askotan bezala.

Plaza ubicada entre las calles Luis Libano y Sabino Arana.

Mediante esta plaza se ha querido homenajear a las Euskal Etxeak (Casas Vascas) que se encuentran repartidas por todo el mundo. Especialmente son abundantes en Sudamérica, creadas muchas veces por los vascos que huyeron de la dictadura, pero también se encuentran en Norteamérica, al igual que en otras partes del mundo.



Euzko Gudariak

Izen osoa | Nombre completo: *Euzko Gudarien etorbidea / Avenida Euzko Gudariak*

Ondiz auzoan hasi eta Iparragirre etorbidean amaitzen da.

2011ko martxora arte *Txabi eta Joseba Etxebarrieta etorbidea* izena zuen, baina epailearen aginduz aldatu behar izan zuen udalak eta 1936-39ko gerran parte hartu zutenak omentzeko *Euzko Gudariak* izena eman zion.

Txabi Etxebarrieta (Bilbo, 1944 - Tolosa, 1968). Diktaduraren aurka borrokatu zen, eta 1968an Jose Pardines guardia zibila Villabonan hil eta gero Bentaundin hil zuten beste tiroketa batean. Hurrenez hurren ETAK hildako lehenengo pertsona eta hildako lehenengo ETAKidea izan ziren.

Joseba Etxebarrieta (Bilbo, 1940 - 1973), aurrekoaren anaia, Burgosko prozesuan Xabier Izko de la Iglesiaren abokatua izan zen eta diktaduraren kontrako borroka armatuaren ideologotzat jo izan da.

Diktadura garaian *Rafael Cervera* izena zuen kale honek. Ez dakigu zein Cervera izan zen hau. Melillara bere itsasontziarekin Francoren matxinatuekin bat egitera joaten saiatu zen Sánchez Barcaiztegui itsasontziarekin eta epaitu eta gero fusilatu zutena ala Baleares itsasontzian hil zen alferez bat, edo baliteke beste hirugarren bat izatea.

Calle que empieza en el barrio Ondiz y termina en la avenida Iparragirre.

Hasta marzo de 2011 esta calle se llamaba *Avenida Txabi eta Joseba Etxebarrieta*, pero se le tuvo que cambiar el nombre por decisión judicial y el ayuntamiento le puso *Euzko Gudariak*, queriendo homenajear a los que en la Guerra de 1936-39 lucharon por la libertad y contra el fascismo.

Txabi Etxebarrieta (Bilbo, 1944 - Tolosa, 1968). Luchó contra la dictadura y en 1968 mató al Guardia Civil José Pardines en Villabona, más tarde lo mataron en un tiroteo en Bentaundi. Estas personas fueron, respectivamente, la primera víctima de ETA y el primer miembro de ETA muerto.

Joseba Etxebarrieta (Bilbo, 1940-1973), hermano del anterior, fue abogado de Xabier Izko de la Iglesia durante el proceso de Burgos y se ha considerado uno de los ideólogos de la lucha armada en contra de la dictadura.

Durante la dictadura, esta calle se llamó *Rafael Cervera*, pero no sabemos a qué Cervera hacía referencia: al que fue a reunirse con los amotinados de Franco a Melilla; a un alférez de este apellido que murió en el barco *Baleares*, o a un tercero.

Felipe del Río

Izen osoa | Nombre completo: *Felipe del Río kalea / Calle Felipe del Río*

Lamiakoko dartsenaren ondoan.

Lehenago kale hau *Calle Dársena de Lamiako / Lamiakoko Dartsenaren kalea* deitu zen, baina udalak izena erraztu behar zela ikusi zuen. Izen berria hautatzean 74 urte lehenago bertan Demokraziaren alde hildako Felipe del Río omentzea erabaki zuen.

Felipe del Río (Nueva Montaña, Kantabria, 1912 - Leioa 1937) Lamiakoko aireportuan zegoen *Gloriosaren* (Espainiako Errepublikaren

EGUNA

Euzkadi'ren seme ona
ixateko, beraren aldez
bixitza emoleko gerturik
egon biaz da.
(ARANA GORKA)

Lgo. urtia | 96'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao's 197'gn. jarraitu 22'gn. berria | 15 eunen

EUIZKO GUDA-OÑETAN

**Mendian eta urietan, egazkiñen
buñuka biziak**

Gure egazkiñak paxisten suagalari bat luferatu eben Elgeta - Eloñio bitartean egindako buñuka baten; Bilbao ingurutan beste bi suz bete eta galdu. - Bata, "Heinkel" etakua, itxasoan jausi zan; bestea itxasertzean. - Gure aldetik bat galdu gendun. - Elgeta'n lez Karastain'en, arerioak zigor edera artu eban.



Aire Armada) eskruadillaren burua zen. Gerra hasi zenean Bilbon zen eta Gobernuaren esanetara aurkeztu zuen bere burua. Hasieratik egon zen Lamiakoko aireportuan, nahiz eta geroago hainbat lekutatik borrokatu. Urtarrilaren 4an Bilbo eraso nahi zuen Junkers-52 bat bota zuen, baina kidea zen Juan Roldán pilotua hil zuten. 1937ko apirilaren 20an haren zazpigarren abioia bota zuen lurrera, bi egun beranduago airea hartu zuen azkeneko aldiz Leioa eta Getxo erosotzera zetorren Condor Dibisioiko abioiengandik babesteko eta etsaien Messerschmitt Bf 109en tiroek hilda erori zen Leioako lurretan. Pozgarria da legalitatea eta askatasunaren alde bizitza eman zuen pilotu honen izena oroitzen duen kale bat egotea bizitza eman zuen lekuaren ondoan.


Junto a la dársena de Lamiako.

Anteriormente esta calle se denominó *Dársena de Lamiako / Lamikoko Dartsenaren kalea*, pero el ayuntamiento decidió que se debía racionalizar el nombre. Al elegir uno nuevo, se optó por el de Felipe del Río, muerto allí mismo 74 años antes defendiendo la Democracia.

Felipe del Río (Nueva Montaña, Cantabria, 1912 - Leioa, 1937) era el comandante de la escuadrilla de **La Gloriosa** (Fuerzas Aéreas de la República Española) que estaba en el campo de aviación de Lamiako. Al comenzar la Guerra, estaba en Bilbao y se presentó a las autoridades gubernamentales, por lo que desde el principio estuvo en Lamiako, aunque después luchó en más lugares. El día 4 de enero derribó uno de los Junkers-52 que querían bombardear Bilbao, pero en la lucha falleció su compañero Juan Roldán. El día 20 de abril de 1937 derribó el avión número siete, pero dos días más tarde despegó por última vez para defender Leioa y Getxo de los aviones de la división Condor y muerto por las balas de los Messerschmitt Bf-109 del enemigo cayó sobre la tierra de Leioa. Es grato que una calle recuerde a este piloto que dio su vida a favor de la legalidad y la libertad.

Gabriel Aresti

Izen osoa | Nombre completo: *Gabriel Aresti kalea / Calle Gabriel Aresti*



Lamiakon, metro errailen ezkerreko aldeko kalea da.

Euskal idazle eta poeta bilbotarra (Bilbo, 1933-1975). Merkataritza-ikasketak egin eta ogibidez enpresa-kontularia izan zen. Euskaldun berria zen. Euskal poesia modernoaren eta antzerkiaren bultzatzaile eta berriztatzailerik nabarmenena izan zen. 1957an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta gramatika-alorreko *Batasunaren kutxa* eta, Xabier Kintanarekin lankidetzan, *Hiztegi ttipia* liburuak idatzi zituen. Hainbat literatur genero landu zituen. Poesian *Maldan Behera* balio literario handiko 21 poemaren bilduma argitaratu zuen, bertan literatura klasikoan azaldutako ahapaldiez gain,

gutziz berriak diren beste batzuk ere moldatuz (1960); *Harri eta Herri* (1964) poesia sozialeko obra ospetsua kaleratu zuen eta ildo beretik jo zuen 1967ko *Euskal Harria*, 1970eko *Harrizko Herri Hau* eta 1976ko *Azken Harria* liburuetan. Hainbat sari eskuratu zituen lanongatik. Nolanahi ere, beste genero batzuk ere landu zituen, antzerkigintza eta itzulpengintza, besteak beste.

Frankismoaren garaian kale hau bitan zegoen zatituta, eta *Marcelino Oreja* eta *Plaza España* izenak zituen. Marcelino Oreja Elósegui (Ibarangelu, 1891 - Arrasate, 1934) Arrasateko Unión Cerrajerako kudeatzailea eta politikari ezaguna izan zen. 1934ko "iraultzan" preso eraman zuten sozialistek herriko Casa del Pueblo-ra eta Dagoberto Resustarekin batera hil.

Ezbairik gabe Arestiren lanik ezagunena *Nire Aitaren Etxea* da, munduko hizkuntzetara gehien itzuli den poemetako bat:

*Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut.*

*Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldik gabe,
bularrrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraumen du
zutik.*

En Lamiako, es la calle de la parte izquierda de las vías del metro.

Escritor y poeta bilbaino (Bilbao, 1933 - 1975). Realizó estudios mercantiles y de profesión fue contable de empresa. "Euskaldunberri", empezó a aprender euskera a los 12 años de forma autodidacta. Fue el más notable impulsor y renovador de la poesía moderna vasca y del teatro vasco. En 1957 le nombraron académico correspondiente de Euskaltzaindia y en el ámbito de la gramática escribió los libros *Batasunaren kutxa* e *Hiztegi tipia*, junto a Xabier Kintana. Trabajó en diferentes géneros literarios. En poesía publicó la colección *Maldan behera* (1960) de 21 poemas de gran valor literario donde, además de las estrofas que aparecen en la literatura clásica, adaptó otras completamente nuevas; publicó la famosa obra de poesía social *Harri eta herri* (1964) y siguió el mismo camino en los libros *Euskal harria* (1967), *Harrizko herri hau* (1976) y *Azken harria* (1976). Ganó varios premios por estos trabajos. De todas formas, también trabajó otros géneros, como el teatro y la traducción.

Su obra más conocida es *Nire Aitaren Etxea* (*La casa del padre*) uno de los poemas más traducidos a otros idiomas.

En la época del franquismo esta calle se encontraba dividida en dos, y se llamaba *Marcelino Oreja* y *Plaza España*. Marcelino Oreja Elósegi (Ibarrangelu, 1891 - Arrasate, 1934) fue gerente de la empresa Unión Cerrajera de Arrasate y un famoso político. En la revolución de 1934, los socialistas se lo llevaron preso a la Casa del Pueblo de Arrasate y lo mataron junto a Dagoberto Resusta.

Gaztelubide

Izen osoa | Nombre completo: *Gaztelubide kalea / Calle Gaztelubide*

Lamiakon hasi eta Artatzako suhiltzaileen eraikinera heltzen den kalea.

Kalea dagoen inguruari Gaztelueta deritzo, izan ere inguru hartan Getxoko alderdian forte batzuk izan ziren, euskaraz *gazteluak*; hori dela-eta maiz dokumentazio zaharrean *castillo* erdal formaz dokumentaturik ageri da, baina, besteak beste, *heredad de Gastelueta solos* (1865, LUA) eta *castelueta* (1683, BFA) bezalako formek argi erakusten digute euskarazko forma erabili izan dela, eta bestea itzulpena baino ez dela.

Kale honek, *gaztelu* eta *bide* elementuez osatua, Gaztelueta ingurura doan bidea adierazten du.

Calle que empieza en Lamiako y que llega al edificio de bomberos de Artatza.

A la zona donde se sitúa la calle se la conoce como Gaztelueta, ya que en ese entorno, cerca de Getxo, existieron unos fuertes (*gazteluak* en euskera). Por ello, esta zona a menudo en la documentación antigua aparece con la forma castellana *castillo*, pero toponimos menores como, entre otros, *heredad de Gastelueta solos* (1865, AML) o *Castelueta* (1683, DFB) dejan ver claramente que el nombre original es el eusquérico y que la forma castellana, *Castillo*, no es más que la traducción realizada por la administración.

Tal y como indica el nombre, que está formado por los elementos *gaztelu* 'castillo' y *bide* 'camino', esta calle indica el camino que lleva a la zona de Gaztelueta.

Herribitarte

Izen osoa | Nombre completo: *Herribitarte kalea / Calle Herribitarte*

Autonomia kaletik, Ibaizabaletik alegia, Santa Ana kalera doana.

Ibaiondo auzunean, Lamiakon, Getxo eta Leioa udalerriek partekatzen duten kalearen izena eta bien muga markatzen duena da.

Hortik datorkio izena, hain zuen ere, *herri* eta *bitarte* (artean) hitzen konposaketa da, bi herrien artean baitago.

Calle que va desde la calle Autonomía, es decir, desde Ibaizabal, hasta la calle Santa Ana.

En el barrio de Ibaiondo, en Lamiako, denomina la calle que comparten los municipios de Getxo y Leioa, y que marca la frontera entre los dos.

Horoskopo parkea

Izen osoa | Nombre completo: *Horoskopo parkea / Parque Horoskopo*

Sarrienako futbol zelaiaren inguruan.

Udalak egin duen parke honetan zelten horoskopoa da oinarria. 21 zuhaitz espezie daude hirunaka landatuta eta oinarrian plaka bat zeinetan zein zuhaitz mota den —euskaraz, espainolez eta latinez—, zein datatan datorren bat pertsonen jaiotzarekin eta zuhaitz bakoitzaren ezaugarriak agertzen dira.

En los alrededores del campo de fútbol de Sarriena.

En este parque, que ha hecho el ayuntamiento, hay un horóscopo celta. Hay 21 especies de árboles, plantados de tres en tres y con una placa en la base de cada tronco donde se especifica en tres idiomas (euskera, castellano y latín) tipo de árbol, fecha de su plantación y los nombres de las personas nacidas el mismo día y las características de cada árbol.



Ibaiondo

Izen osoa | **Nombre completo:** *Ibaiondo plaza / Plaza Ibaiondo*

Izenak berak dioen bezala, Ibaizabal ibaiaren ondoan eraikitako plaza da.

Ibaiondo izena arrunta da Euskal Herriko toponimian eta kasu honetan futbol zelaitik hartu zuen izena plazak. Leku honetan Tabernatxu izeneko taberna izan zen.

Como el mismo nombre indica, es la plaza construida al lado del Ibaizabal.

Ibaiondo es un nombre común en la toponimia de Euskal Herria y en este caso la plaza tomó el nombre del campo de fútbol. En este lugar estuvo el bar Tabernatxu.

Ikea

Izen osoa | **Nombre completo:** *Ikea kalea / Calle Ikea*

Ikea auzoan, izen bera duen muinoaren azpiko kalea.

Ikea, auzoa izan baino lehenago, Leioako muinoa izan da, 68 metroko altueran dago. Izen zaharra eta ongi errotua udalerrian. Berez, gaur egun erabiltzen ez bada ere, euskal hitza da eta ‘muinoa’ adiera du.

En el barrio Ikea, calle de debajo de la colina del mismo nombre.

Ikea antes que barrio ha sido y es una colina de Leioa, que tiene una altura de 68 metros. Es un topónimo antiguo y bien arraigado en el municipio. La palabra *ikea* es una palabra de vasca que significaba ‘colina’, aunque hoy en día es prácticamente desconocida.



Ikeabbarri

Izen osoa | Nombre completo: *Ikeabbarri plaza / Plaza de Ikeabbarri*

Ikea ondoko kalea.

Ikea toponimoa, Leioako gain ezagunena eta *barri* adjektiboaz sortutako leku-izen berria. Duela gutxi arte banatuta idatzi izan bada ere, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak emaniko irizpideen arabera lotuta idatzi behar da leku-izen hau, Etxebarri eta Uribarri adibide ezagunetan bezala. Udalak Euskaltzaindiaren gomendioei jarraitu, eta berriki idazkera egokia ofizial egin du.

Calle situada en el barrio Ikea.

Nombre de lugar nuevo creado con el topónimo *Ikea* (la colina más conocida de Leioa) y el adjetivo *barri* 'nuevo'. Aunque hasta hace poco se ha escrito por separado, según los criterios de la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, este nombre de lugar se debe de escribir junto, como Etxebarri y Uribarri, por poner dos ejemplos conocidos El Ayuntamiento ha seguido las recomendaciones de Euskaltzaindia y recientemente ha hecho oficial la grafía correcta.

Inaurratzaga

Izen osoa | Nombre completo: *Inaurratzaga kalea / Calle Inaurritzaga*

Artatzaganetik udaletxe aldera doan kalea da

Inaurratzaga gaur egun izen hau daraman kale honen inguruan ze goen etxalde multzoaren izena da. Ahoz *Iñortza* eta *Iñortzas* esaten diote toponimo honi. Izenaren laburtzea euskarazko ebakera arunta da, baina erdaraz -s gehitu zaio inguruan ohikoa den bezala.

Ikus *Iñaurratzaga* baserria.

Calle que va desde el ayuntamiento a Artatzagana.

Inaurritzaga es el nombre de un grupo de caseríos que se encontraba en los alrededores de esta calle que lleva este nombre hoy en día. Oralmente a este topónimo se le conoce como *Iñortza* en euskera e *Iñortzas* en castellano. La forma apococada *Iñortza* es propia del euskera hablado, pero la terminación en -s sigue la costumbre castellanizante de la zona.

Véase caserío *Iñaurratzaga*.

Independentzia

Izen osoa | Nombre completo: *Independentzia kalea / Calle Independentzia*

Artatzan hasi eta Ondizerantz joan eta gero Sabino Arana kalean sartzen den kale luzea.

Mendekotasunik eza, burujabetza; inoren menpean ez denaren nolakotasun eta egoera da *independentzia*. Denboran zehar lurralde, edo hobeki esan, lurralde batzuetako gizatalde askoren ametsa izan da inoren menpe ez bizitzea. Batzuetan ametsa egi bihurtu da, azken independentzia Sudanena da, eta beste kasuetan, berriz, ase ez den nahia da oraingoz. Juridikoki, independentzia unitate politikoa bihurtzen datza.

Euskal herritarren talde handi baten desioa, abertzaleena hain zuzen ere, irudikatu nahi du kale-izen honek.

Vial de gran longitud que empieza en Artatza, se dirige a Ondiz y que finalmente entra en la calle Sabino Arana.

Falta de subordinación, soberanía; la independencia es la situación y cualidad de quien no está subordinado a nadie. A través del tiempo la independencia ha sido el deseo de muchos lugares, o mejor dicho de los habitantes de los mismos. En ocasiones el sueño se ha hecho realidad, como en Sudan, y en otros sigue siendo un deseo incumplido. Jurídicamente la independencia se concreta en una entidad política propia.

Este nombre de calle quiere representar el deseo de una gran parte de los habitantes de Euskal Herria, concretamente de los nacionalistas vascos.

Iparragirre

Izen osoa | Nombre completo: *Iparragirre etorbidea eta Iparragirre zeharkalea / Avenida Iparragirre y travesía Iparragirre*

Leioa erdibitu egiten duen etorbide nagusia, urteetan autogidaren amets gaiztoa.

1950eko Estatistika Nomenklatorrean dokumentatzen da lehenengoz.

Jose Maria Iparragirre Balerdi (Urretxu, 1820 - Ezkio-Itsaso, 1881) olerkari eta konpositore gipuzkoarra izan zen. Txikitan aitak Zerainera bidali zuen, bere osabak erdara eta gramatika irakats ziezazkion. Familia Madrilerara joan eta San Isidro del Real jesuiten ikastetxean



sartu zuten (1833). Lehen Karlistadan karlisten alde parte hartu zuen foruak defendatzearren eta atzerriratu behar izan zuen. Bere gitarra besapean harturik, Suitza, Italia eta Alemanian barna ibili ondoren, Frantziara itzuli eta, bertatik bidali zutenean, Florentziako antzerki-talde bati elkaturik jardun zuen Ingalaterran. Indultu bati esker Euskal Herrira itzultzeko baimena izan zuen (1853). Orduan, herriak himnotzat hartuko zuen *Gernikako Arbola* famatua konposatu zuen. Abesti honek foruen alde zeuden karlista, liberal eta nazionalistak batu zituen; hori arriskutsutzat hartu zuten agintariak eta Euskal Herritik egotzi egin zuten (1855). Ameriketara artzain ibili eta Buenos Airesen urte batzuk igaro ondoren, itzuli eta Madrilgo Teatro Realen omenaldi beroa eskaini zioten (1879).

Euskal Herri osoarentzat sinbolo bilakatuta, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako aldundien eta Nafarroako zenbait euskaltzaleren dirulaguntzari esker bizi izan zen azken urteetan. Abesti asko konposatu zuen; guztiak Euskal Herrian eta bere bizitzan oinarritutakoak, hala nola: *Ume eder bat*; *Zibilak esan naute*; *Agur Euskalerrinari*; *Gitarra zartzoko bat da*; *Nere maitearentzat*, etab.

Avenida principal de Leioa que va por encima de la Avanzada y que divide en dos Leioa.

Se documenta por primera vez en el Nomenclátor de Estadística de 1950.

Jose María Iparragirre Balerdi (Urretxu, 1820 - Ezkio-Itxaso, 1881) fue un conocido poeta y compositor. De pequeño, su padre lo mandó a Zerain para que su tío le enseñara castellano y gramática. La familia emigró a Madrid y él empezó a estudiar en el colegio jesuita de San Isidro del Real (1833). En la primera Carlistada, con el fin de defender los fueros, participó en el lado carlista y tuvo que exiliarse. Con su guitarra bajo el brazo, tras recorrer Suiza, Italia y Alemania, regresó a Francia y cuando lo echaron de allí, se dedicó a recorrer Inglaterra junto a un grupo de teatro de Florencia. Gracias a un indulto, tuvo permiso para volver a Euskal Herrira (1853). Entonces, compuso el famoso *Gernikako Arbola* que el pueblo asumió como himno. Esta canción unió a los carlistas, liberales y nacionalistas que estaban a favor de los fueros; las autoridades tomaron como pe-

ligroso esto y lo expulsaron de Euskal Herria (1855). En América trabajó de pastor y tras pasar unos años en Buenos Aires, volvió y en el Teatro Real de Madrid le ofrecieron un cálido homenaje (1879).

Se convirtió en un símbolo para toda Euskal Herria y los últimos años de su vida sobrevivió gracias a la ayuda económica de las diputaciones de Gipuzkoa, Bizkaia y Álaba y de algunos euskaltzales de Navarra. Compuso muchas canciones, todas ellas basadas en Euskal Herria y en su modo de vida, como: *Ume eder bat*, *Zibilak esan naute*, *Agur Euskalerrinari*, *Gitarra zartxo bat da*, *Nere maitearentzat*, etc.

Iturribide

Izen osoa | Nombre completo: *Iturribide auzunea / Barrio Iturribide*

Elexaldeko auzunea, Jose Ramon Aketxe plaza eta Ikea kalearen artean.

Auzo hau Leioa handitzearekin batera sortu zen. Izen arrunta da errekan zegoen iturrirako bidea adierazten duena, baina bide xume hau garai batean Elexalde eta Santi Mami lotzen zuen bide nagusia zen, herriko garrantzitsuenetako bat, errepidea egin baino lehen Bilborako lotura zelako.

Situado entre el barrio Elexalde, la plaza José Ramón Aketxe y la calle Ikea.

Este barrio nació junto a la ampliación de Leioa. Es un nombre común que indica el camino que se dirige a la fuente (*iturri* 'fuente'; *bide* 'camino'). Esta pequeña estrada durante una época fue la vía principal que unía Elexalde y Santi Mami, una de las más importantes de Leioa, puesto que antes de hacerse la carretera era el camino hacia Bilbao.

Iturriondo

Izen osoa | Nombre completo: *Iturriondo kalea / Calle Iturriondo*

Kandelazubietako biribilgunean hasi eta industria-gunearen albo batetik doan kalea Udondon.

Udondon desagertutako etxalde baten izena da *Iturriondo*, XIX. mende amaierako etxaldea, eta berriki desagertu dena. *Iturribondo* formaz ere dokumentatzen da, baina jatorrizko forma *Iturriondo* dela



Iturriondo

ematen du, *iturri* eta *ondo* hitzez konposatutako izena. Etxaldea izen bera daraman kalean zegoen.

Calle de Udondo que empieza en la glorieta de Kandelazubieta y que va por el lateral de la zona industrial.

Iturriondo es el nombre de un caserío del siglo XIX, recientemente desaparecido y que estaba en Udondo. Se documenta también con la forma *Iturribiondo*, pero parece que la forma original es *Iturriondo*, formado por las palabras *iturri* 'fuente' y *ondo* 'junto a'. El caserío estaba en la calle que hoy día lleva el mismo nombre.

Joaquín Achúcarro

Izen osoa | **Nombre completo:** *Joaquín Achúcarro Abrisqueta kalea / Calle Joaquín Achúcarro Abrisqueta*

Negurigane kalearen paraleloa den hau Elexalde auzoan dago. Bertako urbanizazioaren ondorioz ez da zuzena eta sartu-irtenak edukitzeaz gain tarte batean Artatza kaleak ordezkatzen du.

Joaquín Achúcarro Abrisqueta (Bilbo, 1932) pianista bilbotar eza-guna da. Gazte-gazterik hasi zuen ibilbide profesionala Bilbon bertan, baina Madrilera joan zen ikasketak amaitzera. Hainbat sari jaso zituen, besteak beste, 1950ean Masaveu saria.

Nazioarteko hainbat lehiaketa irabazi zituen: Parisko Marguerite Long, Ginebrako Nazioarteko Lehiaketa eta 1953an Viotti de Vercelli lehiaketa (Italia). 1959an, Liverpool Saria jaso zuen urtean, ekin zion benetan kontzertu-emaile lanei. 1992. urtean espainiar Gobernuak Musika Sari Nazionala eman zion, eta 1996. urtean Espainiako Erregeak Arte Ederren Urrezko Domina eman zion.

Está en el barrio Elexalde, es paralela a la calle Negurigane. Debido a la urbanización, no es recta y además de tener entradas y salidas, en un tramo lo sustituye la calle Artatza.

Joaquín Achúcarro Abrisqueta (Bilbao, 1932) es un conocido pianista de Bilbao. Comenzó su carrera profesional de muy joven en Bilbao, pero tuvo que ir a Madrid a acabar sus estudios. En esa época recibió muchos premios, entre otros, el premio Masaveu en 1950.

Posteriormente ganó premios a nivel internacional: Marquerite Long de París, Certamen Internacional de Ginebra y en 1953 el Certamen Viotti de Vercelli en Italia. En 1959 recibió el Premio Liverpool y empezó a dedicarse realmente a los conciertos. En 1992 el gobierno español le otorgó el Premio Nacional de Música y en 1996 el rey de España la Medalla de Oro a las Bellas Artes.

Jose Ramón Aketxe

Izen osoa | Nombre completo: *Jose Ramón Aketxe plaza / Plaza Jose Ramón Aketxe*

Iparragirre etorbidea eta udaletxe artean eraikitako plaza berria zeinetan Kultur Leioa eraikina dagoen.

1871n Jose Ramon Aketxe jaunak, Jose Antonio Ondizekin batera, “Ondiz-Aketxe” Fundazioa sortu zuen haurren doako irakaskuntza sustatzeko, eta Elexaldeko eskola eraiki zuten. Irakasleei ordaintzeko diru nahikorik ez zela-eta, Jose Ramon Aketxek bere poltsikotik eskaini zien soldata irakasleei.

Haurren irakaskuntzaz arduratzeaz gain, gaur egungo udaletxea eraikitzeko lanetan zuzenean hartu zuen parte. Gainera, hil osteko testamentuan udalerriko txiroei dirua utzi zien eta beste dirutza bat utzi zuen San Joan elizako kanpai-dorrea konpontzeko.



Jose Ramon Aketxe

1950eko Nomenklatorrean jasota ageri da plaza hau dagoeneko, beraz Udalak aspaldian eman zion izena plaza honi.

Plaza nueva construida entre la avenida Iparragirre y el ayuntamiento, dentro de ella se ubica el edificio Kultur Leioa.

En 1871 el señor Jose Ramon Aketxe, junto a Jose Antonio Ondiz, creó la Fundación "Ondiz-Aketxe", con el fin de promover la enseñanza gratuita de niños, y construyeron la escuela de Elexalde. Dado que no había dinero suficiente para pagar a los profesores, Jose Ramon Aketxe les ofreció de su propio bolsillo el sueldo a los mismos.

Además de preocuparse de la enseñanza de los niños, tomó parte de forma directa en la construcción del actual edificio del ayuntamiento. Además, en su testamento legó dinero a los pobres del pueblo y otra gran cantidad de dinero para arreglar el campanario de la iglesia de San Juan.

Esta plaza aparece ya recogida en el Nomenclátor de 1950, es decir, el ayuntamiento hace mucho tiempo dio dicho nombre a esta plaza.

Juan Ajuriagerra

Izen osoa | Nombre completo: *Juan Ajuriaguerra plaza / Plaza Juan de Ajuriaguerra*

Lamiako lurpekoaren geltokiaren atzeko aldean, Lamiakorantz.

Juan de Ajuriagerra Otxandiano (Bilbo, 1903 - Aiegi, 1978). Euzko Alderdi Jeltzalearen kide ezaguna izan zen. Ingeniaria lanbidez, 1936ko gerran EAJ-ko Bizkai Buru Batzarreko burua izan zen. Eusko Gudarostea Santander aldean preso egin zutenean, bera Iparraldetik itzuli zen gudariekin batera atxilotu zezaten. Heriotza zigorra jarri zioten, nahiz eta azkenean gauzatu ez. Kartzela barruan egonda eta 1943az geroztik kartzelatik kanpo, EAJ-ko burukide nagusia izan zen 40 urtez klandestinitateko erresistentzian eta baita demokraziako lehenengo urteetan ere, hil zen arte. Bere eragina politikan hitz labur hauetan bildutakoa baino askoz ere harago joan zen.

En dirección a Lamiako, en la parte trasera de la parada del metro de Lamiako.

Juan de Ajuriaguerra Otxandiano (Bilbo, 1903 - Aiegi, 1978) fue un conocido miembro del Partido Nacionalista Vasco. De profesión ingeniero, en la guerra de 1936 fue presidente del Bizkai Buru Batzar del PNV. Cuando hicieron preso al Eusko Gudarostea (Ejército Vasco) cerca de Santander, él volvió para ser también arrestado con los combatientes. Le impusieron la pena de muerte, aunque luego no se ejecutó. Estando en la cárcel y después de 1943, fuera de la cárcel, fue el líder principal del PNV en 40 años de resistencia en la clandestinidad y también en los primeros años de la democracia hasta que falleció. Su importancia en la política fue mucho más allá que lo que se ha podido recoger en estas pocas palabras.

Kandelazubieta

Izen osoa | Nombre completo: *Kandelazubieta kalea / Calle Kandelazubieta*

Iparragirre eta Sabino Arana arteko kalea.

Kandelazubieta, kaleari ez eze, Udondoko auzo inguru horri ere esaten zaio. Gainera, XX. mendean Kandelazubieta izenaz gain, inguru horri Vistalegre ere deitu izan zaio. Baina ez dakigu zein den izen txandakatzeko horren jatorria.

Kandelazubieta toponimoaren etimologia ez dago oso argi, bai ordea, izena osatzen duten elementuak: *kandela* eta *zubi* hitzak gehi *-eta* atzizkia. Ez dakigu, ostera, zergatik sortu zen izen hori. Udondo inguruan erreka ugari biltzen da eta beraz zubiekin lotura izango du ziurrenik; kandela elementuaz ezin dugu gauza gehiago argitu.

Udondoko errotaren ondoan, gaur egun Dow Chemical enpresa dagoen inguruan hain zuzen ere, zubi bat izan zen Erandioko Axpe ingurua Getxoko udalerriarekin errepidez biltzen zuena. Zubi hari “zortzi begiko zubia” izena eman zioten.

Calle entre Iparragirre y Sabino Arana.

Kandelazubieta se llama, tanto a la calle, como a toda esa zona del barrio Udondo. Además, en el siglo XX, a esa zona se la ha conocido también como Vistalegre, pero desconocemos cuál ha sido el origen de esa alternancia de nombres.

La etimología del topónimo Kandelazubieta no está muy clara, pero sí, en cambio, los elementos que forman la palabra: *kandela*, *zubi* ‘puente’ y el sufijo *-eta*. Por otro lado, se desconoce por qué surgió ese nombre. En la zona de Udondo se unen varios ríos lo que explica la necesidad de puentes para cruzarlos. Sobre el elemento *kandela* no podemos aclarar mucho más.

Al lado del molino de Udondo, concretamente en los alrededores del lugar donde hoy en día se ubica la empresa Dow Chemical, existía un puente que unía por carretera la zona de Axpe de Erandio con el municipio de Getxo. A este puente lo denominaron el “puente de los ocho ojos”.

Lamiakoko dartsena (Ikus / Véase *Felipe del Río*).

Landabarri

Izen osoa | Nombre completo: *Landabarri bidea (paseoa) / Camino de Landabarri (paseo)*

Laubide kalea eta Basarte etorbidearen artean dago, suhiltzaileen parez pare.

Kale izen berria da. Gaur egun hiru etxebizitza eraikin handik osatzen dute kale hau. Landabarri etxe izena da, baita etxe-izen horretatik eratortitako kale horretara jaisten den errekaostoa ere (Landabarri erreka). Seguru asko XX. mende hasieran eraikitako etxea da.

Se sitúa entre la calle Laubide y la avenida Basarte, frente a los bomberos.

Es un nombre de calle nuevo. Hoy en día, esta calle la forman tres grandes edificios de viviendas. Landabarri es un nombre de casa, así como el nombre de un riachuelo que baja a esa calle derivada del nombre de casa: *río Landabarri*. Lo más probable es que Landabarri sea una casa construida a principios del siglo XX.

Langileria

Izen osoa | Nombre completo: *Langileria kalea / Calle Langileria*

Lamiako auzoa zeharkatzen duen kale nagusia, Aketxen hasi eta Aretara heltzen dena.

Leioako historia, Erandiokoa bezala, estuki loturik dago industrializazioarekin, eta ondorioz, langile mugimenduekin. Langileen omezez eman zion Udalak kale bati Langileria izena. Ez da, era berean, harritzekoa kalea Lamiako auzoan egotea.

Frankismo garaian, ohikoa zenez, kaleei frankisten eta Jeneralaren izena eman ohi zitzaien. Kale honek *Avenida del Generalísimo Franco* izena izan zuen. Jakina, berori hil ostean jarri zioten Langileria izena kaleari.

Hala ere, diktadorearen izena hartu aurretik, kale honek *Eduardo Earle* izena zuen, herriko semea eta Delta lantegiko sortzaileetako bat izan zena. Lantegiaren inguruan hainbat eta hainbat etxebizitza sortu zituen eta herri-bizitzan elkarrizketa bultzatu eta kirol azpiegiturak sustatu zituen. 1925ean Udalak seme ordeko izendatu zuen eta kale honi izena eman zion. Izen hori eman aurretik kale honek *Delta* kalea izena zuen.

Calle principal que recorre el barrio Lamiako, que empieza en Aketxe y que llega hasta Areeta.

La historia de Leioa, al igual que la de Erandio, está estrechamente ligada a la industrialización y, por tanto, a las movilizaciones de trabajadores. El ayuntamiento le dio el nombre Langileria (clase trabajadora) en honor a los trabajadores. Del mismo modo, no es de extrañar que esta calle se sitúe en Lamiako.

En la dictadura franquista, era habitual, que a las calles se les diesen nombres de inspiración fascista. Esta calle tuvo el nombre de *Avenida del Generalísimo Franco*. Por supuesto, no se cambió el nombre a *Langileria* hasta después de la muerte del dictador.

Sin embargo, antes de tomar el nombre de *Franco*, esta calle también se llamó *Eduardo Earle*, hijo del pueblo y uno de los fundadores de la fábrica Delta. Alrededor de la fábrica construyó muchas viviendas y en la vida del pueblo impulsó el diálogo y promovió infraestructuras deportivas. En 1925 el Ayuntamiento lo nombró hijo predilecto y dio su nombre a esta vía. Inicialmente esta calle se llamaba *Delta*.

Larrakoetxea

Izen osoa | Nombre completo: *Larrakoetxea auzunea* / Barrio *Larrakoetxea*

Sarriematik Perurira doan bidean dago.

Ahoz *Larrekotze* izenaz ezagutzen den baserria Sarriena auzotik Peruri auzora doan bidean dago. Inguruko auzuneak izen bera hartu du.

Ikus *Larrakoetxea* etxaldea.

En el camino desde Sarriena a Peruri.

El caserío que oralmente se conoce como *Larrekotze* se ubica en el camino que va desde Sarriena a Peruri. El barrio ha tomado el mismo nombre de esta casa.

Véase caserío *Larrakoetxea*.

Larramendi

Izen osoa | Nombre completo: *Larramendi plaza / Plaza Larramendi*

Getxoko mugan Amaia eta Gaztelubide kaleen artean. Lehenago *Claudio Arrola* izena zuen kale honek.

Aita Migel de Larramendi (Andoain, 1690 - Loiolako jesuiten komentua, 1766) euskal idazle, suspertzaile eta apologista gipuzkoarra izan zen. Hamazazpi urterekin jesuitetan sartu zen. Filosofia Medina del Campon eta Teologia Salamancako Unibertsitatean ikasi zituen. Sermolari trebea eta entzute handiko hizlaria izanik, itzal handia lortu zuen. Jenioz bizia eta alaia, borrokalari eta zirikatzaile abila zen eta euskararen etsaiak isilarazteko hitzekin jolas egitea atsegin zuen. Kultura handi eta zabalekoa zela erakutsi zuen euskararen eta euskaldunen jatorriari buruz edo euskal foruen defentsan eskaintako liburuetan. Jesuitetan halako giro literarioaren suspertzailea izan zen.

Jakintsua eta zorrotza, hainbat euskaldun kultu euskara defendatzera eta euskaraz idaztera bultzatu zituen. Jarraitzaile ugari izan zituen: Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Lizarraga Elkanokoa, etab. Euskal apologista gartsua izan zen, baina oso gutxi idatzi zuen euskaraz: Mendibururen *Jesusen Biotzaren Devocion* liburuaren hitzaurrea, eskutitzak eta berak erdaraz idatzitakoetan barreiaturiko euskarazko olerki eta hainbat pasarte. Lan politikoak ere prestatu zituen: *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España*, 1728; *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*, 1736; *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* eta oso ezaguna den *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal Provincia de Guipúzcoa* (~1756). Euskarari buruzko lanetan, lehen euskal gramatikatzat hartu izan den *El Imposible vencido* ("Ezina egina" izenez ezaguna, 1729an Salamancan argitaratua) eta *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (1745) dira lan aipagarrienak.

Esta plaza está en el límite de Getxo, entre las calles Amaia y Gaztelubide. Anteriormente se llamaba *Claudio Arrola*.

Aita Migel de Larramendi (Andoain, 1690 - Convento de los jesuitas de Loiola, 1766). Fue un escritor vasco, alentador y apologista guipuzcoano. Con diecisiete años entró en los jesuitas. Estudió Filosofía en Medina del Campo y Teología en Salamanca. Era un predicador muy hábil y consi-

guió un gran prestigio. Tenía mucho genio y le gustaba acallar a los enemigos del euskera con palabras mordaces. Poseía una cultura muy amplia y lo demostró en los libros que dedicó al euskera, a la procedencia de los vascos o a la defensa de los fueros.

Era sabio y riguroso y empujó a diversos vascos cultos a defender el euskera y a escribir en euskera. Tuvo muchos seguidores como Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos o Lizarraga. Fue un gran apologista vasco, pero escribió muy poco en euskera: el prólogo del libro de Mendiburu *Jesusen Biztaren Devocioa*, cartas y algunos poemas y pasadizos en libros escritos en castellano. También preparó trabajos políticos: *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España*, 1728; *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*, 1736; *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* y la muy conocida *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal Provincia de Guipúzcoa* (~1756). En lo referente al euskera, los trabajos más importantes son *El imposible vencido*, la considerada primera gramática del euskera, publicado en Salamanca en 1729 también conocido como "Ezina egina" y *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (1745).

Laubide

Izen osoa | **Nombre completo:** *Laubide kalea / Calle Laubide*

Artatzan, Basaez auzoa eta erdigunea lotzen dituen kalea da.

Kale honek bertan dagoen Laubide etxeari zor dio izena, hain zuzen ere. Etxeak, era berean, inguruari zor dio izena. Izan ere, lau bide batzen diren lekuan, gaur egun biribilgune txiki bat osatzen duena, eraikita dago.

Calle del barrio Artatza que une el barrio Basaez y el centro.

Esta calle debe su nombre a la casa Laubide que está en esa zona, y la casa al lugar. De hecho, en ese lugar se juntan cuatro caminos (*laubide* en euskera significa 'cuatro caminos') y hoy en día hay una pequeña rotonda.

Lekueder

Izen osoa | Nombre completo: *Lekueder kalea / Calle Lekueder*

Landabarri bidea eta Estartetxe kalearen artekoa.

Toponimo berria da. XX. mendearen hastapenetan modan jarri zen etxe berriak izendatzeko horrelako izenak asmatzea (Leku Eder, Ene Habia, Itsas Begia...) eta, esaterako, ugariak ziren Neguri auzoan. Diktaduran ere, batez ere 50. hamarkadatik aurrera ugariatu ziren, nahiz eta agintarien gustukoak izan ez.

Calle entre el camino Landabarri y la calle Estartetxe.

Es un topónimo moderno. A comienzos del siglo XX se pusieron de moda esta clase de nombres nuevos como Leku Eder, Ene Habia, Itsas Begia y son habituales por ejemplo en Neguri. Incluso en la dictadura, a partir de la década de los 50 no eran pocos, aunque no fueran del gusto de las autoridades.

Luis Bilbao Libano

Izen osoa | Nombre completo: *Luis Bilbao Libano kalea / Calle Luis Bilbao Libano*

Noiz izendatua: 1992ko irailaren 12an / 12 de septiembre de 1992

Iparragirre etorbidean hasi eta Udondoko biribilgunean amaitzen den kalea.

Luis Bilbao Libano, (Leioa, 1902 -Venezuela, 1985) medikuntza ikasi eta 1937an Eusko Jaurlaritzarentzat gaur egungo Osakidetza dena sortu zuen. Urte hartan bertan Baionara joan zen gerran zaurituak eta desplazatuak sendatzera. Ipar Katalunian ere aritu zen lan horretan eta gerra amaitu zenean, Afrikara eta azkenean Venezuelara joan behar izan zuen. Afrikan Dakar eta Kasablankako Pasteur Institutuetan lan egin zuen eta gero Venezuelan Elkar Sorosteko Euskal Elkartea sortu eta Euzkadiko Gobernuaren ordezkaria izan zen.

Euskal Herriko Unibertsitateak Diktadura ostean *Honoris Causa Doktoorea* izendatu zuen. Udalak 1992an herriko kale nagusietako bati haren izena emateko erabakia hartu zuen.

Calle que empieza en la avenida Iparragirre y que acaba en la glorieta de Udondo.

Luis Bilbao Libano (Leioa, 1902 – Venezuela, 1985) estudió medicina y en 1937 creó para el Gobierno Vasco lo que hoy en día es Osakidetza. En aquel mismo año fue a Baiona a curar a los heridos y desplazados de la guerra. Realizando estas tareas también trabajó en el norte de Cataluña y, cuando finalizó la guerra, tuvo que exiliarse a África primero y después a Venezuela. En África trabajó en los Institutos Pasteur en Dakar y Casablanca y luego en Venezuela creó la Asociación Vasca de Socorros Mutuos y fue representante del Gobierno Vasco.

Tras la dictadura, la Universidad del País Vasco le nombró Doctor Honoris Causa. En 1992, el ayuntamiento tomó la decisión de dar su nombre a una de las principales calles del municipio.

Maiatzaren bata

Izen osoa | **Nombre completo:** *Maiatzaren bata kalea / Calle Maiatzaren bata*

Amaia kalearen ondoan.

Maiatzaren batean urtero Langileen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Langile mugimenduaren egun handia da eta munduko herrialde gehienetan jai eguna da, 1889ko Bigarren Internazionalistan egindako Langileen Kongresu Sozialistan erabaki bezala.

Chicagoko martirien omenezko eguna da. Estatu Batuetan 1886ko maiatzaren batean, Haymarketeko Matxinada baino lehentsuago zortzi orduko lan-jardunen alde borrokatu ziren eta tiroz hil zituzten langileen omenez.

Diktadura garaian borroka egun hau ordezkatzeko saiatu ziren *San José Obrero* (San Josef Langilea) bultzatuz eta hori dela eta, *San José Artesano* izena zuen kale honek.

Junto a la calle Amaia.

Todos los años se celebra el Día Internacional de los Trabajadores y es festivo en la mayor parte del mundo, tal como se decidió en el Congreso de los Trabajadores Socialistas de la Segunda Internacional de 1889.

El día se celebra en memoria de los mártires de Chicago. En recuerdo de los trabajadores que el uno de mayo 1886, algo antes de la revuelta de Haymarket, fueron tiroteados cuando luchaban a favor de una jornada laboral de 8 horas.

Durante la dictadura, intentaron sustituir este día por el de *San José Obrero*, y por eso, esta calle se llamaba *San José Artesano*.

Manuel Irujo

Izen osoa | Nombre completo: *Manuel Irujo plaza / Plaza Manuel Irujo*

Txorierrri auzoko goiko aldean dagoen plaza.

Manuel de Irujo y Ollo (Lizarra, 1891 - Iruñea, 1981) abokatu nafarra eta politikari abertzalea. Euzko Alderdi Jeltzalearen kide eza-guna izan zen. 1936ko gerra atarian, Euskadiko Autonomi Estatutuaren truke Errepublikako ministro izatea onartu zuen. Lan horretan atxilotuen trukaketak bultzatu zituen eta ehundaka pertsona salbatu zuen heriotzatik. Guda amaieran erbesteratua, Europa eta Ameriketara ibili zen Euzko Jaurlaritzaren ordezkari legez. Demokraziarekin batera itzuli zen Euskal Herrira eta politikan aritu zen hil arte. Esanguratsua da bere dekalogoaren hasiera.

Plaza de la parte superior del barrio Txorierrri.

Manuel de Irujo y Ollo (Estella/Lizarra, 1891 - Pamplona/Iruñea, 1981). Abogado navarro y político nacionalista. Fue un conocido miembro del Partido Nacionalista Vasco. Al inicio de la guerra de 1936 fue ministro de la República a cambio del Estatuto de Autonomía. De ese modo, impulsó los cambios de los presos y salvó a cientos de personas de la muerte. Al final de guerra fue exiliado y recorrió Europa y América como representante del Gobierno Vasco. Volvió a Euskal Herria en la democracia y trabajó en política hasta su muerte. Su decálogo empieza así:

1. Declaro y afirmo que soy navarro de nacimiento y de corazón, y, por lo tanto vasco, como los gipuzkoanos, los alaveses, bizkainos, laburdinos y zuberanoas;
2. Que mi patria chica es Nabarra, llamada antiguamente Vasconia, uno de los Estados libres del País Vasco o Euskadi, y ésta es la verdadera y única patria de todos los vascos;
3. Que como navarro y vasco, no soy francés ni español, sino vasco solamente; ...
10. Que los vascos de todas las clases sociales tengan acceso a la riqueza y el bienestar generales de la patria, sin exclusivismo ni monopolio. Libertad y Fueros.

Maximo Agirre

Izen osoa | Nombre completo: *Maximo Agirre kalea / Calle Máximo Agirre*

Lamiako inguruko kalea.

XIX. mendeko erdialdean, Maximo Agirre Ugarte merkatari eta industriari bilbotarrak (Bilboko alkate ere izandakoak) lursail batzuk erosi zituen Getxo eta Leioako mugetan. Gobela eta Udondo ibaiak bideratzeko lanak sustatu zituen eta industria gunea indartu zuen udalerrian. Bere ondorengoek ere lotura estua izan dute udalerrri honekin. Besteak beste, “Viuda de Maximo Aguirre e Hijos” sozietateak Lamiakoko aldaketan zeresan handia izan zuen.

1894ko Estatistiken Nomenklatorrean jadanik kale-izen gisa ageri da.

Calle de la zona de Lamiako

A mediados del siglo XIX, el comerciante e industrial bilbaíno Máximo Agirre compró unas tierras en el límite entre Getxo y Leioa. Promovió los trabajos para encaminar los ríos Gobela y Udondo e impulsó la zona industrial del municipio. Sus descendientes han tenido una estrecha relación con este municipio. Entre otros, la sociedad “Viuda de Máximo Aguirre e Hijos”, que ha tenido gran importancia en el cambio que dio Lamiako.

En el Nomenclátor de la Estadística de 1894 ya aparecía como calle.

Mendibil, Mendibilbarri eta Mendibilostekoa

Izen osoa | Nombre completo: *Mendibilbarri kalea, Mendibil kalea, Mendibil parkea eta Mendibilostekoa kalea / Calle Mendibilbarri, calle Mendibil, parque Mendibil y calle Mendibilostekoa*

Iparragirre etorbidea eta Ikea arteko kale multzoa.

Menbilbarri eta Mendibilostekoa bertan izan ziren etxaldeetatik hartu dute izena, Mendibil jauregia, berriz, oraindik bertan da.

Ahoz Mendibile esaten bazaio ere, amaierako *-e* paragogiko hori ez da zuzena. Oso joera berria da eta kontsonantez amaitutako toponimoei erantsi ohi zaie deklinabide kaltetu baten ondorioz. Hortaz, Mendibil izan behar du idatzizko forma egokia.

Zona entre la avenida Iparragirre e Ikea.

Mendibilbarri y Mendibilostekoa han tomado el nombre de dos caseríos ya desaparecidos que estaban en esa zona, el palacio Mendibil se mantiene completamente renovado.

Aunque oralmente sea conocido como *Mendibile*, la -e paragógica final no es correcta. Es una tendencia bastante nueva y se suele añadir a palabras terminadas en consonante por consecuencia de una declinación errónea. Por tanto, la forma escrita correcta es *Mendibil*.

Negurigana

Izen osoa | Nombre completo: *Negurigana kalea / Calle Negurigana*

Basaez auzoko kalea

1903an, desamortizazioaren ondorioz, saldutako Getxoko herri lurretan *loruri* (“ciudad jardín”) bat antolatzea erabaki zuten. Hiru sozio ziren, Aresti, Gorbeña eta Amann, eta Euskaltzaindiaren sortzailea eta lehenengo burua izan zen Resurrección María Azkuek *Neguri* izena asmatu zuen, “neguko hiria”. Hori dela eta, Gabriel Arestik geroago, txantxetan, Azkue beraren bigarren deitura egokiagoa izango zela esan zuen, deitura hau *Aberasturi* baitzen.

XX. mendearen bigarren erdialdean pisuetako etxeak eraiki ziren *Neguri* auzoaren aurrez aurre eta *Negurigane* izena eman zitzaion, *-gane* amaierarekin jatorragoa zelakoan.

Calle del barrio Basaiz

En las tierras que se vendieron a causa de la desamortización de 1903, se decidió construir una ciudad jardín en la zona de Getxo. Los socios fueron Aresti, Gorbeña y Amann, y el fundador y primer miembro de Euskaltzaindia Resurrección María Azkue inventó el nombre *Neguri*, “neguko hiria” ‘ciudad de invierno’. Más tarde, Gabriel Aresti bromeó con este hecho diciendo que habría sido más apropiado el segundo apellido de Azkue, *Aberasturi* (*aberats* ‘rico’).

En la segunda mitad del siglo XX se construyeron casas de pisos en frente del barrio *Neguri* y se les puso el nombre *Negurigana*.



Ondizko Andra Maria

Izen osoa | Nombre completo: *Ondizko Andra Maria kalea / Calle Andra Maria de Ondiz*

Independentzia eta Iparragirre arteko kalea.

Ondiz auzoko ermitaren adbokazioa Erremedioetako Andra Maria da. Peruri auzoko San Bartolome ermitarekin batera, herriko ermita zaharrena zen, San Joan parrokia baino lehenagokoa. Nahiz eta gaur egun jaiera edo debozio handiegirik ez izan, 1567an Portugaleten bazen *Santa Maria de Ondiz* izeneko itsasontzi bat (nao), Otsoa Larrea izeneko jaun batena. Baseliza hau gotorleku bihurtu zuten Azken Karlistadan itsasadarreko mugimenduak oztopatzeko.

Ondizko Andra Maria irailaren 8an ospatzen da, meza eta erromeria izaten dira, hurrengo egunean, ostera, *Andramarixu* jaia, eta ondorengo domekan berriro ospakizuna.

Jai egunean honako bertso hauek kantatzen dira:

*«Andra Maria Gure Ondizkoa
goiko zeruko loria
entzun egiguz geure agalak
amatxu maite maitia».*

[G. ARREGI: *Ermitas de Vizcaya*, 1987]

Vía que está entre las calles Independentzia e Iparragirre.

La advocación de ermita de Ondiz, está dedicada a Nuestra Señora de los Remedios. Junto con la ermita San Bartolomé de Peruri, es una de las más antiguas de Leioa, anterior a la parroquia de San Juan. Aunque hoy en día no goza de gran devoción, en 1567 existía en Portugalete un buque (nao) denominado *Santa María de Ondiz*, propiedad de Otsoa Larrea.

Esta ermita fue un fuerte durante las Guerras Carlistas para dificultar los movimientos en la ría.

La festividad se celebra el 8 de septiembre con una misa y una romería, el día siguiente se celebra *Andramaritu*, y el siguiente domingo hay una celebración más. Los días festivos se cantan los anteriores versos.

Ondizko parkea

Izen osoa | Nombre completo: *Ondizko parkea / Parque Ondiz*

Izenak berak dioen bezala, Ondiz auzoko plaza eta parkea da.

Ikus *Ondiz* toponimoa.

Tal y como indica el nombre es la plaza y el parque del barrio Ondiz.

Véase el topónimo *Ondiz*.

Orixe

Izen osoa | Nombre completo: *Orixe plaza / Plaza Orixe*

Getxoko mugan, Pinueta inguruan.

Nikolas Ormaetxea, “Orixe” ezizenaz ezagutzen dugun euskal idazleak Jesuitetan egin zituen ikasketak eta irakasle izan zen jesuiten eskoletan (Orexa, 1888 - Añorga, 1961). Berak apaiztu egin nahi zuen, baina ez zuen lortu, jesuitek ez baitzuten onartu. Gerra Zibilaren garaian Iruñean preso eduki zuten sei hilabetez; gero, Ipar Euskal Herrian, Frantzia, Argentinan, Txilen, Perun, Bolivian eta El Salvadorren egon zen. Han idatzi zuen *Quito'n arrebarekin* saiakera mistikoa *Euzko Gogoan* argitaratua (1950-54). Ameriketatik itzuli eta Euskal aldizkarietako kolaboratzaile izateaz batera, Euskaltzaleak elkarteak sorturiko euskal berpizkundearen kide garrantzitsuenetakoa izan zen, eta eragin handia izan zuen idazle gazteengan, bere kritika literarioaren bitartez bereziki. Hori guztia *Euskaldunak Poema XV Kantuetan* liburuan bildu zuen (1934). Beste hainbat lan (*Santa Kruz apaiza*, 1929; *Iruleak*, 1929; *Lizardiren azken-olerkiak*, 1933; *Urte guziko Meza-bezperak*, 1949), itzulpenak (Kixote liburua XV. ka-

pitulua, 1928; *Tormes'ko itsu-mutilla*, 1929; *Mistral-en Mireio*, 1930) eta poesia lanak egin zituen (*Barne muinetan*, 1934). Hiru gai eta joera nagusitzen dira Orixeren obran; antimodernismoa, erlijioarekiko atxikimendua eta erromantizismo idealista. Hizkera klasiko erabili zuen eta deskripzio guztiz objektiboa du ezaugarri. Euskaltzain osoa ere izan zen (1957-61).

En el límite con Getxo, cerca de Pinueta.

El escritor Nikolas Ormaetxea, "Orixe" (Orexa, 1888 - Añorga, 1961) estudió en los jesuitas y fue profesor en los mismos. Quiso ser sacerdote, pero no pudo porque los jesuitas no lo aceptaron. Durante la Guerra Civil estuvo preso en Pamplona durante seis meses; después fue a Ipar Euskal Herria, Francia, Argentina, Chile, Perú, Bolivia y El Salvador. Allí escribió el ensayo místico *Quito'n arrebarekin* que fue publicado en *Euzko Gogoa* (1950-54). Al volver de América, fue colaborador de revistas vascas y miembro importante de Euskaltzaleak, tuvo gran influencia en los escritores jóvenes, especialmente mediante sus críticas literarias. Todo ello lo recogió en el libro *Euskaldunak Poema XV Kantuetan* (1934). También hizo otros trabajos (*Santa Kruz apaiza*, 1929; *Iruleak*, 1929; *Lizardiren azken-olerkiak*, 1933; *Urte guziko Meza-bezperak*, 1949), traducciones (capítulo XV del Quijote, 1928; *Tormes'ko itsu-mutilla*, 1929; *Mistral-en Mireio*, 1930) y poesía (*Barne muinetan*, 1934). En la obra de Orixe predominan tres temas: el antimodernismo, el afecto por el cristianismo y el romanticismo idealista. Utilizó una expresión clásica y descripciones completamente objetivas. Fue académico de Euskaltzaindia entre 1957 y 1961.

Otsobarrena

Izen osoa | Nombre completo: *Otsobarrena kalea / Calle Otsobarrena*

Udondoko bigarren biribilgunean hasi eta Iturriondo kalearekin bat egiten du beste biribilgune batean.

Otsobarrena etxaldea gaur egun kale horretan eraiki dituzten etxebizitza handiak dauden tokian zegoen, eta oso berriki, etxebizitzak eraiki aurretik eraitsi zuten. Etxaldea XVIII. mende hasierakoa zela pentsa liteke, 1745eko fogerazioetan edo etxebizitzaren erroldan dokumentatu baita lehenengoz, ez 1704an.

Empieza en la segunda rotonda de Udondo y se junta con la calle Iturriondo en otra rotonda.

El caserío Otsobarrena estaba en la zona actualmente ocupada por casas nuevas, por lo que ha sido derruido recientemente. El edificio era de principios del siglo XVIII, ya que se documenta por primera vez en las fogueraciones de 1745, pero no en 1704.

Pinosolo

Izen osoa | **Nombre completo:** *Pinosolo parkea / Parque Pinosolo*

Artatza eta Elexalde artean dagoen parkea.

Pinosoloko lurak Zuiako markesak, Alberto Aznar y Tutorrek, erosi zituen 1902an Artatza zegoen jauregia bezalako beste bat eraikitze-ko asmoz. Etxea eraiki bitartean familiaren aisialdirako erabiltzen zuten eta tenis-zelai bat ere izan zuen. 1918an hasi zituen lanak, baina bera hiltzeaz batera, 1923an, lanak bertan behera geratu ziren. Luzez egon ziren etxe izango zenaren aztarnak zutik, sortzen zuten arriskua zela-eta bota zituzten arte. Ikusi Artatzabeko sarrera, hori baitzen Pinosolo baserriaren benetako izena.

Parque que está entre Artatza y Elexalde.

Las tierras de Pinosolo las compró el marqués de Zuia, Alberto Aznar y Tutor, en 1902 para hacer un palacio parecido al que estaba en Artatza. Mientras construían el edificio, utilizaron las tierras para el ocio de la familia y llegaron a tener una pista de tenis. Las obras empezaron en 1918, pero tras su muerte en 1923 quedaron paralizadas. Los restos han permanecido durante años hasta que se derribaron por el peligro que entrañaban. Véase *Artatzabekoa*, ya que es el nombre real del caserío Pinosolo.

Ramon Rubial

Izen osoa | **Nombre completo:** *Ramon Rubial plaza / Plaza Ramón Rubial*

Lamiakon dagoen plazatxoa.

Ramon Rubial Cavia (Erandio, 1906 - Bilbo, 1999). Agintari sozialista, Alderdi Sozialistaren burua izan zen 1976-1999 bitartean, eta autonomia aurreko garaiko Euskal Kontseiluko burua (1978-1979).

Gazte hasi zen alderdi sozialistan eta 1930ean atxilotu zuten monarkiaren kontrako greba bategatik. Gerran borrokatu zuen eta preso hartu zuten Bilbon. Kartzelatik irten zenean buru-belarri aritu zen PSOE berrantolatzen eta demokrazia heltzean hainbat aldiz kargu politikoetarako hautatu zuten.

Plaza situada en Lamiako.

Ramón Rubial Cavia (Erandio, 1906 - Bilbo, 1999). Mandatario socialista, fue presidente del Partido Socialista entre 1976-1999 y presidente del Consejo Vasco anterior a la autonomía (1978-1979). Empezó joven en el partido socialista y fue detenido por una huelga en contra de la monarquía. Luchó en la guerra y fue capturado en Bilbao. Cuando salió de prisión estuvo reorganizando el PSOE y con la llegada de la democracia fue elegido para cargos políticos diversas veces.

Sabino Arana

Izen osoa | Nombre completo: *Sabino Arana etorbidea / Avenida Sabino Arana*

Iparragirre etorbidean hasi eta Agirre Lehendakariaren plazan amaitzen da.

Sabino Policarpo Arana Goiri (Abando (Bilbo), 1865 - Sukarrieta, 1903) euskal politikari, idazle eta ideologoa izan zen eta euskal abertzaletasunaren aitatzat dute askok. Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen eta Bizkaiko diputatua ere izan zen. Bere adierazpen politiko-engatik kartzelaratu zuten, Kubako independentzia goratzeagatik, hain justu. Hainbat sinbolo sortu zituen, besteak beste, *Euskadi* hitza eta *ikurriña*; horretaz gain, euskal onomastika erabat aldatu zuen Izendegia. Bertan Iñaki, Miren, eta beste anitz izen ageri dira.

Addison gaixoak jota hil zen 38 urte zituela, baina ordurako hainbat lan idatzi zituen: prentsa artikulua, saiakerak, literatura eta poemak. Den-denak bere ideologiaren erakusle argiak.

Frankismoaren garaian kale honek bitan zatiturik, *Calvo Sotelo* eta *General Mola* izenak izan zituen. Jose Calvo Sotelo politikaria, ministroa izan zen Primo de Riberaren diktaduran eta diputatua bigarren errepublikan. 1936an hil zuten sozialistek eta hori dela-eta diktaduran *Protomártir de la Cruzada* edo *Protomártir del Movimiento Nacional* izendapena eman zioten. Mola jenerala agintean zegoen



Nafarroan 1936an estatu kolpea izan zenean eta bere agindupean ehunka abertzale, errepublikar eta ezkertiar erail eta desagerrarazi zituzten. 1937an abioi istripu batean hil zen. Urte bat lehenago, uz-tailaren 19an, ondoko hitzak idatzi zituen:

Hay que sembrar el terror... hay que dejar la sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros.

Pablo Neruda idazleak *Mola en los Infiernos* poema eskaini zion:

“Es arrastrado el turbio mulo Mola, de precipicio en precipicio eterno, y como va el naufragio de ola en ola, desbaratado por azufre y cuerno, cocido en cal y hiel y disimulo, de antemano esperado en el infierno, va el infernal mulato, el Mola mulo, definitivamente turbio y tierno, con llamas en la cola y en el culo”.

Empieza en la avenida Iparragirre y termina en la plaza Agirre Lehendakaria.

Sabino Policarpo Arana Goiri [Abando (Bilbo), 1865 - Sukarrieta, 1903] político vasco, escritor e ideólogo. Muchos lo consideran el padre del nacionalismo vasco. Fundador del Partido Nacionalista Vasco, fue diputado

de Bizkaia y encarcelado por sus declaraciones políticas, concretamente, por ensalzar la independencia de Cuba. Creó distintos símbolos como la *ikurriña* o la palabra *Euskadi* y un santoral donde aparecen nombres como Iñaki o Miren que cambió totalmente la onomástica vasca.

Murió aquejado de addison con 38 años, pero para entonces ya había publicado diversos trabajos: artículos de prensa, ensayos, literatura y poemas. Todos ellos, claro ejemplo de su ideología nacionalista vasca.

En la época del franquismo, la calle estaba dividida en dos y se llamaba *Calvo Sotelo* y *General Mola*. José Calvo Sotelo fue ministro de política durante la dictadura de Primo de Ribera y diputado en la segunda república. En 1936 lo mataron los socialistas y por eso fue nombrado *Protomártir de la Cruzada* o *Protomártir del Movimiento Nacional*. El general Mola estaba al mando en Navarra durante el golpe de estado de 1936 y durante su mandato hizo desaparecer y asesinar a cientos de nacionalistas, republicanos e izquierdistas. Murió en 1937 en un accidente de avión. Un año antes, el 19 de julio, escribió las siguientes palabras:

«Hay que sembrar el terror... hay que dejar la sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros».

El escritor Pablo Neruda le dedicó el poema *Mola en los Infiernos*, citado anteriormente.

Sakoneta

Izen osoa | Nombre completo: *Sakoneta kalea / Calle Sakoneta*

Sabino Arana eta Aldapa kaleen artekoa besteekiko paraleloa dena.

Sakoneta, Iparragirre etorbidetik Getxora goazela ezkeraldean geratzen den herriguneari esaten zaio. Ahoz, erdaraz *Sakonetas*, amaieran -s morfema pluralgilea duela topatzen dugu. Azken morfema hori ohikoa da auzo izenetan erabiltzea eta are ohikoagoa -*eta* atzizkia amaieran duten toponimoetan; izan ere, -*eta* atzizkiak jatorrian ugaritasuna esan nahi bazuen ere, maiz auzoak edo lekuak izendatzeko erabili izan da. Izen hau ezin egokiago datorkio lekuari, sakon batean baitago Ikea muinoa baino beherago.

Gaur egun Sakoneta kalea inguru horretan dago.

Calle que está en paralelo entre Sabino Arana y Aldapa.

Sakoneta se llama a la zona urbana que queda a la izquierda cuando vamos por la avenida Iparragirre hacia Getxo. En castellano lo encontramos acompañada del morfema plural castellano *-s*, *Sakonetas*. Este morfema es común cuando hace referencia a nombres de barrios y aún más común en nombres terminados en *-eta*. El nombre le viene muy bien al lugar, puesto que está en una hondonada, *sakon* en euskera.

Hoy en día la calle Sakoneta está en esa zona.

San Bartolome

Izen osoa | **Nombre completo:** *San Bartolome kalea eta parkea / Calle y parque San Bartolomé*

Izen bera duen ermitaren ondoko kalea. Ondizko Andra Maria ermitarekin batera Leioako ermita zahar eta jatorrizkoena da eta abuztuaren 24an egiten da ospakizuna.

San Bartolome ermita Peruri eta Basaiz auzoen artean dago, baina azken urteotan inguruaren izena ordezkatu du. Gertaera hau, santu izenek jatorrizko izenak ordezkatzeari, arrunta da Euskal Herrian eta toponimiaren pobretzea izateaz gain, euskararen egoeraren ondorioz gertatzen da. Ermita honen inguruan hainbat etxe izan da, besteak beste, *Ermitazpi* izenekoa, gaur egun zubia dagoen lekuan. Begi bistakoa denez, izena ermitaren azpian egotetik zetorkion, *baseliza* hitza berria baita.

Es la calle que está junto a la ermita del mismo nombre. Es una de las ermitas más antiguas de Leioa, junto con la de Ondiz y su festividad se celebra el 24 de agosto.

La ermita de San Bartolomé está entre los barrios Peruri y Basaez, pero en los últimos años ha sustituido el nombre del lugar. Este suceso es común en Euskal Herria y además de empobrecer la toponimia es consecuencia de la situación del euskera. Cerca de esta ermita había una casa llamada *Ermitazpi*, junto al puente. Ese nombre hacía referencia al lugar en donde estaba la casa; 'debajo de la ermita'.

San Juan

Izen osoa | Nombre completo: *San Juan auzunea / Barrio San Juan*

Iturribide ondoko auzoa, Mendibil ondoan.

Euskaraz Jaun Done Joane(s) erabiltzen zen eta handik sortu zen Donibane izena. Izen hau toponimian ageri bada ere, gure testu klasikoetan oso ugaria da, Isastik Gipuzkoan edo Lazarragak Araban biltzen dute, Pasaiaiko auzoa izendatzeko lehenengoak eta Aguraingo eliza izendatzeko bigarrenak. Tamalez, denborarekin elizak erdarazko San Juan inposatu zuen. Bakio eta Bermeo udalerrien artean dagoen Gaztelugatx haitzaren gainean dagoen ermitaren ahozko forma eza-guna *Doniene* da, Donibane toponimoaren forma laburtua hain zuzen ere. Francoren diktaduran ohikoa izan zen etxalde berriek santu izenak edukitzea, San Ignazio auzoan bezala.

Barrio al lado de Iturribide y Mendibil.

En euskera se usaba Jaun Done Joane(s), y de ahí surgió Donibane. Este nombre es habitual tanto en toponimia como en los textos clásicos. Ha sido usado por Isasti en Gipuzkoa o Lazarraga en Araba, el primero para referirse al barrio de Pasaia y a la iglesia de Agurain el segundo. Lamentablemente, con el tiempo la Iglesia impuso el nombre castellano *San Juan*. La forma oral de la conocida ermita de Gaztelugatx entre Bakio y Bermeo es *Doniene*, forma abreviada de Donibane. En la dictadura de Franco fue habitual que las barriadas nuevas se denominasen con nombres de santos, como en San Ignazio en Bilbao.

Santa Ana

Izen osoa | Nombre completo: *Santa Ana etorbidea / Avenida Santa Ana*

Kale hau Getxon hasi eta Leioan amaitzen da, Lamiakoko Ibaiondo auzunean.

Santa Ana izena Areetako ermita izenetik hartu da. 1864ko ermita hau eraikitzean harea-eremu bakartia zen, 1885ean hemen egiten ziren erromeriak inguruetako jendetsuenak ziren. Elizatxo hau, egungo Areetako parrokiaren aitzindaria, Francisca Labrocha an-



Campo metales


dreak eraiki zuen 1864an Lamiako izeneko lekuan. Izan ere, Lamiako izeneko inguruak Leioa ez eze, Areetako zati handi bat ere hartzen zuen, nahiz eta Getxon toponimo hau bazterturik egon.

Esta calle empieza en Getxo y termina en Leioa, en el barrio Ibaiondo de Lamiako.

Toma el nombre de la ermita Santa Ana de Areeta. Cuando se construyó la ermita en 1864 era una zona arenosa solitaria. En 1885, las romerías que se celebraban en este lugar eran las más concurridas de la zona. Esta iglesia fue la precursora de la parroquia de Areeta / Las Arenas y la construyó Francisca Labrocha en 1864, en la zona denominada Lamiako. De hecho, Lamiako también alcanza gran parte de Areeta, aunque este topónimo no se utiliza ya en Getxo.

Txabi eta Joseba Etxebarrieta (Ikus / Véase *Euzko Gudariak*).

Txikia (Ikus / Véase *Basarte*).



Txorierrri

Izen osoa | **Nombre completo:** *Txorierrri auzoa / Barrio Txorierrri*

Lamiakoko goialdean dagoen auzo txikia eta bertako kalea.

Txorierrri Bizkaiko haran baten izena da, bertako herriak Sondika, Derio, Zamudio, Loiu eta Lezama dira. Batzuek Erandio ere Txorierrriko herrizat dute.

Pequeño barrio de la parte alta de Lamiako y calle del mismo.

Txorierrri es el nombre de un valle de Bizkaia y Sondika, Derio, Zamudio, Loiu y Lezama son sus pueblos. Algunos también consideran a Erandio como parte de Txorierrri.

Ugarteondo

Izen osoa | **Nombre completo:** *Ugarteondo parkea / Parque Ugarteondo*

Iparragirre etorbidearen amaiera eta Lekueder kalearen artean dagoen parke berria.

XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran inguru horretan zeuden baserri eta herri lurretatik hartu du izena parkeak.

Parque nuevo que está al final de la avenida Iparragirre y entre la calle Lekueder.

Ha tomado el nombre de los caseríos y tierras comunales que había en esa zona a finales del siglo XIX o principios del XX.

Unibertsitate

Izen osoa | Nombre completo: *Unibertsitate etorbidea*

Sarriena Unbera, Unibertsitatearen ondotik doan errepidea.

Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatea egoteak egin du Leioa ezagun Euskal Herrian. Gazte askorentzat horregatik da Leioa ezaguna.

Carretera que va desde Sarriena hasta Unbe, al lado de la Universidad.

Hoy en día Leioa es conocido porque es ahí donde está la Universidad del País Vasco, y por esa razón conocen muchos jóvenes el pueblo.

Xaho

Izen osoa | Nombre completo: *Xaho plaza / Plaza Xaho*

Pinueta auzunean Amaia etorbidearen parean dagoen plaza txikia. Diktadura garaian Lepanto izena zuen, garai hartan ohikoa baitzen Inperio garaiko gertakizunak goraiatzea.

Agosti Xaho Lagarde (Atharratze, 1810 - Baiona, 1858) euskal idazle, kazetari eta hizkuntzalaria abertzaletasunaren aintzindaritzat jo izan da. Ekialdeko hizkuntzak ikasi zituen, eta erromantikoen aroan bizi izan zen. Liburu ospetsu eta eztabaidagarriak idatzi zituen euskaraz zein frantsesez: *Azti-beguia* (1834); *Voyage en Navarre pendant L'insurrection des basques* (1830-35), zeinetan bere parte hartzea lehenengo gerra karlistan agertzen den; A. Abbadiarekin *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (1836); *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1847) eta *Lelo ou la Navarre il y a 500 ans* (1848). Baionan *Ariel* egunkari errepublikarra sortu zuen eta 1848ko altxamenduko buru izan zen; berak idazten zuen egunkariari *Le Republicain de Vasconie* ipini zion izena, izan ere errepublikar sutsua zen bera. Departamenduko Kontseilu Nagusiko kidea izan zen (1849-1851). Euskal Herri osoan zabaldu zen berak sorturiko "Aitor" mito historiko-politiko. Kantutegi bat eta lau hizkuntzatak (euskara, frantsesa, gaztelania eta latina) hiztegia ere egin zituen. Dirudienez, bere hileta Ipar Euskal Herrian euskaldun bati egindako lehenengo hileta laikoa izan zen, berak horrela eskatuta.

Pequeña plaza del barrio Pinueta que está junto a la avenida Amaia. Durante la dictadura se llamaba Lepanto, siguiendo la tónica habitual de elogiarse los sucesos del Imperio.

Agusti Xaho Lagarde (Aiharratze, 1810 - Baiona, 1858) escritor, periodista y lingüista, es considerado uno de los precursores del nacionalismo vasco. Vivió en la época de los románticos y escribió libros tanto en euskera como en francés como: *Azti-beguia* (1834); *Voyage en Navarre pendant L'insurrection des basques* (1830-35) traducido como *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*, en el cual aparece su participación en la guerra carlista; *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (1836) junto con A. Abbadie; *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1847) y *Lelo ou la Navarre il y a 500 ans* (1848). Fundó en Baiona el periódico republicano *Ariel* y en 1848 fue jefe del levantamiento; era un ferviente republicano, por lo que llamó *Le Republicain de Vasconie* a su periódico. Fue miembro del Consejo Superior del Departamento (1849-1851). El mito histórico-político "Aitor", que él creó, se expandió por todo Euskal Herria. También escribió un cancionero y diccionario en cuatro idiomas (euskera, francés, castellano y latín). Al parecer, su entierro fue el primer entierro laico que se le hizo a un vasco a petición propia en Iparralde.

Zarrageta

Izen osoa | Nombre completo: *Zarrageta kalea / Calle Zarrageta*

Artatza auzoko beheko aldeko kalea

Zarragetak Zuhatzu-Artatza auzoko desagertutako etxalde baten izenean du jatorria, hain zuzen, *Zarraga* eta haren bikote zen *Zarragabarrena* baserrietan. Izen familia bereko etxalde bi zeudenez, inguruari *-eta* atzizki pluralgilea gehitu zitzaion eta Zarrageta izena sortu zuten biztanleek inguru hori izendatzeko. Gaur egun ingurua ez eze, kale-izena ere bada. Gastelaniaz ahoz *Zarragatas* esaten zioten (1912tik horrela dokumentatua).

Calle de la zona baja del barrio Artatza.

El nombre Zarrageta tiene su origen en dos caseríos ya desaparecidos del barrio Zuhatzu-Artatza, más exactamente en el caserío *Zarraga* y en su contiguo *Zarragabarrena*. Como había dos nombres de la misma fa-

milia, se le añadió el sufijo *-eta* creando Zarrageta para referirse a la zona. Hoy en día, además, hace referencia a una calle del mismo nombre. Oralmente parece que se refieren a él en castellano como *Zarragatas*, documentado así desde 1912.

Zarragabarrena

Izen osoa | Nombre completo: *Zarragabarrena parkea / Parque Zarragabarrena*

Artatzan, Zarrageta kale ondoko parkea.

Zarragetabarrenak Zuhatzu-Artatza auzoko desagertutako etxalde batean du jatorria, hain zuzen ere Zarraga izenekoaren bikote zen **Zarragabarrena** etxean.

Parque que está al lado de Zarrageta en Artatza.

Zarragabarrena es el nombre de un caserío ya desaparecido del barrio Zuhatzu-Artatza, que estaba junto Zarraga, más abajo como su nombre (*barrena* 'el de abajo') indica.



Beste leku-izen batzuk: mendiak, basoak, errekek eta lur sailak

Otros nombres de lugares: montes, bosques, ríos y parcelas de terreno

AZKEN ATAL HONETAN Leioan ezagunak diren edo gutxienez planu eta dokumentazioan ageri diren garrantzi handiko beste izen batzuen azalpenak bildu ditugu. Badira izen asko denboraren poderioz gauza bat baino gehiago izendatzeko erabili ditugunak. Ikea, esaterako, toponimoa zen eta gaur egun kalea, horrelakoak ez ditugu errepikatu nahi izan eta lehenagoko azalpenetara igorriko dugu irakurlea, baita hemen ageri diren jatorrizko izen batzuetara ere.

EN ESTE ÚLTIMO CAPÍTULO hemos recogido descripciones de otros nombres de gran importancia que son conocidos en Leioa o que, al menos, aparecen en planos o documentación. Existen nombres que, debido al paso del tiempo, los estamos utilizando para designar más de una única cosa. Ikea, por ejemplo, era un topónimo y hoy en día es una calle. Este tipo de ejemplos no los hemos querido repetir y dirigiremos al lector a descripciones anteriores, así como a algunos nombres originarios que aparecen aquí.

Agirrebaso

Euskaraz ohikoa da herriek eta baserriek baso zatiak edukitzea eta horrelakoek *izena + baso* egitura dute, kasu honetan bezala. Beraz ‘Agirre baserriarena’ zen basoa dugu hau. Beste horrenbeste esan daiteke **Alkaténabaso**, **Arostegibaso**, **Bidaurratzagabaso**, **Gerediagurrebaso**, **Peruribaso** (gaur egun ezezaguna) eta **Lukitxuenabaso** izenekoez. Batzuetan, ez kasu hauetan, horrelako izenetan ageri dira herri izenen euskal aldaera, **Abadiñobaso** edo **Ozetabaso** izenetan bezala, ofizialki Abadiano (lehen) eta Ozaeta.

En euskera es habitual que nombres de pueblos y caseríos contengan la parte *baso* ‘bosque’, en euskera. Este tipo de topónimos tienen una estructura *nombre + baso*, como en este caso. Por tanto, éste indica que era el bosque del caserío Agirre. Otro tanto se puede decir sobre los nombres **Alkaténabaso**, **Arostegibaso**, **Bidaurratzagabaso**, **Gerediagurrebaso**, **Peruribaso** (hoy en día desconocido) y **Lukitxuenabaso**. A veces, no en estos casos, en este tipo de nombres aparece la variante vasca de nombres de pueblos, como en **Abadiñobaso** o **Ozetabaso**, oficialmente Abadiano (antes) y Ozaeta.

Alkatenaostebaso (Ikus/Véase *Agirrebaso*).

Areatxu

1787an ageri da Areatxu haritz basoa zela, baina era berean esaten zen Leioak ez zuela herritarrek behar zuten beste egurrik eta ondoko herrietik ekarri behar bide zutela. Izenaren osagaiak *harea* eta *-txu* txikigaria dira. Artatza eta Golfaren artean bide zegoen. Izen bera du Arrigunaga hondartzaren zati batek.

En 1787 aparece el término Areatxu como bosque de robles, pero de la misma forma, se decía que Leioa no disponía de la madera suficiente que necesitaban sus habitantes y tenían que traerla de los pueblos vecinos. Los componentes del nombre son *harea* 'arena' y el sufijo diminutivo *-txu*. Según parece, estaba entre Artatza y el Golf. Se llama igual una zona de la playa de Arrigunaga.

Arostegibaso (Ikus / Véase *Agirrebaso*).

Askartzaburu

Askartza inguru zabala zen garai batean Kurtzebeko, Kurtzegoiko eta Askartza baserri bera hartzen zuen eta horregatik horko gain-txoak Askartzaburu izena du. Toponimian, hizkuntza guztietan, da ohikoa gorputz zatiak erabiltzea eta hau da kasuetako bat.

Askartza era un entorno amplio en una época. Englobaba Kurtzebeko, Kurtzegoiko y el mismo caserío Askartza y, por ello, ese lugar un tanto elevado tiene el nombre de Askartzaburu. En la toponimia, en todos los idiomas, es habitual utilizar partes del cuerpo y éste es uno de esos casos.

Bidaurratzagabaso (Ikus/Véase *Agirrebaso*).

Bidaurratzagaburu

Euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, ohikoa da gorputz atalak izenetan agertzea eta, dudarik gabe, ohikoena *-buru* da, leku baten gainean dagoen gunea izendatzeko erabiltzen dena.

En euskara, al igual que en otros idiomas, es habitual que aparezcan partes del cuerpo en los nombres y, sin ninguna duda, el más habitual es *-buru* 'cabeza', el cual se utiliza para designar a la zona que está encima de algún lugar.

Bolunburu

Askartzaburu eta Bidaurratzagaburu artean dagoen gaina. Izenaren osagaiak *bolu* hitza 'errota' eta *buru* dira eta 'errotaren gaineko aldea' adierazi nahi du. *Bolu* hitza latineko *molinum* hitzetik dator eta bokal arteko *-n-* galdu bazuen ere, konposatueta berragertzen da eta horregatik *Bolunburu*. Gertaera hau ez da hitz honekin bakarrik gertatzen eta, esaterako, *kanpaia*, *ardoa* eta *gazta* esan arren, *kanpandorre*, *gaztanbera* eta *ardandegi* darabiltzagu.

Lugar un tanto elevado situado entre Askartzaburu y Bidaurratzagaburu. Los componentes del nombre son *bolu* 'molino' y *-buru* y hacen referencia a la zona que está encima del molino. La palabra *bolu* proviene del término latino *molinum* y aunque perdió la *-n-* de entre vocales, en palabras compuestas reaparece y, por eso, *Bolunburu*. Este fenómeno no se da únicamente en esta palabra y, por ejemplo, aunque decimos *kanpaia* 'campana', *gazta* 'queso' y *ardoa* 'vino', utilizamos *kanpandorre* 'campanario', *gaztanbera* 'requesón' y *ardandegi* 'bodega'.

Gerediagurrebaso (Ikus / Véase *Agirrebaso*).

Giltzeko erreka

Giltza esaten zaio errotetako erretenak ixten duen tramankuluari eta kasu honetan horrela eman dio izena errekarri.

Giltza 'llave' se denomina al aparato que cierra los canales de agua de los molinos y en este caso le ha dado el nombre al río.

Gobela (ibaia, río)

Urduliztik datorren ibai ezaguna. Etimoa erabat ezezaguna da, baina historia berezia du Getxoko auzoa baitzen *Gobela*, bere barruan gaur egungo Aiboa eta Neguri zati bat, ibairaino, hartzen zuena. Gaztelaniaz ohikoa da amaieran -s bat gehitzea eta inoiz pentsatu izan da jatorrizko izena *Gobelats zela*, *latsa* 'erreka' baita. Dokumentazioan kresaltsu da.

Conocido río que proviene de Urduliz. El étimo es completamente desconocido, pero tiene una historia singular, dado que *Gobela* era un barrio de Getxo que abarcaba los barrios de hoy en día Aiboa y parte de Neguri (hasta el río). En castellano es común añadirle un -s al final, por lo que alguna vez se ha pensado que el nombre original era *Gobelats* ya que *latsa* en euskera es 'regato'. En la documentación se llama kresaltsu

Ikea (Ikus / Véase *Ikea kalea*).

Koleterobaso

1865ean baino ez dugu izen hau dokumentatu eta ez dugu etimoari buruzko daturik.

Este nombre no se ha documentado más que en 1865 y no se tienen datos sobre este étimo.

Kukularra

Izen hau ezaguna da Erandion dagoen mendiagatik, baina arrunta da Euskal Herrian. Osagaiak *kuku* txoria eta *larra* hitz arrunta dira.

Este nombre es conocido por el monte que existe en Erandio, pero es común en Euskal Herria. Está compuesto de *kuku* nombre de ave, en castellano ‘cuco’ y *larra* ‘pastizal’, ‘campo’: ‘Campo del cuco’.

Kukutzaburu

Kukutza hitza arrunta da toponimian eta erdaraz ere erabili izan da Urduña inguruan, esate baterako: *Las Cucuzas*. Badirudi bizkar itxurako lekuak izendatzeko erabili izan zela. *Buru* hitza dela eta, ikus *Bidaurratzagaburu*.

El nombre *kukutza* es común en la toponimia y en castellano también se ha utilizado en la zona de Orduña: *Las Cucuzas*. Al parecer, se utilizaba para designar lugares con forma de loma. Para la palabra *buru*, véase *Bidaurratzagaburu*.

Kurkudi

Leioako mendirik altuena. Larramendiren hiztegian *kurku* hitza “corcoba” (*corcova* Real Academia Españolaren ‘curva’ edo ‘hondonada’ da) dela ageri da. Gipuzkoan *kurkuts* landarea da, ‘gurbitza’ (*Arbutus unedo*). Horretaz gain, *kurkubita* hitza haritzetan ageri diren liztorren habiak eta sagar mota bat bada. Hitz honetan dugun *-di* atzizkia landare izenekin ageri da, baina ez dakigu besterik.

Es el monte más alto de Leioa. En el diccionario de Larramendi la palabra *kurku* aparece como ‘corcoba’ (en el diccionario de la Real Academia Española, *corcova* es ‘curva’ u ‘hondonada’). En Gipuzkoa *kurkuts* es una planta (*gurbitza*, ‘borto’ o ‘madroño’, *Arbutus unedo*). Además de eso, la palabra *kurkubita* son los nidos de los abejones que aparecen en los robles y un tipo de manzana. El sufijo *-di* que encontramos en esta palabra aparece con nombres de plantas, pero desconocemos algo más al respecto.

Landabarri erreka (Ikus / Véase *Landabarri kalea*).

Lertutza urtegia

Urtegi honek inguruko *Lertutza* etxaldetik hartu zuen izena. Etxaldea 1649an ageri bada ere, 1704ko suteagian ez da izen horrekin aipatzen. Ahoz, ohikoa den bezala, amaierako bokala aldatu eta *-e* bihurtu zen XIX. mendearen amaieran. Geroago soinu afrikatua (*tz*) indartu eta *Lertutxe* esaten hasi zen. Hori dela eta, 1934an *Lertuetxe* idazkera sasi-etimologizalea zabaldu zen.

Esta presa cogió el nombre del caserío *Lertutza* que está en el entorno. Aunque el caserío aparece en 1649, en las fogueraciones de 1704 no se menciona con ese nombre. Oralmente, como es normal, la vocal final se modificó y se convirtió en *-e* al final del siglo XIX. Más tarde, el sonido africado *-tz* se reforzó y se empezó a decir *Lertutxe*. Debido a eso, en 1934 se expandió la forma pseudo-etimológica *Lertuetxe*.



Lertutzaburu (Ikus / Véase *Bidaurratzagaburu*).

Lukitxuenabaso (Ikus / Véase *Agirrebaso*).

Ollarrondo bidea.

Ollarrena etxalde izenetan oinarritutako toponimoa. Badirudi ize-naren eboluzioa ondokoa izan zela: *Ollarrenaondo* > *Ollarrenondo* > *Ollarrondo*, baina ez dugu tarteko pausorik lekukotu.

Topónimo basado en el nombre de caserío Ollarrena. Parece que la evolución del nombre fue el siguiente: *Ollarrenaondo* > *Ollarrenondo* > *Ollarrondo*, pero no hemos podido constatar pasos intermedios.

Ondizgana

Ondiz auzotik Gazteluetara doan mendiskari esaten zaio Ondizgana. Nahiz eta gaur egun herriko auzo xumea izan, zaharrenetakoa dugu Ondiz, eta, lehen, erreferente nagusienetakoa zen.

Ondizgana se conoce como la colina que se sitúa entre el barrio Ondiz y Gaztelueta. Aunque Ondiz hoy en día sea un pequeño barrio del pueblo es de los más viejos y fue uno de los referentes principales de Leioa.

Udondo ibaia eta dartsena (Ikus / Véase *Udondo auzoa*).

Urtzubiburu

Izen hau saldutako herri lurren artean ageri da bakar-bakarrik eta ez dago non zegoen jakiterik. Hala ere, buru edo gaintxo asko ez dagoenez, izen baten okerreko idazkera dela pentsa genezake, agian, *Bidortzaburu*.

Este nombre sólo aparece entre las tierras comunales vendidas y no hay manera de saber dónde estaba situado. Sin embargo, al no haber muchas colinas o elevaciones en Leioa (*buru* siempre va asociado a zonas de altura de terreno), podemos pensar que se trata de la escritura incorrecta de algún nombre, quizás *Bidortzaburu*.

